



OLERKIAK

lauaxeta

URKIAGA TAR ESTEPAN
(Lauaxeta)

OLERKIAK

- 1) "Bide Barrijak" (1931)
- 2) "Arrats-beran" (1935)
- 3) "Beste pusketa batzuk" (1928-1937)



ETOR BIDEAN
KULTVRA

Apartado 193
San Sebastián

BEAR DIRAN BATMENAKIN

I. S. B. N.: 84 · 400 · 1080 - X

Depósito legal: BI 2408 · 1974

S'arrera bezala

Beranduegi bada ere, Lauaxeta olerkari bikain-bikainaren olerkiak osorik bezala berriz ere argitarazteko garaia etorri omen da. Bazen ordu izan ere, baina berandu obe, bazterrean ixilik izatea baino. Garai aietako olerkaririk punterengoa-edo izan genuen, nonbait. «Euskaltzaleak» sortutako leengo euskal-olerti-egunetan txapeldun agertu zen Urkiaga, naiz-eta norgeiagoka artara Lizardi ta Orixe ere aurkeztu izan. Ni neu arekin batera gaztetandiko zazpi urte ederretan adiskide ta ikaskide bilakatu nintzen. Beraz, besteak beste, nere adiskide onen alderako omenaldi au oso gogoko ta biotz-betegarri gertatzen zait. Zorionak niketz upelka Onaindia karmeldar langile purrukatuari, argitaralpen au bere gain artu duela-ta.

Leenik elkar Durango-n ezagutu genuen: Urkiaga latinaren laugarren urtean ari zen, Erretorikm alegia, ni, berriz, leenengo urtean ari nintzen. Garai anan euskaltzale ote zenik eztakit arean. Ortaz iñork iakitekotan, Pio Montoia apaiz ikasiak iakingo luke, biok ikaskide izan baitziren Durango-n. Ori 1920-21 garren urteko ikastaroan izan zen. Biok eta orien Erretorika-lagunek ageriko batzarra batetan erderazko itzaldi ederrak izan zituzten, Aita Atutxa Antonino-ren zuzendari-pean. Urte artan orrelako iardunalditan euskerazko bertsoak esan zituena neu izan nintzen Durango-n.

Gero, L'oiolaratu ginen biok, 1921'garreneko Uztailaren 15'nerako edo, batak bestearen berri iakiteke. Loiola-n asi-berri elkarrekin batera asi ginen. Urkiaga-k gauetan ametsetan asi ta egundoko itzaldiak egiten zituen erderaz, eta loak artuta iaiki ta beldurgarritzko gurpilak eta artaziak atera oi zituen. Gutarteko asi-berri zen Kaltzada kalonigua: arrituta zegoen Urkiaga-ren itzaldiak entzunda. Ordurarte Loiola-n frantzes-eduko lotegiak genituen asi-berriok: aurrez, oial zintzilikarioz estali, albotara zerrenda gogorrez bereizi ta goitik zabalik. Urkiaga loak artuta iaiki ta goi-ertzetako ze-

rrenda extuan barrena ibili oi zen zutik, burua austeko zorian. Ori itzurtzeko asmotan, gela batetan sartu zuten, eta ni arekin: atea ta leioa giltzez ixten nizkion, eta giltzak, berak etzekien bazterrean uzten nituen. Barnez euskaldun zen. Berberak auxe esan zidan: ni ametsetan asten naizen bakoitze-tan, Estebantxu ta Estebantxu deadar egidazu, ni itzarri arte. Orrelaxe egiten nion: ametsetan asi-ala, Estebantxu entzuten zueneko, itzarri egiten zen. Lo egizu, gaineratuta, bai, bai, ta berealakoan loak artzen zuen bakerik. Bein, oeratu baino leen, gaueko otoitzak egiten ari ginelarik, udako gela argitara xaguxar bat sartu zen leiotik barrena. Ura arrapatu ta il arte etzen gelditu: gau artan ametsetan ari izan zen xaguxar ura zela-ta.

1924'garren urtetan «junior» bezala latin, eladera ta eler-tiak ikasten ari ginen euskaldunok, euskaltzale gertatu ginen: ixileko eragile neu izan nintzen. Kaputxino ospatsu batek idat-zitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz: eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-egia. Leenik Ibinagabeitia-tar Andima-k eta biok irakurri genuen. Aurten 50 urte bete dira: Loiola atzekaldeko galbani-iturri bazterrean eseri ginen udako arratsalde batetan biok: irakurri-ala, auxe esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, ta euskera ikasi egin bear dugu. Egia esateko, ezkenuen euskera aazturik erabat, galduxe baizik. Liburuxka ura izan ezik, ez-takit euskaldun bezala iraungo ote genukeen. Euskaldunen artean zabaldu genuen ixilpean. Tarteko ziren Urkiaga, gero-ko Lauaxeta, Goenaga-tar Iñaki, gero SchiUer-en Wilhelm Tell euskeratu zuena, Mujika, geroko euskal-iztegile bikaina, Larrañaga, Karakas-ko Andima Ibiñagabeitia saria leenik ira-bazi zuen Azkoiti-ko semea, Argarate, Urretxu-ko seme den Euskal-idazle ta olerkari zoragarria: orren lan eder batzu euskal-langileei buruz Guatemala-ko Euzko-Gogoan argita-razi nituen. Sarobe, Lesaka-koa, Estrabon-i buruz azterketa sakona eman zuena. Martikorena, emengo azken-gerratean Kapellau ari zelarik il zuten Betelu-ko semea. Azpeiti-ko Korta anaiak, Gaztelumendi, geroko eliz-izlari ospatsua. Gu-tarteko zen Zubiaga, *Zorion-bidea* liburu zoragarria argitara-tu-berri duena ta gerraondoko euskal-izlaririk maitatuena ta

aurreratuagokoa izan-arren, euskaltzaletasunean iritzi berdi-neko ginen.

Arkitu genuen leengo oztopoa gure arduraduna izan genuen, Errandonea gure latin eta eladera irakaslea, alegia. Ez-tut esker txarreko gizon izan nai.' Alare, egiari berea zor diot: ezkenuen arengan elkarrekiko begirunerik arkitu. Salari-aginpidea zeraman, eta liburuxka ura atzeman zuen: errudun neu egin ninduen. Ark esan zizkidan astakeriek negar onik eragin zidaten: liburuxka ura zela-ta, ogen larririk egin nuela ta abar. Berak uste etzezaken bidez nere burua xuritu aal izan nion, erantzukizun osoa neuk artuta. Errandonea lau eratarazagutu nuen: leenik euskeraren aurkako amorratua, Oxford-etik etorri berri zenekoan. Gero, errepublikaren garaiean, euskeraren eta euskaldunen aldeko gertatu zen. Garai ontan Marneffe-ra etorri, dei egin eta parkeske egin eta zorionka erabili ninduen, *Antigone* euskeratu ta argitarazi nuela-ta. Elkarrekin izan genuen burutu-ezina inoren errurik gabe gerta zitekela-ta parkeske egin zidan, eta artuta nuen bidea barrena jarraitzeko. Gertatu bear etzitzai-gun zoritxarra euskaldunei gertatzerakoan, «Razón y Fe»-n euskaldunen aurka ixuri ziren irainen erantzukizuna izan zezakeen berak, Errandonea bera baitzen aldizkari aren zuzendari. Azkenik, Madridera utzi ta berriro Donostiratu zenean il arte euskeraren eta euskaldunen aldeko jarri omen zen bearririk. Orrelako gizonak eguzkia nora, zapia arakoak omen dira gure erritarren ustez,

Loiola-ko gazteok euskaltzaletuta gero, ezkenuen atzerarik egin aurrerantzean. Gure barrutiko ikertzaile izan-berri genuen Aita Boeto, gero Elizako kardinala izatekoa: ark utzi zuen gutan oroigarrian euskeraren aldeko iarririk zen.

Euskal-aditza Apalategi, Zubiri filosofilariaren osabak irakatsi zigurv sakon eta patxada anditan, *Euskal mutuak* arñetan, *Auspoa-k* 1961'garren urtetan argitaraziaren biltzailea. Gaiñera, Zugatzaga ta Olabide andiak Loiola-n bertan ginituen.

ríerri-^jn oateratua ta orreíaKo uatzuK Kenouta, aioizKana osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo. Urkiaga-k Basaraz izengoitia zerabilen nonbait.

Gutarteko euskaltzale-bazkuna sortu, ta Loiola-n, Oina-n eta Mameffe-n iraun eta gutartera etorri ziren beste ikasle gazte ta zaaragoak ere: aipagarri ditut Erroma-ko Goenaga Joxe, Formosa-ko Etxeberria olerkari saritua, Olabide-ren Itun Zaar eta Berria argitarazi zuena, Irure, Txinaratu ta amar egunetara edo il zen euskal-idazle argia, Mantzisor santuen bizitza-idazle zoragarria, Goenaga Gotzon, Hemingway ospatsuaren *Agurea ta itxasoa* itzuli zuena, Goikoetxea-Maiza Ion idazle goxoa, Barandiaran-dar Gaizka, Omer-en Ilias-ena euskeratu zuena ta abar.

Loiola-n beste erabakirik ere artu genuen: eladerazko ta latiñezko klasikoak euskeratzea ta bakoitzak bere egitekoa artu zuen Ontan porrot egin genuen nolarebait. Alare, Andima-k Bergili-ren Unai-kantak eta Alor-kantak euskeratu zituen, gerora Onaindia karmeldarrarekin batera Bergili-ren lanak osorik euskeratu ta argitarazi zituzten: nik Sofokel osorik euskeratu ta argitarazi nuen.

Gaiñera, irakasle onak izaki, Elade-ko ta Erroma zaarreko idazle, olerkari ta izlariak ongi ezagunak izan genituen: Errandonea-k Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide-ta irakatsi zizkigun: gaiñera, Shakespeare, Vieira brasildarra, Kolumbia-ko ta Txile-ko izlariak. Estefania-k Bergili-ren Eneida, Orati, Obidi, Tibul, Propertzi-ta. Orobat erderazko elertia, inglesa, frantzes, italiarra, alemana, portuges, katalanerazkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari. Erdal-izlariak, berriz, Luis de Granada, Luis de Leon, eta itz-lauzko erlijio idazleak barrena Nocedal-enganaino irakatsi zizkigun Juanjo Goikoetxea-k.

Giro ortan azi zen Urkiaga, geroko Lauaxeta, 21 urte bete arte. «Gure arteko ikasle gazteak zenbait urtez Elade-ko ta Erroma-ko giro osasungarri ta zoragarrian bizi izango balira, oberenik litzateke: giro orri neronek zer zor diodan gogotik esan nezake, norbere buruaz mintzatzea ain itsusi ezpalitz.

cuen gaztaroKO urteriK euerreiidK» √J)J esan ¿czdiscii uiftid^d-K ere.

Asieran olerkari bezala agertu zen Lauaxeta, gero egunkalari ta izlari bezala. Gazterik il zuten: gora ta gora zioan garaiean. Aingerutxo bat bezala il zen, esan zidan Aita Moreno-k, Gasteiz-ko morroilopean ikusi zuenak.

Arrats-beran olerkera berriagoa asmatu zuen Lauaxeta-k: nolabaiteko euskal-erromantzea-edo, erromantze utsa ez izanarren. Bigarren olerki-liburua argitaratu-ala, Garda Lorea Bilboratu omen zen, Urkiaga ezagutu-nairik, Andima-k-edo esan zidanez. Aren garai-arteke eder-gaietan oso ikasia zen Urkiaga: irudimen ederreko, biotz-andiko ta buru argiko gaztea zen: euskal-ritmüaren sena iñork baino ederragoa izan zuen Lauaxeta-k, nere ustetan.

Itz-lauz ere geroago ta ederrago ari zen Lauaxeta. Orixe-k eguneroko euskal-orri zuzendaritza utzi-ala, euskerazko ornaren zuzendari Urkiaga egin zuten: Kirikino, Orixe ta Urkiaga, euskal-orri artako zuzendari ezagutu nituen: irurak zein baino zein ederragoak baldinbaitere. Onuragarri izango genuke aren itz-laua ere biltzea,

Olerkari bezala beti etengabe eder-bila ari izan zen Urkiaga: ain zuzen, orixe da olerkari, ítz-neurtuz ederra adierazten duena, margolaria kolorez eta lerroz, musikalaria eresiz eder bila ari diren bezala. Ari ontara Urkiaga sakonen aztertu duena, Arostegi karmeldarra dugu nere uste kaxkarrean: emen duzute aren iritzi ederra ere. Estefania-k Madrid-eko *Razón y Fe* aldizkarian, bere iritzia eman zuen, Urkiaga-k bere liburu bakoitza argitaratu-ala. An bertan bizi da, Madrid-en alegia, gure ikaskide ta adiskide laztan dugun Bartolomé Mostaza olerkari ta *Ya* eguneroko idazle bikaina. Orren iritzia ere iakingarria izango genuke,

Orra, gaingiroki bada ere, sarrera bezala-edo, nik zazpi urteren epean ezagutu nuen Lauaxeta ezilkorra: aren bizi-artzarteko beste berriak, oi duen esku zeatzez emango dizkigu Onaindia karmeldarrak.

Zaitegi eta Plazaola-tar Jokin Ph. D.

(i) Platon-eneko Atarian, 2'garren orrialdean.

OROITZAK

Milla bederatzireun eta ogeita amalauko udaberrian, itzaldi bikaiña eskeiñi zigun Lauaxeta gazteak gure erriko azoka-enparantzan, azkoitiar gaztediaren deiari erantzunaz*. Notintza aundia bildu zan olerkariaren inguruan, bere mintzaldi sakon argia entzutera. Oso txalotua izan zan eguerdi aretan.

Gazte talde batek —neska ta mutil—, Lauaxeta maikide genduala, bazkari ederra egin genduan erriko jatetxe ezagun betean; onen ostean, maiondo atsegin ikaskorra. Gure milla galdera zirikor guztieri erantzun egokiak emanaz, gure be-launaldiari zetorkion urte gogorak kementsu artzeko esanik, bukatu zuan bere ikertaldia.

* * *

Gero, ustekabeen, ogeta-amaseiko istilluak... Udazkenez. ala-bearrak bultzatuta, Bilbo'runtz jo genduan; batzuek lenago besteak gerotxuago, gudaritzan sartu giñan.

Urrutizkiñeko artu-emanen ikasketa batzuk egin ondoren, bizkaitar euskal mutillak osatzen zuten talde batera izendatu ninduten.

Negua, gertakizun mingarri batzuk kendu ezker, ainbeste igaro genduan; guztiok zutik giñan beintzat. Baiña etorri zitzaigun udaberria, ta berarekin baita etortzekoa zana ere. Epaillaren azkenean asi ta zortzi egunean, etzan giro izan. Ango egazkin beltzen erasoak; su-danbadaren otsak belarriak gortu bear, eta izkillazkarren dipi-dapea etzan makala. Gure euskal mutil bulartsuak kemenez jokatu zuten, agintariak arritzeraiño. Lagun asko galdu zitzaizkigun. Eraso ura, andik aurrera igaro bearra izan genduan gurutzbidearen asiera besterik etzan.

Ainbeste odol ikusi; ainbeste neke, beldur eta estuasun igarota ere, gaztetan ala edo ola eraman egiten dira. Nola? Alaitasunak, andik edo ortik, beti aurkitzen du zirrikituren bat gazte artera sartzeko. Zauriak arakaizten dijoazten bezela, zenbat ezbear eta oiñaze garratz, gudaritzan igarotakoak, az-

ere.

* * *

Ilunabarra... Ustuta zegon basetxe bateko atadian, an ta emen jarrita, gudari talde aundia geunden apaltzeko zai. Ma-saillean joten gindun egoaize epelak egonezin bat sortzen zigung biotz barrenean. Arratsalde aretan, gu geunden lekutik sorkaldera nunbait, eten gabeko joan-etorria zebillen egazkin beltzak: an ustutzen zuten euren eriozko zama.

Gurdi-pertika baten exerita makur, ukondoak belaunetan eta eskuak arpegian nengoala, gure Aita Frantzisko pasiotarra agurtza donea otoizten asi zan, aste batzuek lenago asitako oiturari jarraituaz.

Bat-batean, il-berri samar nuan izeko zar baten oroia etorri zitzaidan burura, ta irribarre antzeko muzin bat ez-paiñetara. Ene izeko maite arek, amalau urte omen zituan bigarren karlistetako guda bukatu zanean. Askotan esan oi zidan geure alkarrekiko eztabaida txikietan, biotz gartsu esan ere, nola Lizarraga jeneralaren mutillak Errosario santua egu-nero erreztatzen zuten.

Gabak bere maindira beltzakin gure lurralde gaixoa estali zuanean, sortaldetik zerua gorri-gorri zan...

Bi edo iru egunera jakin genduanez, guda berri-emaille batekin batera, Lauaxeta ta Plazet jaunak baituak izan ziran.

* * *

Gudaren irudirik beltzenetakoa da erri ta baserrietako etxeak utsik laga ta, bai gabaz ta bai egunez, ume ta zar, denak batera igesi, al duten lekuetara, joaten ikustea. Irudi tristea... Biotza erdibitzen du.

Onelako eguna zan gu Usansolo'ko mendietan gora gin-joazen arratsalde euritsu ura.

Basetxe batera urbildu giñanean, atadian bi gurdi aundi etxeko tresnaz beterik, eta lau ume koskor negarrez zeuden.

ren gelara. Azkeneko arnasetan arkitzen zan gizajoa.. Aurrean, bere semea negarrez, eta auzotar batzuek. Denok belaunikatuta bere aurrean otoitzean giñala il zan aiton jator ura... Benetako zirradak bildu ginduan bertan arkitzen giñanok.

Gorputza oztu baiño len burusi batean bildu, atadira jetxi, ta: bi auzotarrek egurrezko oetilla baten bizkarrera jaso ta, aitonaren gorpua aurretik eta gurdi biak ondoren, alan us-tu zuan bere etxea sendi gaixo arek arratsalde triste aretan...

* * *

Garagarrillaren amairua zan. Aurreko egunean eraso ikaragarria jasanda gero, paketsu zijoazten gaua ta goiza gu geunden Gerriko guda lekuan. Bero zetorren eguzkia; igaro ziran zortzirak, bederatziak... Amarrak aldean, eraso beldurgarria berriz ere. Gutxiena ustetako unean baituak izan giñan...

Egun ura Fika'n egin ta urrengo egunean Gernika'ra. Illaren ogeian, geunden lekutik atera ta, oiñez, Batzar Etxearen goiko aldetik beera zuzenean, enparantzan zear, geltokira. Eskubi aldera begira-ta, lenengo zoruraino zutik zeuden ormak... Gaur jatetxe ospetsu bat dagon aurrean, etxe aundi bat sartzeko laingo zuloa bai... Ezker aldetik, eleiz nagusia, apurtuta, danez gaiñ ikusten zan, eta azpiko aldeko kale denak sakar tontor bat egiñik. Zearo billutsik arkitzen zan geltokian sartu giñan bultzi-gurdietan, eta Gazteiz'era eraman giñuzten Durango'n zear. Uri onek, ots, Durango'k aragi bizitan zeuzkan bere zauri gogorak.

Gazteiz'en, baituak artzeko gertatu zuten «Sierras Alavesas»-en sartuak izan giñan. Askatasun pixka bat ba-genduan atadian. Orrela ezagun eta gazteiztar batzuk etorten ziztaizkigun. Ba-zan beltzez jantzitako emakume xar bat, beldurti xamar gure aurretik igarotzean, ogi-erditxo bat egunero an ondoko pendizean lagatzen ziguna. Emakume onek esan zigun egun batean, nola goiz aretan Lauaxeta ta Plazet donostiarra illak izan ziran.

Egun batzuk ainbestean toki onetan egin ondoren, Orduña'ra. Ta dagonillaren asieratan berriro Gazteiz'era, Karmelo'ko Lekaidetxean, espetxe biurtuta zeuden goiko geletara. Sartu ninduten gelan amalau-amabost gizon adiñeko zeuden denak arabarrak, eta tartean laudiotar batzuek. Auek esan zidaten nola gela ontan Lauaxeta ta Plazet egon ziran. Baita erakutsi ere ormatik zintzilik zegon Ama Birjiña Karmen-goaren lauki atzean, Lauaxeta'k, il aurreko orduetan idatzita utzi zuan, erderaz Ama Birjinari zuzendutako amalaukoa. Ta bereala, euskerazkorik ez ote zuan utzi galdetzean, «Bai —erantzun zidaten—, or aurrean, orman exegita dagon zurezko gurutz illun orren antzeko beste baten utzi zizkian euskerazko olerkiak. Baiña, dakikanez, egunean gela ontatik at izaten geran orduerditxo orretan, bateon batek gurutzea trukatu ziguan... Uste degunez, ori egin zuena fede onez ibilliko uan.

Lekaretxe aretatik ertenda, luzaro bazterrik bazter ibilli bearra izan nuanean, sarri samar erri-miñak jo oi ninduan. Lauaxeta zanak il aurrean Ama Birjiña'ri erderaz zuzendutako amalauko maitagarriak menperatu eziñik nenbillen beltzuratik ateratzen laguntzen zidan.

Agur, Lauaxeta, olerkari aundia. ., ta gazte jatorra.
Biotzez, ikusi arte.

Azkoitia'n, 1974'ko ilbeltza

Itziar eta Agirre'tar Martin

URKIAGA'TAR ESTEPAN'EN
BIZI-URRATSAK

Bego emen, gaurkoz, Lauaxeta'ren bizitzari dagokion izki murria. Oraintsu, «Euzkadi» egunerokoa arakatuz konturatu nazanez, bizkaitar idazle leun onek itz-lauz be ugari be ugarri idatzi euskun, eta itz-lauzko osto sakabanatu orreik be jaso ta esku maitekorrez liburu mardul bat eratzea egoki litzakigula otu yat.

Beraz, osasunak laguntzen ba'daust, lar luzatu barik burutu nai neuke lan ori. Ta orduan aukerako eretia izango dogu, olerkari yaukal oni buruz gaur jarten ez doguzan bizitz-zeartasunak be jartea.

1905 Laukinitz'en jaio zan Urkiaga ta Basaratz'tar Estepan —Lauaxeta—, dagonillaren 3'an, Erriko Taberna deritxon etxean.

Beronen gurasoak: Jose Mari Urkiaga ta Urizarandia, Murelaga'ko semea, ta Bizenta Basaraz eta Zorrotza, Laukinitz'ko alabea.

Aitaren aldeko aitita-amamak: Erramon Urkiaga ta Uribarren, aitita, Mendexa'koa semez; eta Frantziska Urizarandia ta Espilla, amama, Murelaga'koa. Amaren aldekoak: Aitita, Erroman Basaraz eta Zorrotza, Zamudio'koa, ta Kristina Eguzkitza ta Eguzkitza, Laukinitz'koa.

Juan Barrenetxea bertako txauburuak bateatu eban, dagonillaren 6'an, Frantzisko ta Erróse Urkiaga, biak Murelaga'koak, aita-amabitxi ziralarik.

1909? Eteban umetxo zala, Laukinitz itxi ta Mungia'ra aldatu zan Urkiaga sendia. Uri azi onetan osotzen ditu len-ikasketak. Argia dator mutikoa. «Mutikoa zala —diño M. Zarate'k—, fraile joan gura izan eban, karmeldarren komentu batera. Baiña Lekeitioko osabeak abade egin bear ebala esan eutson». Orrela, Durango'ko jesuiten Ikastetxean latin eta onen inguruko gaiak ikasten ditu, Pio Montoia'rekin batera.

- 1920 Erretorika ikasten diardu. Zaitegi be emen da, bere lenengo latin-ikastaroan. Aita Atutxa, orduko maixu argia, laztan samurrez dabe gogoratzen garai aretako ikasleak.
- 1921 Loiola'ra doa, uztaillaren erdirantza. Josu'ren Lagundiko izan gura dau; baita asi-barritzako urtea egin be. Lagunak ditu emen: Ibiñagabeitia'tar Andima, elantxobétarra; Zaitegi, arrasatetara; Argarate, urretxuarra; Sarobe, lesakarra; Luis Larrañaga, azkoitia-rra; Martikorena, betelutarra; Goenaga'tar Iñaki, azpeitiarra; Muxika'tar Palgida, urnietarra; Zubiaga, Gaztelumendi, Azpeiti'ko Korta anaiak, eta abar; danok euskaltzale ta idazle ospe aundikoak. Emen ditu baita, eredu bikain, Aita Apalategi, Zugatzaga ta Olabide.
- 1928 Noiz asi zan idazten? Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n eta Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n argitaratu zitun bere lenengo lanak. Bigarren abizenez izenpetu ebazan «J. B. Deya»-n (1928-29) argitaratu euskuzan lanak. Otsailleko zenbakian dator bere poesi bat, Maragall'ena, «Basaraz'ek euskeratuta». Jesus'en Lagundia itxi ta Bilbao'ra dator, «Euzkadi»-n lan egitera. Itxia eban Kirikiño'k 1913'tik zuzendu eban euskal orria Orixe egoan aren lekuan; onegaz batera jardun eban Lauaxeta'k urte bi ta erdian.
- 1930 Lenengo Olerti eguna Errenderi'n, «Euskaltzaleak» eratuta. Lauaxeta'ren *Maitale kutuna* deritxon olerkiak jaso eban len-saria: «zillarrezko aritz abartxo». J. Aitzol'ek onela: «Urkiaga jauna, izenordez Lauaxeta, geienak Errenderi'ko olerti-egunaren bidez ezagutu dute. Ez guk ordea. An eta emen argitaratutako bere neurtitz bigun eta leunak, irakurtzen bai giñuzen, orain dala bi edo iru urte ezkeroztik». Batzaldi artan agertu ziran olerkariak: Lizardi, Orixe, Tapia-perurena, Jautarkol, Jaka-Kortajarena, Loidi, Zugasti, Enbeita ta besteak.

uean oereziKi, vjierKi DatzuK oe, *LZRvrvuQKy* aurtxoentzat alegiak, azaltzen ditu.

Urte ontakoa dogu «Bide Barrijak» olerki liburua be. 143 orrialdekoa. Maitasuna dau kantagai. «Maitasunak —diño— sortu-azoten dauz neurtitzik ederrenak, eta maitasun-bidetan, azkena barik, lenengua naz». Eta «J. B. Deya»-k: «Olerkari askok maitetasun gaiak maitekeri loietara eraman oi dituzte... Urkiaga'tar E.'k txit garbi ta gora begira erabilli du» (1931, 175 orr.).

Orixe'k goratu eban liburu au, lotazillaren 5'an eta 8'an, lenengo orrialdean; baita Lizardi'k be, 1931-XII-3 o'an, 1-3 orrialdeetan.

¹⁰33 Egunkalari ez-ezik, izlari trebe be ba-da Lauaxeta: erriz erri dabil Jel-azia ereiten, aspertu barik. Ondorenez erriak, txera bizitan, omenaldi biozkorra dagitso Gatika'n, otsaillaren 12'an, igandez.

Eragille bezela, ainbat laguntzaille ditu inguruan. Egunero yatorkoz lanak errietatik; idazleak bizi ta gozo bizkortzen dauz, gero ta zintzoago zeregin ortan jardun dagien.

1934 Urrillaren bostetik aurrera ez eban «Euzkadi»-k euskerazko ezertxo be agertu, egun areitako Erkalaren naste zalapartak zirala-ta. Urrengo urteko epaillaren 19'rarte luzatu zan ixillaldi au, 164 egunekoa nunbait Bizkaia'n bakarrik ezarri zan arako zigorra, itxura danez.

1935 Barzelona aldetik dabil; baiña, bidenabar, «Arrats beran», bere bigarren olerki idaztia ager-azten dau. Bagilleán amaitua da, Bilbao'ko Verdes etxean. «Sagi»-

ren ederkaiaik ditu. 102 orrialde. Azal barruan, ingi meetan, erderazko itzulpena banaz. 40 olerki dira, leun apaiñiak. Liburu au zala-ta, Garzia Lorka olerkari ospetsuak ikustaldi bat egin ei eutson Bilbao'n.

1936 Anai arteko gerratean guda-ordezkarri izan zan. Kanpanzar'en, Intxorta'n eta Basalگو'n sarri bostekoa emon geuntson alkarri. Alan eta guzti be, ez eutson idazteari itxi.

'937 Jorraillaren 26'garrena. Gernika sutan. Prantses egunkalari batzukaz batera, berton jausi zan atxilo. Gazteiz'era eroan eben; eta, azkenez, karmeldarren komentuan bi illabete egin ondoren, bagillaren 25'an, goizeko 5,30'eran, su-izkilotua izan zan. An egoala idatziak ditu sei-zazpi poesi sentikor. Eta azken-naia

1973 Igaz> Olerti-egunez, omenaldi eder bat egin yakon emen, Larrea'n, Laukinitz'ko olerkari bikaiñari. Orduan, arrastiko batzar-aldian, irakurritako lana dozu, ain zuzen be, jarraian daukazun Aita Arostegi'ren Lauaxetari buruzkoa: sakon eta zentzunez egiña. Orduantxe artu zan, baita, aren olerki lanak liburu batean argitaratzeko erabagia. Itz emona, zor ei da.

Ortik, ba, emen daukazuz, oler-zale orrek, Lauaxeta'ren poesi-lan osoak lez. «Lez» diñot, saiatu nazan arren, geiago be oindiño izango diralako. Aldizkari askotan esku artu eban, eta ba leiteke nire azter-miñetik batzuen batzuk iges egin izatea, sardoi labankor antzera, bear bada.

Larrea, 1974-9-8'an

Aita Onaindia

LAUAXETA'REN

POESI-GUNETARANTZ

Lauaxeta'k, ain gazte ill ebenez, ez dausku olerki askorik itxi. Baña ezasko onetan be bere poesi soillaren muiñak billa ta idoro nai geunkez. Izan be, beste olerkari guztietan ger-tatzen dan lez, arengan be bearbada geiagoo ta gitxiagoo aurkitu leikez. Jakiña, onek ez dau esan nai poesi-mailla lortzen ez dauana, balioge edo itsusi danik. Edertasunak maillak daukaz, edo era askotako edertasunak dagoz. Baña nik, emen, poesi-izenagaz, estu arturik, goimaillako edermi-ña aditu nai dot. Zer dan, norberagan oarrikasi dauanak (zerbait eta urrundik), jakin leike bakarrik. Baña uste dot, idazki onen barruan be, Lauaxeta'ren olertira urbilduaz, zertxu bat adierazi ta susmatu leikela.

Olerkaria, benetako olerkaria, gun edo erdi-erdi baten billa dabil olerki baktxean, biraka, urduri ta iñoz ase eziñik, Orregaitik, olerkian argitara datorkion ederra (unetxu bat ba-karrik), pozor goien bat izan arren (edo au susmatzea), eder-min geratzen da beti.

.Lauaxeta ren poesi-gunetara urreratzeKo, leenengo, onaKo ganetik baño ez bada be, bere poesi-lurraldeak ikustatu ta ezagutu bear doguz. Gai oneri buruz, au zan bere eritxia: «Maitasunak sortu-azoten dauz neurritzik ederrenak, eta maitasun-bidetan azkena-barik, lenengua naz. Maitasuna, Aberrija ta Uskurtza ixan dira gairik ugarijenak olerkariantzat, neuretzako be bardin» (*Bide-barridak*, 95 orr.).

i. Benetan, Lauaxeta'ren poesi-lurralde bat maitasun-gaian aurkitzen da. Antxíñekoekin, maitasuna «egadun aut itsu» zauritzalle lez iruditzen dau:

«Maitagar dua eiztari:
baña neskatzak mekiro
eragin dautso dardari» (*Begijen omenez*, 141 orr.).

Zauri onek poztasunez biztuten dau izate guztia, eta bere samurtasunez negarrari eragin leikio:

«Bijotz samurra bildu zeustazun
maitasunezko leyea».

«Orain maitale garialako,
samiñez negar dagixu?»

(*Mosuba*, 66 orr.).

Baña, antza, maitasuna susmatu bakarrik egin dau, eta billa dabil; orregaitik etorkizun eta itxaropenean sentitzen dau:

«Iñoiz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurrok laztanduten dabe»

(*Maitale kutuna*, 59 orr.).

Amesetan era artzen dauan maitasuna, gero itxarritan
suntsitu egiten yako:

«Gau argitsuan barriz iruiten dodana
ortzargian eskuak urratzen dau dana»
(*Loretan*, 160 orr.).

Maitasun garbia eskatzen dau barru-barrutik bere bio-
tzak :

«Ixañ zaite zitoriz gotzon baten gaya»
(*Maitale kutuna*, 61 orr.).

Beti be bere gogoak gauza guztietan garbitasuna dau
maite:

«Urrun giz-otsetatik, menditara nua,
leyak ba loitzen dabe garbi dan gogua»
(*Mendijetara*, 77 orr.).

Orregaitik goizaldeko edurrak mugabako beste mundu bat
sortu-azoten dautso biotzetik goraka:

«Oi! edur zuri! edur zuri! edur zuri!»
(*Goxaldeko edurra*, 88 orr.).

«Berak legez nok leukon garbirik gogua!»
«Umiak eta illak zeure izpi ixara
eztabe loitzen. Zatorz garbijen kolkora!»
(*Goxaldeko edurra*, 87-88 orr.).

Ez da aingerukeri erreza, gizazko garbitasun gartsua baño:

«—Neure begijok dira gaba baxen baltzak:
Maitasun-zalez dakart bijotzeko suba.
—Lora baltzak edurtzan bildurgarri yataz;
begi orrein ditzira eriotz-mosuba».
«Maite eziña, betiko neugaz lotu zaite!»
(*Bide-ziar abesten I*, 163 orr.).

«Utzak íxoztu daroz maite-itzak abuan».
«Nok digarke erantzunoi gaberdi baltzean?»
(*Erantzuna*, 51 orr.).

Eta maitasun zoritxarrak zemaitua, berea: benetako erantzuna ezin lortu, ezin lortu betiko leialtasuna (*Bide-barri-jak*, 51, 54, 55, 57 orr.). Berak biotzeko ta gogoko ederra gura, ez bular ganeko lilia bakarrik. Erantzuna:

«Goguan dagon maitasun lora au baña
ezin opari
zeure espanaren
mosu leunari»
(*Gura neukena*, 165 orr.).

Onela «maitasun mingotsak» (*Bide-barri-jak*, 55 orr.) ezin-esanezko kezka ta samiña dakarz berakin:

«Ixildu egik samin Iatzezko maitasun-otsa».
«Eure samiñaz batera dabesk neure samiña.
Bijotz orotan bardiñak dozak maitasun nayak»
(*Gabeko irrintzia*, 58 orr.).

Batez be, maitasuna amaituz, il egin leitekela ondo daki:

«Geure maitasun azurrotz ori
biotzean ba darozu...?»
(*Ituna*, 62; ikus 66, 74 orr.).

Maitasun leialeza jostorraz baten antzera sartzen barreneraño (*Bide-barri-jak*, 82 orr.). Eta, azkenez, maitea bera be il eta betiko banandu leiteke:

«Juale itunak danba dagije
eleiz torreko ganian»
(*Señai abestu*, 72; ikus 70, 78 orr.).

Arrats-beran liburuan, bardin; maitasuna atsegintsu, arin ta argiz agiri da (81, 104, 105, 141); baña muga guztietan zemaieri eskeñita dago: ezkontza egunean maiteak uts, «iñor ezta agiri!». (*Ezkontza goxa*, 103 orr. Olerki onek Erdi Aroko gure bertso batzuen daunbada gogorazten dau bere ikarailunean:

«Zaldi-otsak axian:
—urkijak dardari—.
Kanpai-otsak torrian,
—zuriz jantzi zadi!».
«Iñor dator larri».
«Baltzez jantzi zadi!»).

Irribar ezazol batek aizto-dirdirak, «zenbat nekeots, zenbat oyu!» sortu-azoten ditu (14o orr.). Bost gogo-sastakaigaz artzaia il zanean,

«orok negar egin eutsen,
orok, neska batek ezik».
(*Artzain baten erijotzean*, 135 orr.).

2. Beste poesi-lurralde bat gaztetasuna edo gaztearoda. Eta esan lei berau dala lurralderik zabalena, bearbada beste guztien erdi-erdia, bere poesiaren iturburu. Maitetasuna ta bizitza guztia gaztetasuna-zear ikusten ditu: «Gaste ule baltz gara», bere deadarra (*Bide-barriak*, 48 orr.). Itxaropena gaztaroari dagokion zabalgurena da. Goiak eragiten dautsoe bere bizindarrari; argia da bere arnasa:

«Lagun kutunok, gaztiak gara!
Burubak jaso zeruko argiz txauturik.
Itxaropena abestu daigun
maitasun-euna mendi goyetan loturik»
(*Udabarriko abestija*, 161 orr.).

«Bat eder zala
gaste garbaia!
Errege bat zan pagodi-pian !»
(*Eiztari aundia*, 102 orr.).

«Ederren
ogei urte lerden
gorputz baltziskan diranian;
bizitzan
zoruntsu gadixan
biar dogunaren gauzeza !»
(*Bertso zarrak*, 104 orr.).

Xee, baña bete-beterik, dager itz gitxi oneetan:

«Gastaro, eder dan lorea,
eugaz yabilk mutil-kantea
ta neskatxen dantzaketea»
(*Mayatzeko Gurutza*, 129 orr.).

Aberria ta azkatasuna be gaztetasunaren inguru-barruan
sartzen ditu:

«Gastedi orren didarra
bai dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija».

«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari».

Borondate eder eta ezin-obeia, aurrean bat legez egiztatu
bearra izan eban:

«Amar gasteren lerdena
bixitza barik lurrean!»

(*Mendigoxaliarena*, 119 orr.; eta ikus *Palankari bati*,
azken lerroak, 168 orr., eta *Biotz donea* ta *Agur, Ama*, 175
ta 178 orr.).

«Izkillu gorriz zenbat gaste
bildur-bako menditar lerdin».

(Baña ain suar eta abermintsu, aek be azken baten austu
ta ondatuak:

«Ordutik ona —zenbat laño—
Naparruan ezta aberririk»)
(*Amayur gaztelu baltza*, 142, 143 orr.).

Gaztedertasun au galbidez zemaitua illun lensomatzen dau.
Narkis olerkian:

«Ur garbijan eure begijok,
ta lorak eure niñi-barnan!
Narkis, jausi barik errekan,
soñoi argijegia baitok!»
(/Irraís-beran, 112 orr.).

Eriotzeak ikuturiko sustraia daroa:

«Oraindik eztot il gura, bixitzau yatan leguna!»
«Atsegiñen mai alaira didar dagiste guztiak».
«Esku arteko usuilla edariz daukot beterik,
baña lorazko espanok eztodaz busti oraindik...».

Olan iñarduan gazte gexoak, alperrik (*Gaste gexua*,
56-7 orr.).

Eiztari aundia olerkian:

«An zetzan illik
goxex jantzirik
atera zana ! Mendiko ixilla !»
(*Arrats-beran*, 102 orr.).

«Bana erijok am maite dauz loratzak!»
(*Arrats-beran*, 113; ikus *Bide-barriak*, 70 eta
Arrats-beran, 134).

Orregaitik, une bateko itxaropeneza dagerre bakarrik, ez bere barren-egia, itzok:

«Natzan lotan zabal neurgian
erijotz-uin otzak naruan!»
(*Ondartza*, 123 orr.).

Ezilkortasuna dalako ixillean etengabe zauritzen dauan lei ta lorra:

«Goi-atiak jo dodaz; dana dagir ixil.
Itxas orren zabalán ontzirik eztager.
Ezilkortasun-billa lor ta atsekabez
adimenan esanak idoro nai dabez...
Gauz oneitan baña soil gagoz bijotzari»
(*Ezilkortasuna*, 90 orr.).

«Ta itxaro ixarrak argi dizdiz begi
biotzan barnian»
(*Artxanda ganian*, 87 orr.; eta ikus «arnas illeziña»,
«gastaro illeziña»: *Palankari bati*, 166-7 orr.).

3. Igarokortasunean aurkitzen dogu Lauaxeta'ren irugarren poesi-lurraldeá. Emendik artzen dábe beste gaiak euren sakontasuna, emen erdi-edegitzen dá euren poesi-mugagetasuna. Sentipen ain bizi ta barrenkorra Lauaxeta'gan, irakurri doguzan bertsoak be nabaritzen dabén legez. Ona emen oin-diño:

«Maite nebazan gauzak juan dira igesi»
(*Jaungoikotia*, 69 orr.).

Udabarrian bertan be, «biotz alayen oyubak» eta «izadijaren maitasunezko bularrak» ez dautsoe aaztu-azoten arantza baten miña:

«Gaur gara, bijar ezerez barriz».
«Bein gaztarua il ezketiño
nekosta baltza ixango yaku laguna»
(*Udabarriko abestija*, 161-2 orr.).

Bizitzaren amai-ziurtasunak gaztearo erdian bertan olan abes-arazten dautso:

«Agur betiko,
ixar ta lorak,
gaztarua il da samiñez»
(*Bide-ziar abesten*, II, 164 orr.).

«Zelai-orlegiko gentz-ziar emaro
odeixka zuriian itzala digaro.
Olan eltzen yaku erijotz antzija;
gozartu dagigun larrosen eztija».
«Liparra gozartu, ilkorrak ba gara»
(*Liparra*, 71 orr.).

Baña au, barriz be, unetxu bat baño ez da, itxaropenbako leenengo zirkiña. Barruan ondo tinko daroa kezka nagusia:

«Urriak baduazi, urratsik eztager,
non galtzen dira-edo? Albaneukaz uler!»
(*Ezilkortasuna*, 89 orr.).

Emen idegitzen yako, iñusturi baten, giza-zadorra ta burruka:

«Sona jauskorra eta gogua goitzale»
(*Ezilkortasuna*, 70 orr.).

«Erain zidor orotan ezilkortasuna» (bertan, 71 orr.), au da, ezilkortasun-eraz bizi, on ta zillegi dana egin.

Ikus-sentipen onek biurtzen dau eder *Kanta ariña* olerkia. Ezpanak olan abesten:

«Gastaro au galtzekuan
gal bedi
edontzi baten kolkuan!».

Baña arintasun itun ta sakona, barruak iñoz aaztuten ez daualako:

«Ba-yuat
soin gaste onen lorea !»
(*Arrats-beran*, no orr.).

Osoatasunez azaltzen da bere azken izaera dei apal ta samur oneetan:

«Nere egun-argia berantz azkar doa,
itzalak joten dau atadi ondoa».
«Oi Bidazti Deuna, sar zaite neurera».
«Argi biur bekit erijotz itzala».
(*Gei zaite*, 174 orr.; ikus ¡ ¡ *Ven, Señor!* ! eta
Plegaria postrera, 172 ta 174 orr.).

Iru alde oneetan batez be susmatu eban bere poesia Lauaxeta'k. Orain, ez litzakez iduritu bear alkarren ondoan, bannanduta legez. Ikus-sentipen baten iru neurriak dirala esan lei, edo, obeto, margo bakotxeko iru leiar garden, alkarren gainean ipiñiak. Gitxi gora-bera danak dagoz danetan, eta bakotxean bata edo besteak indartzen dau beste bien ganetik bere margo zeargia.

Ikuspegiak, bakar arturik, ez dau garrantzi askorik erakusten. Mendi, baso, ibai ta zugatzak, itxaso, odei, zeru ta abar, naiko eurrez darabilz, baña geienetan, ia beti, giza-inguruan:

«Geure neskatxu gorriska,
argi utsa don goiz betea».
(*Neskatxu gorriska bati*, 100 orr.).

ezetariko giza-gai barik; orregaitik apur bat azaleko aurkitzen dot: norbere etxea ez da ikuspegi bat. *Arrats-beran*, 105 orr.).

Sarritan ikuspen gaiak ibilkuntzan ikusten ditu:

«Lili-arteko ixilla
nastau egixube, txorijok!»
(*Neskatxu gorriska bati*, loo orr.).

«Axia dabil loretan»
(*Zelayetakua*, 101 orr.).

«Oyanak deitu euzan odehyak»
(*Eiztari aundia*, 102 orr.).

«Urkijak dardari»
(*Ezkontza-goxa*, 103 orr.).

«Eta axia aulez
eziñik jarraiki»
(*Kiñuba*, 114 orr.).

Bide-barrijak liburutik artu daigun adibide bat;

«Orri-ikararik ez lertzun ta urkijetan,
garrak dirdir begi suteko tresnetan.
Axe otzoi, ua basora,
ipuin zarrak betorz sutera!»,
«Gorbeyan murruka axe eta edurra:
Oi yakun samurra, suteko murmurra!
Artega su-motots bixijak,
yantzan mamu gorritz yantzijak»
(*Neguko gaba*, 47-8 orr.).

Zugatzetako edur-bakea bera be biziz beterik dagir, aize otzoi ta murrukalariaren oroiaz alkartu ezkeru.

Lauaxeta'ren olerkia oso jaungoikozko da, baña au batez be, poesi aldetik, zearka. Aurrez-aurre erlijiozko diran olerkiak, alde batetik oldozkuntsu izan arren, ez neuke esango, gaur daukaguzanetatik, bere poesi-lurralde diranik. Unetxu batzuek dizdiratzen dabe olan be:

«Ulertu neban ondo umien begijak
eskar orrek maitekor egiten dauzala»
(*Jaunagan atsedena*, 80 orr.).

Eta *Miren'i otoyá'n*:

«Orok ezesten daben
bijotzan malkua
altzo orretan dimintzut»
(*Bide-barrijak*, 83 orr.),

Baliteke danen artean ederrena, gai onetan, *Ziñiste-bakua-rena* olerkia:

«Oi latxin zabal orren bakia,
neure otoi au galdu bedi eugan».
«Ziñismen neure begija zanian
goiz oneik euken argi biguna».
«Barne ontan nok senti zeinkian
samin ta poza azan begija!»
(*Arrats-beran*, 130 orr.; ikus *Eresi bakuna*, 154 orr.).

Baña neurtitz oneen ederra ain zuzen be «zearkako» izaerara makurtzen da. Jaungoikoa baño, bere kezka edo billaketa edo baitaezko dirdaia da euren poesi-muiña. (Olan ta guzti be, eneuke gura gai ontan azken eritxirik emon).

«Sozial» eta aurkako olerki legez, bat aipatu geinke (baña aberri-olerkiak be, euren aldetik, olakoak dira), *Langille eraildu bati*:

«Mendiz bera lau txapel okerrez
aurpegi balzdun miazarija.

Noruntz aroe esku-lotuta
burdin margodun gorputz gogorroi?»
(*Arrats-beran*, 133 orr.).

Au be egiz bere poesi-lurralde bat ete dan, zalantzan ipiñi leikena. Mamitsu ta, jaungoikotiak bezela, ondo egiña. Baña bearbada geien be ori: egiña, ez etorria.

Bideak

Bide-barriak liburuan leenengo olerkiak sentipen-gaiak eta erak darabillez. Bere eritxia liburuaren azken «Uarrean» au zan: «Gastaroko neurtitzok eztira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan eztalako egiten. Geruago Aberrijan yagokozan neurtitzak egingo dodaz, Euzkadi Amaren maitasunak jo-naulako (95 orr.). Eritxi oneri arauz, liburuaren amairantza adi-gaietara jo eban, poesiren sakontasun-bearrak erakarrita. Ango azken olerkia, *Itxasora'*, gero etorri bearko eben aberri-olerkien lenenki bat zan: euskeldunei dedar kementsu bat aurrera, ausardira, «ez indarrez, go-gayakaz baño»:

«Zerubak argi dagoz, begoz pozez begiak».
«Itxaruak berua euzkotarren ontzija
goguak nausi diran argitasun goiraño»
(*Bide-barriak*, 94).

Bigarren liburuan gotuts-gaiak alde batera itxi ebazan eta, ostera, arin-gai batzuk artean sartu. Aberri-gaiari be ekin eutson, baña ez gotuts eraz: *Espetxetuarena* (107 orr.), *Mendigoxaliarena* (118 orr.), *Iru zaldunak* (131 orr.), *Amayur gaztelu baltza* (142). Olan dala, bigarren liburuak sentipen giroa jo dau barriro («sentipen» diñot, itz bat aukeratu bearrean nagolako; ezelan be ez dau esan nai «sentimentala», ta emen *gotuts* ez dana adierazi nai dau batez be). Leenen-

diña erakusten dabe: laburrak, geienetan esanaldia neurtitz bitan esiten dabenak. *Bide-barrijak* liburuko leenengo olerkiak, euren bakuntasunean, ez darie bearbada goi-arnas gitxiago, oindiño garbitu ta estutu bearra erakutsi arren. *Arrats-beran* bilduman, ostera, olerki batzuk poesitik naiko aldenduak aurkitzen dodaz; eta neurtitza beti labor ta bardin-antzekoa apur bat ezberetzko ta aspergarri be iruditzen yat. Bestalde, estutasunagaitik, apaiñagoak; poesiak beti be laborpena, sintetikotasuna obeto eskatzen daulako. Ez dau esan nai neurtitz gitxiago euki bear dauanik, edo gogai ertzestu ta ertzgarbiak. Bestera: poesia berez (izatearen neurri barri bat erdikustea edo biotz-susmatzea danez) ertzillunera ta esigera zuzentzen da. Baña au zuzen egin bear dau.

Lauaxeta'k sinbolo-poesira jotzen dau. Bere eles ta edesti soillak, beste zeozer esan nai dabe, eta jokera au, batzuetan batez be, argiegi ta lar naiezkoa be ba-dirudi. Aitzol'ek, *Bide-barrijak* liburuaren *Itzaurrean*, us-te dau emengo azken olerkiak «olerti utsa» giroari eusten dautsoela (*Bide-barrijak*, 44 orr.). Baña, bearbada zeatzago, olerki oneek «gotuts-olertiari» dagokioz, ez ain beste «poesi utsari». Au beste au sinbolo aldetik dabil eta onen azite, zabaltze ta gorengo garbitze bat da. «Poesi utsa» giroak bere izate ta mamitzat poesia bakarrik, ez beste edozelango gairik ez eban nai. Olan, poesi beraren ikertze bat zan, ez idazkera bat bakarrik. Baña non dagoan poesi uts ori, non susmatzen edo erdiagertzen dan, au da eztabaitu leikena. «Olerti uts» giroak sinbolo aldean ipinten eban.

Elbide artean birresana darabil sarri *Arrats-beran* bilduman. Adibidez. *Bunzaña* olerkian lau bider berripinten dau aapaldi bat beste iru aapaldi artean (106 orr.). *Artzañena* olerkian, bost bider neurtiz bardiñak (115 orr.). *Itxas-ondokoena* olerkian, lau bider (123 orr.). Eta, gero, bardin-antzeko aapaldien egitura (*Arrats-beran*, 100, 101, 103, 125, 126, 132). Olerkia indargetu ta bere ibilkerea aztundu egiten dauan elbide urria.

Modernista giroaren txipristiñak be aztarnatu leikez agian. Ez dabe utsik egiten liliak eta larrosak. Ugari dabil urrea ta zidarra. Eta or daukaguz, adibidez, bearbada kutsu berezia darakusten olerki bi: *Sèvres'ko murkua*: Dukeme, urre-sua, espan gorri, abate maitale bat, eta «kisien pinpiña» (*Arrats-beran*, 108 orr.). *Kiñuba* olerkiak «ásele oztiña» izan gura leuke, eta ara bertan: bakalgaia, bakaltseña, loratzak, zaldiak eta ametsak (baña emen erioaren gogorak zimeltzen ditu loratzok eta modernista-puzgoa makaltzen) (*Arrats-beran*, 113 orr.).

Modernismoaren azakeriari nagokio emen. Baña modernismoak, edo obeto onen jatorri-muin dan parnasotar giroak irakatsi eutsozan Lauaxeta'ri bere era lirain ta apaiñak. Ez da orregaitik parnasotar utsa: bere elestiak beste esanai, goibero ta sentimentu batek aldetik aldera zeartzen ditu. (Parnasotar eta beste giroak, batez be frantzesak, gure idaztean izan eben eragiñari buruz, ikus Aitzol'en jakingarriak: *Eusko Olerkiak*, Donostia, 1930, 12-18 orr.).

Modernista-kutsua askoz nabariago dager bere gaztele-razko itzulpenetan. Oneen aurrean olan idatzi eban: «La traducción de estas poesías no puede ni debe ser guión para examinar el valor de Arrats-beran. El secreto de la poesía se oculta en la gracia de la forma, en la pulcritud dei buen decir». Bestalde, poesiari ta euskereari buruz au zan bere eritxia: «Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpadago azal ederrik. Euzkeraz batez be!». Eta oindiño: «Baña ele lander baten seme jayo nintzan ezkeru bertso nimiño oneik be, argitara datorz» (*Arrats-beran, Aurre-itza*, 99 orr.).

Ele landerra, euskerea. Orregaitik jantzi ta pitxiz aberastu egin bear izan dauz bere olerkiak erderazko itzulpenetan, ta olan, bitartean, poesia ondatu (beraz egia diño: erderazko itzulpenetan ez da billatu bear Lauaxeta'ren poesia). Poesiak bear dauana «landertasuna» da izan be, au da, garbitasuna ta izatearen biotzean zuzen jotea. Emen dago bere era ta «grazi» guztia.

Bana ba-ekian poesia ez dala azaleko zeregina, bere *Aurre-itza* olan asi ebanak: «Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Besuak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorrt eta barneko zugatz onetatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu» (*Arrats-beran*, 99). Itz oneek biderakusten dabe poesiaren alderantz: leenengo, «txoririk» etortea; bigarren, ondoren geratzen dan dardarea. Leenengo, puntu baten, erdi-erdiko ikus-sentipen erage ta sendar bat; gero, dardara gozo, mintsu ta billatzalle baten zabaltzea: dardar-zabaltze onetan dator olerkia bere osora. (Erdi-erdiko ikus-sentipen orretan ez da «txoririk» «ikusten»; «dardar» beraren leenengo urradura baño ez da).

Aipatu daiguzan, adibidez, olerki batzuen gunak. *Neguko gaba* olerkian: «Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak». Lertzun ta urkiak bakean, su-garrak dirdir. «Axe otzoi, ua basora».

Ta:

«Or, negu latzezko gau-ordu luzeetan
aintzezko itz-sakonak, idazti zarretan,
daurkiz gogo ameslarijak.
Asaben eredu garbijak...»

Dardar sakona arindu egiten da jarraian:

«Zadorrik, arren, ez egizu nai idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde-ona billau gauzetan...»

Baña arintasun onek au bakarrik gogorazi nai dau:

«Itxarorik ez urrun jaurti»
[*Bide-barrijak*, 47-8 orr.).

Neguak eta edurtzeak biotza sakonera biltzen dabe, an gizaldietako asabekin bategin eta etorkizuna poz ixillean zainduazo,

naren kezka ta zadorra:

«Itz leunez poztuteko neure gotilluna
begijetan neuskio billau erantzuna».
«Ixil berak didatzi edurtze ganian;
goibelez illargia odeyen artian...
Nok digarke erantzunoi gaberdi baltzean?»
(*Bide-barriak*, 51 orr.).

Maitearen begiak, erantzun barik edo eziñik, gaberdian
galtzen.

Gaste gexo olerkian:

«Mendi-ertzeko gastia arratsak dakar geldiro:
udazken ori barnera sartuten yako leunkiro».
«Samiñez nator zeugana, maite zaitudan basua».

Leenengo neurtitz biek, euren goibeltasun mugagean, ira-
garten dabe olerkiaren poesi-guna. Eta neurtitzen ibilkera
naroak, zelan birremoten dauan gazte gexo beraren ibilkera
etenkorra! Udazkeneko bere basora dator: agur egitera?
Baso-sakonetan bizi-arnasa ezkutuz billatzera? Orbel-jaus-
teak, abi utsak, zarba zimelak, eriotz-aroa dirautsoe:

«Oraindik eztot il-gura, bixitzau yatan leguna!»
«Atsegiñen mai alaira didar dagiste gustijak».

Itxaropeneza naro ta ixillean ainbeste erregu egin ondo-
ren,

«Baso aldetik betiko juan zan mutil gexua
ta itxaro illaren antzean itun lotu zan basua».

Oneek beste neurtitz biok osotzen dabe barreneraño oler-
kiaren guna. Betiko joate onetan eta basoaren bakartadean,
erdi zabalik geratzen da bizitzaren zador ta goibeltasun al-
derdia. Udabarria etorri zan barriz:

(*Bide-barriak*, 56-7 orr.).

Baso sakon-indartsua ta udabarri berbizia, ain itun gazte barik.

Gogartu daigun beste adibide bat *Eiztari aundia* olerkian:

«Bai eder urten zala basora
bitxidor berdez!
Soñanzki ordez
goiz utsa jaurti eban lepora».
«Norena ixan zan ayots sotilla?
An zetzan illik
goxez jantzirik
atera zana ! Mendiko ixilla!»

{*Arrats-beran*, 102 orr.).

Olerki onen erdi-erdiko ikuspena emen dago: bai eder, goizez jantzirik! Baña an illik, goizez jantzirik urten zana! (Mendiko ixilla!). Ez da elesti bat, gaztetasunaren (eta bizi-tzaren) ikus-sentipen bat baño. Gaztearoa ta goizea bat-batean dakusaz. Goize-jantzia ez da ganekoa bakarrik, bere-berea baño. Eta bera izan arren «goiz utsa» «lepora» ;'aur-titzen dauana, ez dau esan nai goizea bere aragi ta arnasa ez danik; berak goiz ori (gaztetasuna, betikotasun-egarri ederra) bere izate osoagaz eskuetan artzen dauala baño.

Oartu daigun bere poesiaren (eta ez bakarrik izadi-ikus-penaren) ibilkuntza: itxasora, mendira, basora, aurrera...

«Abestiz datorren ontzijan
nor aldendu daiteken urrin». (*Izlapurra*, 109 orr.).

Baña nora benetan eta azkenez? Beti arantz. Ez ete au giza-poesiaren guna bera? Dei bat, baña poetak ez daki non-dik nora: zuzendu nagizu, argi gozo-illuna.

Orregaitik, azken ondarrean, alperriko yako nozik bein bere biotz austuari olako aolku bat murmurikatzea:

«Bidazti ez beti. Ez ibilli aron.
Biotz aul orrek, ez gurenai jaramon.
Zidor ori nora? Eztauko azkenik...».

Beste adibide bat:

«Ba-juat
soin gazte onen lorea!».

(Kanta ariña, no orr.).

Au be ez da elesti bat. Eta ezin leike beste ezegaz idetu. «Soin gazte» esanda, ez da emoten nai dana; «lora» esanda, be ez. Soin gazte onen lorea: auxe da. Baña, gañera, metafora edo bardintze bat dala azaltzen ba-dogu, ez dogu egi dana agertu: esanaldi au ez da *azala*, metafora azpian ez dago beste ezer. Au da: beste itz berezkoagoakaz ezin lei emon; ez dau esan nai poetak ikus-sentitzen dauana garbi ta osoan itzetan datorrenik. Olerkari berantza! be billatze bat da edermiña (orregaitik esan dausku Lauaxeta'k: «Neurez betiko ixilduko nintzan»). Zenbat areago itzen bidez ona eldu bear dabentzat.

Poesiak «sinboloagaz» dauka zer-ikusi. Baña au olan adi-tuta: poetak izate edo gertakizun baten zer bat ikus-sentitzen dau, eta itzetan berantzat eta besteentzat adierazi nai. Izate edo gertakizun orrek, aurrez-aurre agertzen dan eraz, beste zer batera bialtzen dau. Orregaitik diñot «sinbolo» aldetik dagoala, poesia gardentasun baten dagoalako Au adierazteko poetak ez dau metaforarik nai ta nai ez bear. Poesia-ren benetako sinbolismoa berez-berez gertatzen da; leenengo ta bein itz berezizko batzuk (izate ta gertakizun batzuk) alkarren ondora bilduta.

Lauaxeta'k poesiaren dardar au ezagutu ebala nabaritzen dau. Poesia pitxi bakan bat da, eta munduan idatzi ta idazten dan geienak urrundik baño ez dauka aren itxurarik. Ez da orregaitik guztiz alperrikoa, beti be benetako poesiaren susmo edo bidatza da-ta. Lauaxeta bidean joian: poesiaren dirdir batzuk zuzentzen eutsoen biotza bere zadorrera.

«Aintzak zabal ditu esku argiruak».

«Erri zintzo onek zaindu dagiala

il gintzanen atsa, il gintzanen aala».

(Biotz donea, 175 orr.).

Poetaren biotz-agoan erriaren edo gizaki beraren ezkutu mugagea une baten dardaraka indartzen da. Ta olan poeta gizadian ikur edo aztarna bat da. Batez be bere eder-abotsa odol ixillean amaitzen danean.

Iruña, azilla 1973

Luis Arostegi

Bide Barriak

(1 9 3 1)

BASARATZ'TAR BINGENE
URKIAGA'TAR JOSEBA MIRENA

*Guraso maitiai, bijotzez opalduten
dautset olerki-lxorta au.*

ITZAURREA

Eusko-olerti Irákuskundea.

Atzerrian, nunbait, olerti-antzua nabaitzen da. Olerti iturria
;gortu edo olerkariak aitu diralako. Arrotz elertietan poesi ze-
aiak zeken eta elkor dakuskigu. Ez soroak larratz daudelako,
íoski, gun-muña zekendu zaiotelako baizik.

Ez dira gaurkoak, Nuñez de Arce'n alaka ukorrak:

«La Virgen poesía
Huyendo de los hombres,
Se pierde en las profundas
Tinieblas de la noche.
; Todo se anubla, todo
Choca, todo está herido!
Pide estragos el arte
Su inspiración al vicio».

iraunkor iritxiko dutenik, alegia.

Euskera, oraingoan, iñoiz baño oparotsuago, ordea. Izkerak berriak auldu diranean, eusko ele zarra gaztaro emankorrera datorkigu. Altzo sakonetik irasiaz olerkari emaitzak emaro eskaintzen dizkigu.

Aizken emaitz gorena.

Esku-tartean daukazu, irakurle.

Adi-biotzez, eusko olerkariak emaitza daskaintzu. Poesi-neurtitzak, goyenetan, alako zerutar kutsuak ikutuak diralako goitarak izaten dira. Begi aurrean dituzunak goyenetakoak bezela iriziko dituzu, laister.

Olerki egilea gaztea degu, oso. Ogeitalau urteak, doi-doi, beteak ditu oraindik Urkiaga'tar Estepan jaunak. Iñoiz ikusi-gabea gaurdaño! Gaztaro asieran, besteak zartzaroan eskeintzen digutena, jolas-eran «Lauaxeta'k» dopalkigu. Neurtitzok olerkari gaztearen gogo osoa daramate. Sare-mea izaki poesia bere ari goitar artean gogapen, irudi ta naipenak ez atzitzeko.

Olerkaria nor dan ikasi nai zenuke? Bere amets garden zintzoei so-egiezu.

Tolesgeko olerkaria.

Urkiaga'ren neurtitzak altzotik zintzotasun lurrinkaia zabal-tzen dute. Aldakorra da, noski, gogo; igikorra, berez, naimena Olerkariaren lipar illunak, eta izatez adi-gaitzak diran biotz zadorrak igartzea neurtitz gardenen bidez jadetsi genezake, nai izanik.

Olerkiok, «Lauaxeta»'ren bizikera erdibitua darakusgute. Gaztetxoaren gogo-artega lañotsua, lenengoz, dager. Bizitz elburuak urduri dakarzkio, adi-irudiak. Iñoizka maitasun izpiak bidea dargiote. Galen atzaparrak biotza urratzen, bereala ordea.

Ara gaztearen barnean burruka sortu. Guda onek amaika aigabe ta alegetasun olerkariari iritxi dizka. Guda ostean, maite fiñez zauritua datza olerkariari Ez onen edo aren maite miñez, íaitasun utsaren maite miñez baizik.

Iñoizka gogo begiak olerkariari lausotzen ote zaizkan nago. gian, bidexurretatik jo arren ere, beti egi-bide bakarrera da->rkigu. Eta zalantza aundirik gabe, geienetan.

Poesi batzuetan atsege, pozge daurkizute «Lauaxeta»; ne-:tsu, aul-antzean, egoak tolestuten. Egoak, beti, garden eta soutil aungo diote olerkariari; gogo zintzoa bezin garbi.

Maitasun lei aiotsak.

Barneko maite lei au eusko elertían onurakorra zaio. Olerki ikañak sortu azi dizkio. Oraindaño ez lakoak. Alegia, azalez a gun-mamiz, maitasun gaiz beterik daudenak.

Maitasunak darabilki, olerkaria, bide zoragarrietatik. Maitain gaiok irudi arrigariz, oi ez bezelako amets ereduaz apaintzen tu. Oraindaño eusko olerkiak jazteko asmatu ez diran amets udi berriz, noski.

Maitasun-egiaz, biotz-ikutzez, azal-ederrez oparotsua, gazte len, olerti emaitza.

«Erantzuna», «Jadetsi-eziña», «Mao gorria», «Abaua», «Gaz-Gaxua», «Illuntzeko ixarra», «Gabeko irrintzia», «Iturri nega-a», «Maitale Kutuna» eta abar maitasun aiotsak besterik ote ra? Edertasun zoragarriz kutsututakoak neretzat, beintzat. Alai atsege ta lausotasuna badaramate, noski, baña baita gogoa utu eta adia asetzen duan goitar indarra ere. Oldargi zorrotz a biotz ikarak sortuak ba-dira!

«Olerti utsav».

«Bide berriak» dasa idaztitxo onek. Bide berrietatik dabil :ken aldera, gure olerkari zorrotz au. Euskera, poesi bidez, aberritu nai; osertz neurrigabeak darikizkio. Aberastu dedin tasun ugariak dakarzkio.

a datorkigu
kin, «olerti-

uts» aranetara.

France'n, batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso bearean dago. Olerkariak, buru-belarri, era berriak sumatzen ari dira, olertiak goratu eta edertzekotan. Bremond, Valéry, Claudel eta Souza «poesi puré», «olerti-uts» bidexurretatik jo ta, poesi osertza zabaltzearren leiatsu dabilta.

Adi poesia, oldozkun olertia, olerti gallurrenetzat daukate. Iturri garden, aran sotil, baso itzal, mendi zorrotz, maite min eta minkuntasunak beratutako gaiak goi-argiarentzat egokienak dirala ez uste; beste alako gai sakon eta barnekoak, adikorrak alegia, olerkari kementsuenentzat berekikoenak zaizkiotelakoan egon ginezke, ertilari oiek dasatenez.

«Lauaxeta» oien kidekoa zaigu. Aizken neurtitz salletan, eztabaidarik gabe, poesi uts zalea dagerkigu. Gaztetasun biozkadari uko egiñik, adi jauregi barnean itxi zaigu.

Oldozkun gorenak, asmo mee lurrungeak lagun, adimena nagusi, irudipena morroi dituala, olerti bide berritik jo digu. «Jaungoikotija», «Itxasora», «Itzarrik», «Artxanda-ganian», «Jaunagan atsedena» eta «Ezilkortasuna» poesi-uts esi barnean dagozenak dira.

Almena, oldozkun ortzean goruntz darabilki olerkariak. Adigai bereziak, irudi gorputzgeaz jantzita, apain neurtitzen ditu, Mindun biotz, ber-bera, lur ikutzeke goreneta igo digu.

Ezilkortasun zirikada.

Gallurrera igotzeak ez ase olerkariaren lei illezkorra. Bizitz arazoak urduriturik dauka bere gogo. Len, maitagaiak biotzean min; orain adi poesiak barnean garra piztu. Betikotasuna biotzean so-dagi. Biziki dasa:

«Gomuta ezilkortu nai dabe gíxonak..
Urtiak baduazi, urratsik eztager,
Non galtzen dira-edo?

Naikun oneik ez ete ezilkortasun gai?»

Olerkari bikañenak ezilkortasun aiotsak entzun izan dituzte. jure gazte onek ere dei orren oiartzuna neurtitzetan dagerkigu.

Poesi goiargiak lagun bekio ezilkortasuna irixteko. Adi-egc gokiak ditu naikuna betetzeko.

•Euskerari, bide latza, leguntzeko, «Lauaxeta'k» dagiana, ez a lan makala. Bere «Bide barriak» goren, txalogarriak.

Olerti-uts zelaietatik jua bedi. Nekeak ez dezala auldu; ain a galgarria bide ori. Oraindañokoan bulartsu darraikio.

Ez bezaie, ordea, maitasun gaiei, minkuntasun asmo samu-
•ei uko egin. Ain olerki politak egin dizkigu! Ain gogokoak itut gaztaro asierako neurtitz oiek!

Adi-poesi eta maite-olerkiak ez-ezik beste gun ederra dituen lerkitxoak aurki lezazkike irakurleak.

Uskurtz-atsak ikututako biozdunak badira. Oñarriztat zi-
ismen sendoa dutenak: edergarriztat, gaurdaño entzungeko, luri mee-goitarrak.

Gaur, Urkiaga olerkariaren agerkundea dakusgu. Gaztea iza-
ik ugaritsu datorkigu.—Oparotsu badator, edertzale ordea. Ba-
atutakoak dira, txorta onetan daskeñizkigun loreak. Mota asko-
koak, baña guziak bereziak.

Biotzean aukeratutako kimu aratzak.

Aitzol'dar J.

onostia'n

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:
gorputza aul daukot, gogua ariago.
Arratsari nago..., itxas-urdiñari,
lanari el-ezin, soilik ametsari.

Barnera so-dagit: gabeko itzal-antzo,
lexa barru ontan ezin dagit zantzo.

Lar gozartu baitot bixitzaren guna:
legor dira lorak, il maitetasuna!
Len eder yatazan mendijen gallurrak,
zoriyon-didarra egisten edurrak.
Oso nintzarian lurra zan ederra!
Españiak mosuba, bijotzak eskerra.

Ene gogo leuna, zatorz egotara I
Ume gexo-legez zatzaz galdatar.

Bidazti ez beti. Ez ibilli aron.
Bijotz aul orrek, ez gurenai yaramon.
Zidor ori nora? Eztauko azkenik...
Itxi, arren, eta ez leyatatu goirik.
Maitatu arratsa, landatu oroya,
ekiñai eziñik, bildu goiz-otoya.
Egun gitxi arren, nekatu naz oro.
Bixitza nork txastau leikian unoro!
Zer dodan eztakit, baña gexo nago:
gorputza aul daukot, gogua ariago.
Lausoz lurra dakust.

Naya mee daruat:
ardatz-antzo yabilt, lasai, arat-onat.

Etzunik banago, daurkit atsegiña...
Pozik eztot gura, eztot maite miña.
Enagixu laztan, ezta be mosutu,
atzera mosurik ezin daiket bildu.

Luaren dei-leunai sarratu begijak,
Ederrak diran arren urrundu lilijak.

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:
gorputza aul daukot, gogua ariago.
Arratsari nago..., itxas-urdiñari,
lanari el-ezin, soilik ametsari.

NEGUKO GABA

Erreterria'tar Gorgoni'ri b

Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.
Ibarretan edur zurijak
dagijez ixara barrijak.

Odeizko yantzijan dator negu latza:
betiko gorubaz edurren matatza
eunduten diñardu ortzijan.
Ameslari lerrak mendijan...

Orri-ikararik ez lertzun ta urkijetan,
Garrak dirdir-begi suteko tresnetan.
Axe otzoi, ua basora,
ipuin zarrak betorz sutera!

Pertza albuán, dantzán, Muru'ko sorgiña,
egazka Anboto'ko andere ziztriña.
Lúa betor umeen begira,
amets-zitala, ua mendira!

Artega su-motots bixijak,
yantzan mamu gorriz yantzijak

Ipiñi egurrik naiko sukaldían;
sugarrak dirdira dagijan artian
eztago edurren bildurrik.
Ez ixan otzen ardurarik...

Egun obiaren deya da neguba;
itxaro barik ez makurtu buruba.
Gau begitan dator eguna,
zoritar altzuan, zoruna.

Asaben sutian piztu urrezko garra,
ta goguan, bixitz-arau dan indarra.
Aberrijan txadon donia
AREITZ-suba dagon sutia.

Or, negu latzezko gau-ordu luzeetan
aintzezko itz-sakonak, idazti zarretan,
daurkiz gogo ameslarijak.
Asaben eredu garbijak...

Poztu, ta bijotzak ez euki urduri;
gaste ule baltz gara, ez zar ule zuri.
Bijarkua itxi etorrijari,
eta yantzan ta abesten ari.

Bixitza onetan ametsa da oro,
zadorrik, arren, ez egixu nai idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde-ona billau gauzetan...

Ara edur zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.
Itxarorik ez urrun jaurti,
billau bixitza onen neurri.

dauskubenerako buruba,
piztu, arren, maitasun suba!

GURUTZE-ALDERA

Gurutz-ondora eldu gurarik
bidia billa nabil neketan.
Zidor gustijak arantzez dagoz,
sartuten yataz onetan.

Nekezko bide esturik baño
orra eltzeko, Jauna, eztago?
Elorri puntan bildurrez beti
guru tzatik at bai-nago.

Odolez daukot neure gorputza,
urratu nabe sasi zorrotzak.
Baña enabe orra zuzentzen
nekezko bide mingotsak.

—Ezin Neugana eldu al-zara
samin arteko zidor aldetik?
Arantza orreik mintzen bazabez,
zatorz maitasun-bidetik! !

AROTZAK

Urigüen'dar Joseba Mirena'ri.

Arotzak lan-dagije, zar eta gastiak:
oya batak badagi, ilkutxa besuak.

—Arren, oya bukatu nasai lo-dagidan
bijotzan poza yatan maitiaz batera.
Begijak apal-itxi luaro aldijan
eta irrija datorke espanen ganera.
Ezkon-barrijen oya, bai-da donetsija,
bertan zorunak dagi maitasun abija.

Arotzak lan-dagije, zar eta gastiak:
oya batak badagi, ilkutxa besuak.

—Geldiro ilkutxa egin. Eder yat bixitza.
Itzalentzat bakarrik ixaten da ilkutxa.
Or ezin sartu neike maitasun irrirtsa,
eta gastaruaren lorazko gorputza.
Zerraldia ituna da itxaropen barik,
bertan ezta sortuten ametsen lorarik.

Arotzak lan-dagije, zar eta gastiak:
oya batak badagi, ilkutxa besuak.

Ixilik gaba dator lilluraz bilduta:
Ene arotz gastia, ekin biarrari.
Ain maite dodan oya itxi amaituta.
Arotz zar orrek barriz alde-egin lanari.
Zeure soñak deskatzu gauko atsedena.
Goitik ixarrez dator ordurik leunena.

Arotzak lan-dagije, zar eta gastiak:
oya batak badagi, ilkutxa besuak.

Egunak argi-dagi mendixka ganian:
Arotz agure orrek amaitu dau lana.
Zerraldo baltza daurkit etxeko atian...
Gastia barriz luak uatu dau dana.
Erdi egiñik datza oe ain kutuna.
Orain zertako dogu geure maitasuna?

I T A U N A

Maitatzen bazaitut, itaundu dautsozu
leyuan klisk-dagin illargi-izpijari.
Larrosa zuriko txindor kantubari
itza artu eziñik gaba igaro dozu.

Axiari itaundu dautsozu legunki:
berak baña jolas dagi zeure ulian.
Ete dakije ezer ixarren unian?
Mosu dagitzube gustijak kutunki...

Itaundu dautsozu zero garbijari,
itxasoko uñai ta ixadi orori.
Maitasun orretzaz baña, maite ori,
ez dautsozu itaundu zeure bijotzari!

E R A N T Z U N A

Illargi-mosu dabil edurtze zurijan:
urbil geure soin oneik maitasun zorijan,
itzal miak dagijez bide bakartijan.

Otzak ixoztu daroz maite-itzak abuan
eta dardar dixuri barriro kolkuan,
maitasun ondar oneik gorderik goguan.

—Maitatzen ete nozu, neskatil liraña?
lei gurenez ditauntsot: odei baltez baña
illun illuntzen yako bekoki bikaña.

Itz leunez poztuteko neure gotiliuna
begijetan neuskijo billau erantzuna.
Erantzun orrek dakar minduben zoruna.

Ixil berak didatzi edurtze ganian;
goibelez ilargija odeyen artian...
Nok digarke erantzunoi gaberdi baltean?

MIREN NESKUTZA'REN BASELEXA

Gogo-itunak dakijen menditxu ganian
Neskutz-samurra datza gexuai begira.
Alayak, andik urrun badabiltz ludiñan,
Baña begi mindubak ara eltzen dira.

Artzañak otsein yakoz, argontzi ixarrak.
Goxa jeiki ezkeru an dabil kedatsa,
Usaintzen dabe leunki ormako bedarrak.
Uso baten antzean baselexoi datza.

Orra duaz auldubak otoi-egitera,
Baita gexo-eztenak mindu dituzanak.
Gustijak ditxaroe maitasun-arrera.
Ur ori maite dabe gixonen españak.

Orra gastien eta zarren ibildeunak;
Batzubek dakartzubez arantzezko oroyak,
Eta bestiak barriz itxaropen-leunak.
Entzun ume- ametsak ta zarren otoyak.

Orra duaz gastiak lorazko bidetik
Onetsi dagixuzan maitasun-mosubak.
Zeru goiko argi) a Zeure txadonetik
Ikusi gura leuke atsotxu mindubak.

Gogoen batzuk baña ezin eldu dira
Eta negar artetik gedar dagitzube.
Oinditik jeiki zaite gabeko argira
Ta gexo oi bidera urten eijozube.

Erririk erri zuaz mindubak poztuten:
Zeu onduan zaraia, erijotz ordubak
Itun diran bijotzak eztauz bildurtuten.
Begijak itxi, arren, tolestu eskubak.

Mendiko Neskutz ori, zeure magalpera
Negar gustijak duaz, oñaze gustijak.
Baña zuk goi-aldetik Erregin antzera,
Aurreratuten dozuz geure lei-larrijak.

Ortik asetzen dozu labalde legorra,
Baita euri eskean daguan andana.
Zeuganuntz dator egaz lugin orón lorra
Eta odeyak datorz, busti da oyana.

Ortik ikusten dozu ixurri zakarra
Seintxubak amakandik aldendu gurarik.
Euren ganera baña bator zeure eskarra
Eta lurran eztago ailako lorarik.

Gaba datorrenian mendijen ganera
Zeure kanpak dalayez bijotz samindubak.
Txerrenak pozik duaz oben egitera
Baña zainduten gabez zeure aingerubak.

Bakarrik mendi-goyan, Neskutz maitatijak
Umetxu zerutarra dager eskubetan.
Origaitik ameak eta sein txikijak
Pozik sartuten dira baseleiz orretan.

Zenbat alatz dagixan soñak osaturik:
Itxubak or dakuste eguzki-diztira:
Garbijak or badagoz bakez zoratürik,
Negarrez ogendijak auzpeztuten dira.

Zenbat oroigai datzan errukiz lotuta.
Itxasontzi politak, jantzitxu zurijak.
Txauno-bidazti legez onaño elduta
Txindirik eztaukonak, damotzuz lilijak.

Mirenen basatxono mendijan jarrija.
Gotillunak dakije orrako zidorra.
Tolesgientzat zara maitasun abija,
Obendijentzat barriz babes-maitekorra.

JADETSI-EZIÑA

Zeure mosubak diran laztanak!
eztizko lorak yatzuz españak.
Larrosa orrein orri ganetan
ibilli nai dot, loreil onetan.

Laztantzen dodaz sasi-lilijak,
eta matsaren urrezko orrij ak.

Mitxiletatxu baten antzean
artega nabil latxin ganian.
Zeure larrosa politak baña
ezin laztandu, neska liraña.

Eragozpenak banantzen gabez,
eta mosuba dil atsekabez...

AI ditubazan lora gaxuak
laztantzen ditu geure goguak.
Baña dil, leitzen daben lorarik
bere bixitzan jadetsi barik!

MAO GORRIJA

Maitasunaren ikurkorra zan
zure leyoko maoa,
ikusten neban goiz-iluntzetan
poztuten yatan gogua.

Igande goxe baten kantari
ebai zendun ma-egiñez;
eskeiñi zeuntson gaste bateri,
ikusi neban samiñez.

—'Ederra baida mao gorrijau—
erantzun eutzun gastiak;
betiko orduban alkartu ziran
zuben bijotz maitaliak.

Eskeiñi zeuntson mao ederra..
ene neskatil polita!
ta bazenkixun ernia zala
neure negarrez bustita.

A B A U A

Erladi-urdurija, neure gogamenok
espan gorrijoi dagoz: arin dabiltz arok.
Urduri dabiltz neure gogai-erletxubak
zeure loretan batzen lora-irin gurija.
Espan orrein lorakaz dagijen eztija!
Bijotzean bil-dodaz abau gozotsubak...
Maite gintzazanian
gordeten nendubazan bijotz barrenian.
Zeure ezetza ostera
mingots itunez jausi yatan bijotzera.
Gozo biarra neukon barruko minean,
eta mustau nenduban abau ederrena.
Baña zer txastau neban eztijan ordean?
Espan orrein lilijak ba euken edena!
Egiz neure bijotza
iratu yatan oro!
Maitasunan mingotsa
abau aren barruban bai neban idoro!

GASTE GEXUA

Mendi-ertzeko gastia arratsak dakar geldiro:
udazken ori barnera sartuten yako leunkiro.
Zugatzen orri zimelak lurrera datorz axian
eta ametsezko zerrija zabaltzen dabe bidian.
«Samíñez nator zeugana, maite zaitudan basua:
orbelen jauste mindubak diraust erijotz arua.
Abi utz orreik zeuriak, zeuria zarba zimela,
baña neure soin gaxua luzaro bixi daitela.
Gastia nazan ezkeror oraindik eztot il gura.
Bekoki onek dagerren maitasunezko lilura
ezin illundu dagike erijotzaren laztanak.
Arinik duaz obira zerubak maite dauzanak I
Nik barriz nasai lo-dagit itxaruaren azpijan.
Itun dagozan bijotzak poztu egixuz ludijan
edo bixitaz mindubai itzalez itxi begijak.
Ustege dagon batentzat eskei zugatzen, lokijak.
Mendiko magal ertzian daguan areitz zimela
aizkora kazka zorrotzaz lurrera jausi daitela,
baña iraun begi lerdentsu emaitz betezko zugatzak.
Bere orrijen itzali k ez bei apurtu ekatxak.
Mitxiletatxu sorgíñez eta larrosaz josita
orri-begijan baitago neure Ioragu polita.
Barne barnetik kantari, egun sentiko argira,
urrezko larratxorijak dagije ortzira.
Enara batek bezela gastetasunak narua
eta eguak zabalik gorantza juat gogua.
Oraindik eztot il-gura, bixitzau yatan leguna I
Maite dau bijotz gaxuak ene aberri kutuna;
maitatzen ditu lagunak eta guraso tximurrak,
baita zeu bere ene neskutza ta zeure begi samurrak.
Laguntza orrein eztija mustau nai dot il-artian.
Bildurrik gabe nor dua illobiko itzal bidian?
Atsegiñen mai alaira didar dagiste gustijak;
dastatu barik osteria itxiko dodaz jakijak?
Esku arteko usuilla edariz daukot beterik,
baña lorazko espanok eztodaz busti oraindik...

maitati bere atiak zabaltzen daustaz ludijak.
Mosuba erdi egiñik itxi biarra, bai ituna!
Bijarkuak beti dakar geure zalian zoruna.
Oraindik bixi gura dot, ludija yatan ederra.
Itunak poztu egiten búa arin gexo ankerra!
Negarrak ondo dirudi aguren begi minduban,
baña mosuba ederren maite diranen abuan.
Zarrak il beitez, oroyak-arren eztoгу ayolik,
itxaropenak galtziak eztauko barriz neurrik.
Negubai otzak yagokez, udabarijai lilijak.
Obijan soilik apurtu larrosa bageko ontzijak»
Olan inardun gastiak orbel betezko bidian;
azken orrija dardarka lurreratu zan axian...
Baso aldetik betiko juaн zan mutil gexua
ta itxaro illaren antzean itun lotu zan basua.
Negarrak ez eben lotu gexo ankerran zaurija
ta lorak arren, betiko apurtu zan lorontzija.
Barriz eldu zan mendira udabarijan laztana
eta lilijen usañak alaitu eban oyana.
Baña ostroen dardarak eta txorijen txijuak
inor ez eben idoro alai egiten basuak.

ILUNTZEKO IXARRA

Gaste zintzo batek itun so-dagijo
ortzi urdiñeko ixar argijari.
Ixarrak, minduben atsegin dan izpiz
ma-dagijo mutil aren samiñari.
—Neure maite ederran malkua ete az?
I baxen samurra dok aren negarra.
Bere begijak so-egijelakuan
ain leunkiro mosu dagistak, ixarra?—
Eta zintzo ituna ixar ederrari
pozge so-egiten eguan unian,
neska leunak beste maitale bateri
alai ma-egijon bekoki ganian...

Gau-argitsuban bakarrik nago leyó idigijan;
ibai garbijan ixilik dabil iretargia.
Izpi-zurbillak dizdiz dagije baso erdijan.
Ilargi orrek eztau itxartu artzain zolija.

Mendi baltzaren goyetan, muga bako bakíak
zaintzen dau zero eta lurraren maitasun-lua.
Gaba urrezko koroyaz dabil. Lora legunak
ameslari, goi-gora digorte usain-goxua.

Gabeko gentzan gorpuzki oneik loratu dira...
Jainko ditzira oro da... Baso-ziar emaro
menditik yatort leunkiro abots baten intzira.
Dardarka zero zabalán galtzen da naro-naro.

Baso ixoztuban estalduta agon maitale orrek!
Ezeik abestu, ba abes orretan dagerk bijotza.
Eure barneko kezkak yagerzak irrintzi orrek,
ixildu egik samin Iatzezko maitasun-otsa.

Oi!, bijozkada leuna darijost eure irrintzijak.
Eure samiñaz batera dabesk neure samiña.
Bijotz orotan bardiñak dozak maitasun nayak,
abesti orok yagertek geure kezka bardiña.

Irrintzi leuna galdu dok gauko zero garbijan.
Eta ire samin orrek tolestu yozak eguak.
Gau oroz, baña, dardarka bere leyó idigijan
negar zotinka iraungo bai-yok neure goguak.

Ur gardenari begira
iturri-ertzan lili] a:
ur altzuan lili aren irudija.

Maitasun-ego miakaz
axiak ba deragijo
maite daun urari ma-leunki dagijo

Iturri leuna ostera
negarrez axiak daro.
Eta urretxindorrak urari emaro:

«Zegaitik negar yarijo?
Abar orlegi ganian
abeskide neukok oroldi bidian».

—Neure altzuan maitia
euki-ta galdu ezkeru,
zelan negarrik ez dagiket maitero?—

MAITALE KUTUNA

Iñoiz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurrok laztanduten dabe.
Begi gelgarriz dargist bijotzeko iluna,
eta bere larrosak usainduten nabe.

Zerutar egak ditu maitasun zaliak;
lurrera baxen sarri so-dagi ortzira.
Bere leuntasun ziar mosu sutsubenak
espan ganian, otoi bijurtuten dira.

aboko larrosetan dagerkoz urduri.
Aiztatzat alai dartu zelaiko lilijak.

Neskatil ori nor dan ez dazau bijotzak;
baña bera dan ona, bera dan liraña!
Begi oneik ez arren, bai-dakus ametsak.
Erean dazaukijot bekoki bikaña,

Sarri billauko neban bixitza bidian
ta edertzat aitortu beraren gorputza,
nok baña dasayoke begijen aurrian:
—Maite audana. ete az, neure neskutza?

Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro,
berak axian bidez lilitxu gustijak
udabarri aldiñan dalkartuz emaro.
Berak lotuko ditu maitasun lokijak.

Indar ixilkor batek batzen dauz goguak;
itzak loitzen ditubez maitasun gurenak.
Barre alayak ezik, barruko malkuak,
zale oneintzat dira antzikur gardenak.

Maitaliak ixanik alkartuko gara.
Jolas aldiñan ezik otoyen orduban,
eguzkira ezpada, gabeko illazkara:
noiz'ak itxi Jainkuan izpizko eskuban.

Aldi alaitsu ori jadetsi artian
neure ezkongai bailiran neskatil danari
begiratzen daursiet dagidan bidian.
Neska polit bakotxan zakust ameslari.

Bestiak zeure ederra goratuten dabe,
eurentzat gelgarrijak soin orren pitxijak.
Baña zeure zalian indartuten nabe
begi polit samurren leuntasun izpijak.

Zerutarrak baitira geure maitasunak,
eta leikide batek eztauz lausotuko.
Oraindik eztauz loitu gurari lixunak
eta gorputz irrisak eztauz banatuko.

Ikus eziña zara ezkongai neskutza]
baña, arren, entzun neure maitasunan naya:
Edurra baxen garbi irauki gorputza,
ixan zaite zitoriz gotzon baten gaya,

Ixan zaite, oi neure neskatil argija!
maitatzen dodan amatxu baxen leguna,
leituten dodan alaba baxen garbija.
Ori litzake neure gogoko zoruna.

Samurtasuna landu gogo orren altzuan,
urumarako zara ba usoen antzera.
Ondo zaindu zaidazan oñaze orduban
olderik naiko dauko bijotzak ostera.

Espan erreintzat daukoz mosu samurrenak,
samin erreintzat barriz, maitasun eztija.
Eta txori politen abesti leunenak
zeugana eldu daiten luaro gurija

Zeu maitatzeko nazan bijotz samurduna!
siaska ertzan datzan amatxu lakua.
Gorde zaidazan, barriz, jayo nintzan luna!
Euzko seme lerdena, bildur gabekua...

Zeugan pentzaten nabil Jaunaren bidian,
eta lokatz artian egaz dagit azkar.
Andra baten oroya naiko da lurrean
garbi iraun dagiguntzat etsai orok ziar.

Oi, neure bijotzeko ezkongai gardena!
beti, arren, aditu maitati ortzira.
Zeugan mosuba baxen kutun dot arrena:
Andrak ederren dira zerurantz begira!

Maite oi!, agur, ilda betiko
geure maitasun kutuna.
Bijotz orretan aspaldiz dauko
bere obi oso illuna.

Maitetasun au udabarrijan
irrika sortu genduban.
Nork dasaguken negu aldian
ipingo gendula ilkutxan?

Ametsa dana ixan ete zan?
Oi, amets egin dabena
estaldutia, goguarentzat
samintasunik latzena!

Leyó idigitik ilargijari
so-dagijot gau baltzean.
Negarrez nago odoyai adi
gabaro gustiz leunean.

Zeuk zelan barriz abes-dagixu
gabeko aldi larrijan?
Abesti otsa bijotzak dantzu
zeure itzalezko txakijan.

Neska sorgiña, gau baitzanean
bildurrik bere eztaukozu,
geure maitasun azurrotz ori
bijotzean ba darozu...?

ni.il *ganian* uaL/.a;
begijak itxirik.

Nasai-nasai dedate
bero lixunkoya.
Izpi-garbijak dargi
euren gorputz loya.

Noxean-bein gorantza
jaso dauz burubak.
Eulijak atzemon nai;
Txakurren alperrak!

Kanpora durten pozik
neure txakurtzubak.
Jolas-egin gura dau
toto txikertzubak.

Txakur zekenakana
eltzen da saltuka,
ayek baña artzen dabe
amorrüz orruka.

Tente ate aurrian
Orino txikij ak,
gora jaso daruaz
begitxu argijak.

Zerubari adika
ume bat bezela,
ikuspena dirudi
betesten dabela.

Eta txakur politak
oso ameslari,
ausi egiten dautso
zeruko oztiñari.

Ortzargi-altzotik jatsi ete zintzan lurrera?
Ain garbi zenduzan yantzijak, ain argi begija!
Bidian ixuri zenduban lurrinkai gurija...
Lurra ikutu barik zoyazan gotzonen antzera.

Maitasun zaliak sortzen ziran zeure soera.
Gozartu zenduban bixitza gustiko zorija.
Egaz larrosara juan zan txirrita zurija,
maitasunak zabal-egin eban lora ganera.

Neskutz, bil zenduban mosu baten, zeure bixitza.
Eta betikorra bailitzan barneko irritsa
loratu yatzuzan begijak ludiko pozagaz.

Lora ezilkorrak, maitasunak, zeure bidean
zabaltzen ebazan, laster baña igartu zirean,
atzetik etorren erijotz-axian otzagaz,

LUDI AMESKORRA

Soin onen sasi-pian negarrez bai'nago;
Zeure goi-eskar barik bixitza yat latza!
Naigabe-itun azpijan zauriturik natza,
Neukon etxia, zarrez, erori dalako.

Lentxu maite ninduben munduko gustijak,
Samiñaren katiatz lotuta ikustiaz
Negar-gazija neugan itxi ta aldendubaz
«Lo-egik •—esan dauste—, zoritxar-azpijan».

Pozez beteta igazi nai neban ludija,
Atsekabiak baña lepu-ganen juaz,
«Mundu au ametsa —esan daust—, zorakeria».

Geyegi atsekabez neu asetuteko
Arantzas josiriko amets ain gozuak.
Zeu, Jauna naiko, alai neu erabilteko!

*Goitia'tar Martin zanari bere
goguaren eresi au dopaltsot.*

Jaunguak gogo batzuk zauriz joten ditu,
eta nekian euren gorputzak esitu.
Negar dagijen arren, kentzen dautse dana,
eta kurtze gogorra da Bere laztana.
Itunik beti duaz bide bakartijan,
ostaz euren goguak zaurizko soñean.
Errukirik ostera eztagertse Jaunak,
eta geyago joten dauz bere gezijak.
Eztitu osatuten euren oin mindubak,
iñork ez dantzuz euren ayots samindubak.
Euren ortuko lorak dapurtuz ekatxak,
gerizik eztagije euraen zugatzak.
Gogorki kentzen dautsez diru ta lagunak,
laket-barik bai'daurkiz beti gau illunak.
Orok duste azturik Jaunak daukozala,
bijotz orren bixitza ain dager zimela!
Samiñez jausten dira arantza ganera,
eta orok ditzijez legendar antzera.
Ordu aretan baña, Urtzi'ren mosubak
osatuten dauz euren zauri odolsubak,
Berak legortuten dauz nekezko negarrak;
malko orrekaz piztuten dauz ortziko ixarrak.
Amayeran matekor Urtzi'ren irrijak
zabalduten dautsoez zeruko atiak.
Orok iges-eitian Urtzi maitasunak
pozez laztantzen ditu gogo ain itunak!

Abesti leunak loratzen ziran
espan ganeko gentzean.
Bijotz samurra bildu zeustazun
maitasunezko leyeen,

Orain ixilik abesa dago,
eta zerurantz begira
dizdir begijan malkuak dagi,
maitasun baten diztira.

—Abes biguñen erregin ori!
alai abestu egixu.
Orain maitale garialako,
samiñez negar dagixu—?

Espan kutunak neureganatuz
mosuba damost amesti.
—Ta mosu onek —samurki diraust,
ez dabes anei abesti?—

L I E D

Ortzargi-mosuz txautu
neurtitzik politenak.
Euren izpi artian loratu daitezana
neure maite samurran ametsik leunenak.

Pitxi gelgarriz josi
idustun dirdirtsuba.
Garó bikain ganian izpiz lotu daiten
aren maitasunezko malko laztantsuba.

Gabeko itzalez landu
berunezko illobija;
zerraldo orren altzuan esitu dagidan
maite nendubanaren maitasun aztija!

B I J O T Z E A N

Lorategiko edur zurijan
irarri zendun neure irudija.
Axia eldu ta egal otzez
autsitu eban gustija.

Larrosa baten orri ganian
idatzi zendun ixen maitia:
udea eldu eta eguzkijak
igartu eban lorea.

Neure gorputza esku miakaz
marreztu zendun are ganian:
etorri ziran olatu urdiñak
atzindu eben unian.

Beti-betiko iraun dagijan
badakixu non sakon irarri?
Bijotz barruban, maite kutuna,
maitasun izkiz idatzi!

JAUNGOIKOTIJA

Agirre'tar Joseba Andoni'ri

Nuan Goiko Aitaren erruki-altzora:
begijok begoz beera ta bijotza gora.
Neugan bakia zala at billau nenduban,
zoruna baña soilik daukogu barruban.
Zeruko poza billa bijotz onen lorrak!
Gustijak nai nebazan lagun iraunkorrek
neu saltzalle nintzala Jaunan maitiari.
Zuur nintzayen griñai, goor eskar-otsari.

Ez zindudan maite nai, Zeu maitatu ixanik
ezin nebalako bil beste maitasunik.
Obena egun yatan, gaba illargi bixi;
argijan itxu nintzan, gaban begi-zoli.
Baña laket artian neban zeure miña!
Zeugaz bete ixateko nozu ba egiña...
Iñon atsedetik ez, urrun zeuregandik;
ez zituzan tokijetan Zeu billatu nairik!
Bijurtu zindudan ba ixadi aratza,
larretako bakian nasai lo negijan,
ta begijok ebiltzan goxaldeko izpijan.
Gustijak baña soilik ziran zeure urratsa!
Zelan gabiltz ikusi ezin zaitugula
zeugana juateko argizko bidiak
gauza danak badira?

Udalen ta lorak.

Munduban argiz zagoz oropoz dozula.
Arnas deunak darabil loren urdurija.
Begijak goyan dozuz?

Ixar izpi oro.

Loretan lora zara, argitan argija.
Zagozan tokijetan zelan ez idoro?
Ez zindudan baña nai, Zeure argi miak
agertzen eustalako maite danen motza,
euretan barriz gogor neukozan begijak...

Eta aldendu gurarik jo neban lañora:
gauza orón artetik ametsen altzora,
Gustuetan zengozan, oro zeure maite.
Ikusi ez zaidazan nora juan naite?
Toki bat zan bakarra:

Obenan kolkua.

Aren illun barrura ezin eldu zaite.
Argijak ikus ezin gaba ta lañua.
Nork ikertu leikian neure etxe zar-utsa?
Mukurrak eze ziran, dana zan kiatsa.
Ara bere eldu zintzan.

Orra min zorrotza!

Zeugan lotu gurarik gixonen bijotza
zeuk ipiñi zenduban poz arteko miña.
Gorako bide erreza barneko samiña.
Malkuak len garoez zeure eskarreraño,
munduko aintzak eta bide-labak baño.
Gaxo utza ni natzu, zakidaz erruki.
Oso arrakal nitzan, bijotz muiña jausi.
Nok gurako koskola dana bada sasi?

Maite nebazan gauzak juan dira igesi.
Orain txiro nagotzu, baña zatorkidaz.
Maikoen barna zelan argitan zaurkidaz?
Poz artian osteria ezin zeu idoro!
Gixon gustijen barnak baidirala zoro!

Ene Jauna, Jaun ona, erruki zakidaz!
Txiro arren ez jaurti seme saltzalia:
arantzik ez betestu bere labakijan,
bai baña sortu daben garbaizko lorea.
Lenen zauriz josijak dozuz errukijan.
Aitaren maitasunak baitau kutunena
gexua dan semia, seme mindubena!

Mungija'ko ibai ederra,
len gardena, oin ugerra.
Aren altzuan murgildu baita neska liraña

Goxian goxik latsean,
lats garbijaren ganian
lora bat legez aurkitu eben neskutz bikaña.

Oyal garbitzen arrijan,
onak erreka garbijan,
goxaldero zan gogai samurrak maite onduan.

Lugin baten irudija,
orón ixilik maitia,
orón ixilik sarturik eukon bere goguan.

Mungija'ko ibai zabala,
ibai ederra bai'dala.
Itxasorantza loraz darua urlo apala.

Lugin mutillak ertzetik
maitasun onez beterik
oroigarritzat eskeiñitako lora zurijak.

Lora bat ibai erdi jan,
bitsezko otzara zurijan
neska leunari bialdu eutson lugin gastiak

«Lili-gorri, lili-gorri,
ire marguak dirudi
espan-loretan maitiak loran daukon marrubi».

Mungija'ko ibai urdiña,
len gardena, oin zikiña.
Zeure altzuan neskak dakustez lora zurijak.

«Ator neure eskubetara,
neure esku garbijetara_,
maitian ule kizkorren antza bere orrijak».

Lilijak irri egijan,
irribarre ibai erdijan.
Naro ebillan lora sorgiña urlo garbijan.

Ibai ertzeko munatik
lilija atzemon gurarik
neskatil arek luzatu eban esku liraña.

Ai ene!, ordu txarrean!
irrist egiñik munean
erreka altzuan ito-egin zan neska bikaña.

Mungija'ko ibai zabala,
ibai ederra bai dala.
Mungija'ko ibai gardenak loraz urlo apala.

L I P A R R A

Zelai-orlegiko gentz-ziar emaro
odeixka zurijan itzala digaro.
Olan eltzen yaku erijotz antzija;
gozartu dagigun larrosen eztija.

Odeixka itzal ori baxen samurkixo
lora-ziar bebil geuria leunkiro.
Laztandu dagidan, ekarzu eskuba;
lora artian kutun ez yatzu mosuba?

Neure espanai adi, pozik barre-egixu.
Bijar maitatuko garan eztakixu...
Liparra gozartu, ilkorrak ba gara;
axe-egatan dabil loren mosu-ikara.

Odeixka itzal ori dabil zelayetan:
—Zorijon aldijak zebeñ bijotzetan
ezilkortu, arren —dirauskuba zarrak.
Bai zera, bai zera, laztandu larrosak!

SEÑAI ABESTU

Barrena'tar Miren Arantzazu'n

Senarra gexo ogean datza,
sona oñazez beterik.
Emazte onak diru gustija
eralgi arren, alperrik.
Zoritxarraren urrats ixillak
etxian dakus bakarrik.

Seintxubak baña negar dagi-ta₃
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

Miñak minduta ayots garratzak
bijotza urratzen dautsoe.
Eri zitela..., orok igeska.
bakarrik itxi daroe.
Aren begijak gorri baitagoz
negar latza daríjoe.

Neke gogorra. Gorpuba gelan
argi orijen erdijan.
Juale itunak danba dagije
eleiz torreko gianian.
Danba dagije, itunez bete.
sartzen dira bijotzean.

Seintxubak baña negar dagi-ta₃
ixilduteko. amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan.,
Dingilin dan.

Sarats ondotik gixon altsubak
eruan dabe obira.
«Betiko agur senar on ori,
geure bijotzak il-dira».
Eta begijak atzian duaz
ilkutx baltzari begira.

Gixon gaiztuak kentzen dautsoez
etxeke gauza gustijak.
Senar onaren ogea zana,
atzitu dabe zikotxak.
Laster kanpora urten biarko
ango emazte garbijak.

Seintxubak baña negar dagi-ta.
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan.
Dingilin dan.

Atzamar meetik kenduten dautse
zillarezko elastuna.
Ezkondu ziran goiz ederreko
gomutagarri leguna.
Zapi zakarrez ate aurrera
erdu da txirotasuna.

«Agur betiko neure asaben
etxalde argi-zuriya.
Jaso balebe asaba ayek
lurpian dauken buruba.
Baña itxi daigun ixil-ixilik
galdu dan etxe minduba.

Seintxubak baña negar dagi-ta,
ixilduteko, amear,

abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

«Igartu dira Jora landarak,
Igartu dira zugatzak.
Neure ortuban umotu dira
zoritxarraren ematxak.
Lengo maitasun igali leunak
lurrera ditu ekatxak.

Bijotz gogorra euki biar da
asaben etxia izteko».
Eta negarrez geldiro dua
urrun aldera betiko.
Ogija billa seintxu arentzat.
gose ankerra kentzeko.

Seintxubak baña negar dagi-ta,
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

B E T I K O R R A

Juale otsak entzuten dozuz,
il-juale itunak.
Euren ziyua ez dazau baña
zeure barneko alaitasunak.
Nor il-ete dan, itauntzen dozu?
Oi neure kutuna!
Il-kanpai orrein ziyo pozkia
geure bijotzen maitetasuna!

«Ator neure eskubetara,
neure esku garbijetara_,
maitian ule kizkorren antza bere orrijak».

Lilijak irri egijan,
irribarre ibai erdijan.
Níaro ebillan lora sorgiña urlo garbijan.

Ibai ertzeko miinatik
lilija atzemon gurarik
neskatil arek luzatu eban esku liraña.

Ai ene!, ordu txarrean!
irrist egiñik munean
erreka altzuan ito-egin zan neska bikaña.

Mungija'ko ibai zabala,
ibai ederra bai dala.
Mungija'ko ibai gardenak loraz urlo apala.

L I P A R R A

Zelai-orlegiko gentz-ziar emaro
odeixka zuriyan itzala digaro.
Olan eltzen yaku erijotz antzija;
gozartu dagigun larrosen eztija.

Odeixka itzal ori baxen samurkixo
lora-ziar bebil geuria leunkiro.
Laztandu dagidan, ekarzu eskuba;
lora artian kutun ez yatzu mosuba?

Neure espanai adi, pozik barre-egixu.
Bijar maitatuko garan eztakixu...
Liparra gozartu, ilkorrak ba gara;
axe-egatan dabil loren mosu-ikara.

Odeixka itzal ori dabil zelayetan:
—Zorijon aldijak zebeñ bijotzetan
ezilkortu, arren —dirauskubere zarrak.
Bai zera, bai zera, laztandu larrosak!

SEÑAI ABESTU

Barrena'tar Miren Arantzazu'n

Senarra gexo ogean datza,
sona oñazez beterik.
Emazte onak diru gustija
eralgi arren, alperrik.
Zoritxarraren urrats ixillak
etxian dakus bakarrik.

Seintxubak baña negar dagi-ta₃
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

Miñak minduta ayots garratzak
bijotza urratzen dautsoe.
Eri zitela..., orok igeska.
bakarrik itxi daroe.
Aren begijak gorri baitagoz
negar latza daríjoe.

Neke gogorra. Gorpuba gelan
argi orijen erdijan.
Juale itunak danba dagije
eleiz torreko gianian.
Danba dagije, itunez bete.
sartzen dira bijotzean.

Seintxubak baña negar dagi-ta₃
ixilduteko. amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan.,
Dingilin dan.

Sarats ondotik gixon altsubak
eruan dabe obira.
«Betiko agur senar on ori,
geure bijotzak il-dira».
Eta begijak atzian duaz
ilkutx baltzari begira.

Gixon gaiztuak kentzen dautsoez
etxeke gauza gustijak.
Senar onaren ogea zana,
atzitu dabe zikotxak.
Laster kanpora urten biarko
ango emazte garbijak.

Seintxubak baña negar dagi-ta.
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan.
Dingilin dan.

Atzamar meetik kenduten dautse
zillarezko elastuna.
Ezkondu ziran goiz ederreko
gomutagarri leguna.
Zapi zakarrez ate aurrera
erdu da txirotasuna.

«Agur betiko neure asaben
etxalde argi-zuriya.
Jaso balebe asaba ayek
lurpian dauken buruba.
Baña itxi daigun ixil-ixilik
galdu dan etxe minduba.

Seintxubak baña negar dagi-ta,
ixilduteko, amear,

abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

«Igartu dira Jora landarak,
Igartu dira zugatzak.
Neure ortuban umotu dira
zoritxarraren ematxak.
Lengo maitasun igali leunak
lurrera ditu ekatxak.

Bijotz gogorra euki biar da
asaben etxia izteko».
Eta negarrez geldiro dua
urrun aldera betiko.
Ogija billa seintxu arentzat.
gose ankerra kentzeko.

Seintxubak baña negar dagi-ta,
ixilduteko, amear,
abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan,
Dingilin dan.

B E T I K O R R A

Juale otsak entzuten dozuz,
il-juale itunak.
Euren ziyua ez dazau baña
zeure barneko alaitasunak.
Nor il-ete dan, itauntzen dozu?
Oi neure kutuna!
Il-kanpai orrein ziyo pozkia
geure bijotzen maitetasuna!

Zerraldo baltza ikusi dozu,
zerraldo aundija.
Zuriz yantziko mutil gastiak
urrun eroyen iian ontzija.
Zer daroyenentz, itauntzen dozu?
 Oi neska axuna!
Zerraldo orretan illik daroye
geure bijotzen maitetasuna!

Obi itxija idoro dozu
 aran itunean:
sasi zorrotzak eta bedarrak
illobi baldar ixen gabeen.
Nor ete datzan, jakin nai dozu?
 Oi neskutz kutuna!
Or ixen bako obijan datza
geure bijotzen maitetasuna!

A B E S T I J A

«Esku orrein laztanez,
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu».

Neskeak esku miaz
urari mosuba:
arri koxkor artian
ura loirik dua.

Ura kanta kantari,
neskea negarrez.
Urak esaten dautso
abostxu samurrez:

«Esku orrein laztanez,
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu».

Neskatxak itun dakus
ur garbija loirik.
Garbitasuna dau amets,
eta eztau pozik.
Abar puntatxu puntan
txindorra kantari,
eta abestuten dautso
neskatil leunari:

«Esku orrein laztanez,
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu».

—Abestuten daustazun
txindor kantarija;
zegaitik len ez esan
zeure abestija?
Zegaitik ur ertzean
txinta txintalari,
ez eutsozun abestu
loitu nindunari?

«Esku orrein laztanez,
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu».

M E N D I J E T A R A

Urrun giz-otsetatik, menditara nua,
leyak ba loitzen dabe garbi dan gogua.
Bedarte-ziar nabil loratxu artian,
girin bako pitxijak irrika bidian.
Gorrotorik eztauke bedartxu oztiñak,
txori pijuak dira zugaitz atsegiñak...
Neure onduan dua latsa nauskiro,
Bijotzoi!, mustau daigun bake au geldiro!
Axiaz itz-dagije makal amestijak,
larrosakaz olgetan mitxelet zurijak,
Neketzaz eztakije zelaiko bedarrak,
euren malkuak dira oyane-altzuan;
lora polita déme iturri onduan.
Abar leka samurrak dardar egitian
euri tantak dixuri oroldi ganian.
Loretan abirik ez dagi gorrotu&k,
zerutzaz ames-dagi zelaiko goguak.
Poz-eztiz egurasten, bai, atseginkorra!
axian ego-puntan dua geure lorra...
Mendijak alde baten, bestían zugatzak,
onaño ezin eldu ludiko ekatzak!...
Oyu artega-ordez, abarrots adija,
eta ur eskutatuben otoi-erasija.
Txori kantea dabil urduri sasijan,
Zelan bixi naiteke negarrez mendijan?
Bedar miak diño, baita txori onak:
—Zegaitik ete dozak ain txarrak gíxonak?—
Pozez danai begira sortzen yat lilura,
eta maitasun egoz banua zerura.
Gitxik dazaben gentzan nabil ameslari,
olan damotsat aintza Urtzin emoyari.
Urrun giz-otsetatik menditara nua,
leyak ba loitzen dabe garbi dan gogua.

BERE ILLOBIJAN

Urrundik nator lotan datzan illobira;
lo-dagi gotzon-eran, zerura begira.
Gurutz-zuri gania
adaskatxu gurija,
lili-mosu antzean
usainduten obija.
Arzabal-gain otoika: maitasun otoy
egak zabalik azkar zeru-ziar doya.
Maite ori!, zeruban, izpizko yantzijaz,
oroitzen ete zara
egiñitako itzagaz?
«Neure bijotz-dardara
uta bere zeurekin ixango da beti».
Itz ori entzun neban samurki, samurki.
Txorijak abeslari ta adaska gorriak
zabal daruaz bere odolezko orriak.
Oi maitasun gelgaya! Larrosondo igerra
ta bijotza dirudin larrosa ederra.
Zatorkidaz eskura
eruan zagidazan aintzezko zerura.
Neure odolak gudan gorrituko zaitu
eta nere altzuan atsedengo dozu.
Bijotz loratu ori,
zagoz neurekin beti!
Zeru eder aldian
min zara neu negarrez itun ikustian?
Ixildu da txorija, leun dabil axia,
eta larrosa altzotik tantada donia,
dardar... argizko dizdiz... ixarren antzera,
maite-malko bailitzan jausten da lurrera.

JAUNAGAN ATSEDENA

*Zeugan lotu arte, ene bijotzau
urduri dago...*

Zuretaz jardun neban, zuur eskar otsari;
zeure baitan nenbillan, an etzan neurririk.
Ara eltzeko ez nun burdi ta ontzirik,
nai bateri nenguan..., egiñak, nayari.
Goya zabal eguan larradi ganian
eta senti zindudan gauz orón bakian.
Dana ur-urrun zeunkazun: ixar, mendi ta lur,
ixate orren urrun, maitasun orren ur.
Banekijan zintzala, baña nun Jaun ori?
Argitan, eskutuba zeure egote ori.
Gustijetzaz azturik Zeugan jarri nintzan,
ikus nai zindudala gogoko ekintzan...
Griñetan ez zintzazan, ez atsegiñetan;
samiña idoro neban laket gustuetan.
Lorarik etzan iñon arantzatzu barik,
arantzetan eztago zeure maitasunik.
Munduko otsen barruban ezta zeure gentzik.
Sartu nintzan barnera: Gogo au artega;
Zeure egonak oso leundu eustan baña...
Nabaitu neban gentza... zerutar usaña.
Menak ixildu ziran, eldu zan goznarra,
argitu yatan sona, ludi au aldatu.
Toki orotan zintzan eskarrez loratsu;
zeuri orri dardara ta iluntzeko ixarra.
Zeure oinkada barik ezer iñon etzan.
Argi ta eder dira egin dozuzanak,
neurritz gauza gustijak daukozuz jakintzan.
Lurreko gureneta dager zeure indarra,
txikijentzako bere badozuz laztanak...
Batzuk dagerte ala, bestiak eskarra.
Ispillu barriz yakuz emeko gauz danak;
ikurrai soilik gagoz ikus zaituguzan.
Eta senti zindudan arren ludi ontan,
zeure maitasun ori urrun zan oraindik.
Oldozkor jarri nintzan idoro gurarik...

Bijotzari: —Badakik Urtzi jauna non dan?—
 —Ixatez ludi barna, maitez gixon baitan—.
 Sakona argitu yatan..., oro ulerkorra;
 igar neban gixonen barruko zadorra.
 Ulertu neban ondo umien begijak
 eskar orrek maitekor egiten dauzala.
 Abar ustclak arren, zeuri yagotzunak
 loraz orrillai barre egingo dautsola.
 Baña urduri nenbillan, artega gogua;
 izkutu batek dana jakin-nai narua.
 Eta barru onetan zetan zaran ari
 ulertu nairik, lotu nintzan' ameslari.
 —Argiz zagoz orotan, soñak barriz laño,
 zeurerik entzun ezin, oben otsak baño—.
 Nok igarri ondarrau? Ete nago itxurik?
 Neugan zagoz, ni barriz urrun zeuregandik
 Badakit baña zeutzat autu dozuzanak
 bijotzeko urduriz, maite zagizala,
 zerorrek azkon bixiz egiten dozula.
 Atsedeen neurrigian zeugan datzazanak!
 Zeure ate orretan emoyak artzia
 ots-egitia baño errezago dala:
 Billatzea baxen leun zeuri egotia.
 Zeugan maitatzen danik itxi biar eza;
 oro zeu zaralako, muin eta azala.
 Yagotzuzan danentzat arru bako leza,
 labangarri dan laba oben jarrallentzat.
 itxubentzat argija, illuna argijentzat.
 Zeure onari nagon, larritasun barik!
 dana baita orrako argizko bidia.
 Zeure laztanik gabe eztago lorarik,
 esku orrekandik at eztabil gizonik.
 Ludija dago zeure aintz-bidez betia.
 Atsedeen bijotz orrek, ez ixan urduri!
 Jaunaren zabalean lei orok ixuri.
 Betiko poza bertan, maitasun osua.
 Arantz begira lotu, aron dan gogua.

ARTZAI ONA

Jaunan ardi galdubak,
otzez mindubak,
bazka barik mendijan,
gosez artalde dana,
artzai laztana
ilta zugaitz ganian.

Intzez datorz ardiak,
ardi zurijak.
Yoranez eltzen dira
ilta datzan artzañak
jaki bikañak
daukozan jaupontzira.

Geure artzai samurra!
Goyan edurra
ta ibarrean ixotza.
Orón jaki epela
ixan daitela
zeure maite-bijotza.

Zeure gorputz garbija
geure jakija
ixaten da nekian...
Orren gozotasunak
orón itunak
ditzuliz eskerrean.

Jaunan ardi galdubak,
otzez mindubak,
bazka barik mendijan.
Gosez artalde dana,
artzai laztana
ilta zugaitz ganian.

Z A U R I J A

Euna tarrat-nenduban, arantza batean
neure maitasun billa jua nintzanian.
Josteko zeuri nintzan.
Joskillaeu ekintzan
lorapian zengozan zurezko aurkijan.
Eunduten zendun arin zapitxu zurija,
orratza esku-mjan, otzaran arija.
Gaste bat lotzen zendun zapiño garbijan;
txirula joten eta ardiak gordetan,
txakur mustur gorrija etzunik onetan.
Neska polita zintzan
joskillaeu ekintzan.
—Josiko dautzut pozik —zeuk, berba samurrez—.
Belaunbiko nixuzaizun, bijotza bildurrez.
Zeure atzamar miak buJarran ganiau
leunkirot sentitzian
mutil politari so-negijon dardaraz.
Oro nintzan azkuraz...
Laster uxatu zendun ain amets gozua.
Zeure bijotza dozun erruki bakua!
Yantzija josi bariku
leunki, bildur bagerik,
zulatubaz bijotza,
sakon sartu zeunstazun jostorratz zorrotza.
Eta neure soñeko tantatxu laztanak
gorri egin ebazan mutfillan españak.

MIREN'1 OTOYA

Gabonillaren 5'

Oben-zauri mingotsen
osakai bakarra!

Zeure maitasun orrek
dezeingu negarra.
Bijotz-ikaraz gagoz,
oi geure Neskutza!
Esker dizdiz darozuz
gogo ta gorputza.
Espan zerutar orrein
leuna gozartzian
itxarua sortzen da
oben itzalpian.
Geure samin artera
jatziko Onespena.
Arren, Ama, jadetsi
lixun-azkespena!
Didar dagin bijotzak,
Miren errugia,
egin zaituz zeruko
maitasun atia.
Zeure garbitasuna
geuregan ixuri.
Soin ta gogoz diraugun
garbi eta zuri.
Ama on, bijotz-bera!
gotzon atsegiña.
Begi orreik baitira
barneko urdiña.
Errugabe bakarra,
neure bijotz illa
itun zeugana dator
bakuntasun billa.
Orok ezesten daben
bijotzan malkua
altzo orretan dimintzut.
O, Miren gozua!
Jaunaren al-alamatza
ixadi gustija,
Maite-alamatza baña
zeure Sorkundia.

SIASKAKUA

Gojaskoeíxea'tar Joseba Mirena'ri

Galtzu ganian, lotan ixarra;
gixon gustijen ixar bakarra.
Izar eder orren maitasun izpijak
beraganantz daroz minduben begijak.

Miren'en ixar, bitxi-argija,
lo-aruan da ume zolija.

Maitasun-zale da kutuntxuba;
ene bijotzoi, lei onez búa.
Leunki, urratu naz, leunki beragana,
ta cspan-loretan, damotsat laztana.

Maitati lotan dago seintxuba.
Bere zereiña... amets goxua.

Neskutz zerutar baten emoya,
errukiz entzun neure otoa.
Belarri ondora samur itz-dagitsat,
Josu'k baña eztau berbarik neuretzat.

Maitasun zalez datorrenari
erantzun ez-ta maitale-egarri?

Oi, lo aruan dago aurtxua;
bere zereiña... amets gozua!
—Gurutze ganian eskeita dagola,
Tantaka emoten Jaungoikozko odola—.

Galtzu ganian lotan ixarra;
gixon gustijen ixar bakarra.
Maitati dago lotan aurtxua,
Bere zereiña... amets gozua.

ARTXANDA GANIAN

{Maoresque cadunt altis de montibus umbrae}.

Gabaren begijok, maitekorrak yataz,
Legunduten nabe!
Euren sakonean betirauna dakust;
Bairia ertz-gabe.
Bijotz mindu orrek, tolestu eguak
 onduan zadorra!
Barnera bil adi, gaba, alde oneitan.
 goyan artixarra.
Ene lei bixijok, orra gau sakona!
 Bixitz-izkutuba,
eure iiuntze ori ixango ete dok
 orren gentzatsuba...?
Gaba ixilik dabil-, argizko koroya
 darabil buruban.
Gotzonen eguak dardara dagije
 zeru oztintsuban.
Lugiñak etxerantz, idijak atzian,
 begitan bakia:
Zelai orlegijak damotsen bakia.
 Oi arrats donia!
Baserriko kiak urdiñera digo
 mendixka ganetik.
Itzalak baitiran gautxorijak datorz,
 torrezar aldetik.
Erroka txadonan kanpa-otsa dantzut,
 arana ixil beyan.
Durundi ots orreik mendiz mendi duaz.
 Otoyak zelayan...
Zugatzetan kezka barik ganduba da...
 Ta neure goguak
goznarrari miñez ekiten baidautso:
 Uler nai zadorrak!

Bitartian anei argi uri ortan
agertuten dira.
Alde oneitara bere elduten yaku
tximisten dirdira.
Uriko zaratak kezkatuten dabe
mendiko lilura.
Nora juan ete da txaide artetik
gentzazko lo-gura?
Uriko gau ori! Maltzurren laguna !
Baserri aldera
zetan eltzen zara, argi orrein kiñuz,
gaizkiñen antzera?
Zeure altzo orretan txerren danak duaz
Ian okerretara...
Ega-motz ertzakaz leyó danak-ziar
dagijen dardara!
Lixuna txaidian ixil-ixil dabil
lora zimel billa.
Loari murrrika etxe artietan
gastetxu zurbilla.
Gabaren eskubak ito dau lotsea.
Or dabil obena!
Il dabe gaizkiñak oraindiño neschutz
datzan onoimena!
Lañozko maindira zuriya baidager
uri zabalean.
Lausua ta kia toki gustuetan:
Bil nadin barnean!
Illuntze oztiña, gotillun nagotsu!
Lei bixiz bijotza.
Zer ete ditxarot? Samiñen bixitza?
Pozen erijotza?
Ona emen nago: Goxian so-dagit
sarkalde argira.
Arratsean barriz sorkaldera nago>
ixarren begira.
Au geure bixitza, atsedeen eziña,
jadetsi eziña!

Ezin batu doguz elburu batean
amets ta egiña.
Oi gau zerutarra!, zeure gai eztira
ludiko gíxonak.
Otsetatik urrun loratuten dira,
zeure zorijonak.
Une eder onetan, arren, itxi urija,
itxi ots gaiztuak.
Lei bixiz barnia, urrunera nuan,
iges begist luak...
Arrats bijotz-bera! Zeugan amets dagil.
Atseden bijotzak.
Ene!, orreik baxen izpi baketsubak
bekarz erijotzak!
Oztin begoz goyak, itzalez mendijak,
gogua bakian.
Ta itxaro ixarrak argi dizdiz begi
bijotzan barnian.

GOXALDEKO EDURRA

Atsegiña! leyuak zabal egitian
edur zuriz zelayak dizdiz ikustea!
Aldaturik dagergu ixadi amea:
garbitasun yantzijaz dago goxaldian.

Anai oi! leyora ator; Orra or alatza!
Ikusi zuritasun alatz amestija.
Edurren gogo leuna bai dala garbija!
Gaiztakerige dago zelaiko matatza.

Berak legez nok leukon garbirik gogua!
Dizdiz ori nok leukon bijotzan barruban!
Leyora ator, edurra atrapau eskuban:
bere mosuba otza, baña dan gozua!

Otzak goyan ebaita jausi dan lorea,
mirxileta antzera yatorku lurrera.
Ez eruan maitati espanen ganera
geure laztanak dira bere erijotzea.

Garbitasun mosuba artu dau edurrak.
gotzonak soilik dira bere laztanen gai.
Lora ganetan datza garbi baxen alai:
egorxu zerutarrak loitzen dautsoz lurrrak.

Edurra [soilik zatorz siaska ondora
eta lotan dagozan iltegijetara...
Umiak eta illak zeure izpi ixara
eztabe loitzen. Zatorz garbijen kolkora!

Oi edur-zuri! edur-zuri! edur-zuri J
Ikasbide zayataz bixitza onetan.
Garbi dirauzu beti ekaitz gogorretan,
arri ganian bere beti zara guri...

Edur ikasbidia ez aitzu, anaya.
Oñazez ixan arren, zadiz tolesgia.
Garbitasun ditziraz bego zeure etxia,
eta zeure gogua beti gotzon-gaya.

EZILKORTASUNA

R. Añibarro'tar fñior adizkiari.

Neure egunen gezija ilkorrari dago,
ezilkortasun-otsa baitot maitiago.
Zertako erijotza?

Itun diranentzat
atseden-toki, baña ez bixitz-zaleentzat.
Gerokuari bildur, beti Ixan'nai neuke.
Gauzak ileza barik ziyorik eztauke,
Egunak iges-eta ots-dagit barnetik:
Ez nagixu atara betiraun bidetik!
Neure zale orotan, Jainko edo Gixon,
mundu-oste danari nagokijo aron.
Jainko banintz ezneuke erijotz bildurra.
Aldijak ba soil desiz zeru eta lurra.
Urtziki gauza oro?

Ez, oro aldakor!
Gaur loraz daguana bijar baita legor.
Urtziki balitzakez, ixaki gustijak,
Zoritxarrena geuri!

Ezkara urtzikijak
aren maitasun-izpi edo mosu baño.
Ezilkortasun nairik Jaunguak eztauko,
betiraun osoena berbera dalako.
Ilkor danaren deyak neure nayok barriz;
Emen nabil deus ez-ta Jaungoiko egarriz.
Urriak baduazi, urratsik eztager,
Non galtzen dira-edo?

Albaneukaz uler!
Gixon-utz nazan arren eztot deuseztu nai:
Naikun oneik ez ete ezilkortasun-gai?
Ixatiari dagoz neure gurarijak,
ezilkortu albaneuz oldozkun gustijak.
Une gozo batean lo-iraungo baneuke
betiko ames oneik amets-egin arte!

Geruan ezer danentz zalantzetan nabil:
goguari min yakon arrisku onduan
jolasetan ibilli, oso baira eder.
Zegaitik darabilgu zale au goguan?
Goi-atiak jo-dodaz;

dana dagir ixil.

Itxas orren zabalán ontzirik eztager.
Ezilkortasun-billa lor ta atsekabez
adimenan esanak idoro nai dabez...
Gauz oneitan baña soil gagoz bijotzari!
Pozikago baigagoz itxaropenari.
Oi, ziñismen arroña bedi gogaikija!
Jaño-barik daguan ixarren argija.
Betirauna neuretzat argi-antzo baita.
Itzal-bildur naz, itzal erijotza da-ta.
Amayera bakarrik ete da geruan?
Gogai orreik ez begoz sano dan goguan!
Itun-beti, beti-itun onexek narabil.
Gero ezer eztala?

Arren, zagoz ixil!

Ona, betiraun nayez, Jainko gosez nabil!
Beragan biurtzeko ixate bidez, ez,
esi dagidan baño neure maitasunez.
An itxarrik dagiket amets ederrena,
Ta alkarren baitan ikus, asija ta azkena.
Urtzi besarkatuko neuregan nai-bidez.
Gomuta ezilkortu nai dabe gíxonak;
Zoruok, zuben opak eztira sakonak!
Ametsen ondartzetan uñen apar-tzale.
Ezdakusube gauzen ezerez-utzena?
Munduban ezilkorrik ezer ez, ezer ez:
Iges duan Itzala soñen jarraitzale.
Gustijak dagoz gexo erijotza-miñez:
Iñok ez dazauan min bixijak jo gaitu
Eta gorputz atalak ditxiguz bidian.
Sona jauskorra eta gogua goi-tzale,
aurka diran gauz oneik, nok osuan neurtu?
Lurra, lurra daukogu begijen ganian!

Edertasun-zirrintan digart betirauna,
Osuan baña nago, nai oneitan Jauna?
Geruan...? Joko auxe jokatu biarra.
Baña bixitz onetan geure betikorra
gertu geinke osoro onoinen bitartez.
Oraingo azi oneik geroko uztea,
irotasun artetik eztator lorea.
Gorrotoz barik nuan maitetasun-bidez.
Erain zidor orotan ezilkortasuna,
zauri baktotan leunki mosu bat ixuri,
etsayaren burura jaurti maitasuna.
Arantzak min-zaitubez?

Arrika ez lorai!

Arriskuban ibilli gentzaz, ez urduri.
Lakijorik ez jarri iñon oldozkunai.
Egiten dozun ona gerokora dago,
ondo egiñak ezauz oker eruango,
Zalantzan zaran arren, ezilkorra maite;
—zeozer geure baitan badogu betikor—
Gerora adi beti, urduri, oldozkor,
alderik onenera eratzatu zaite.

I T Z A R R I K

Miñezko bideetan lor batek narabil,
iratzartu baitat lotan zan gogua.
Dan zizta gogo au itzarrik erabil!
P'zin maite daiket gatzurren jokua...
Eginen uarkor darakust zuzena,
neurritz baña gixak *estau* bixi-gura.
Gozartu nai leuke gauz orón lilura.
Baña itzarrik ago, oi ene barrena!
Zergaitik diraustak lortuben barkua?

—Itzarrik, ta arrika lorai ete ago?
Esku orrek baiyok lepalpen geyago—
Orixe ostera nai neban igesi:
Barna lotan dala gustija baita utzi.

Ene barna orrek, bixitza onetan
lo-egin, lo-egin!

Ekintza danetan
sona bedi alde, ez baña gogorik.
Emaitz mota asko déme ametsetan:
Gogua lotan, nork urten al luditik?

Geure barna ixilik lotan dagonian
itzala ta gentzak baitira etxian.
Barneko giriñak duaz baña atara,
onbidian lapur:

Ostuten dauskube
loran zan mertxika, garan zan landara,
lorategi dana ondatuten dabe.
Bixitza onena lepalpen bakua,
orretarako lo daukagun gogua.

Argi barik guaz oro zapalduten
baña eztakigu zer dogun egiten

Lotan nagusija?

Galduba da jauntza!
Maitasun baratzan sartu da basauntza.

Miñezko bideetan lor batek narabil,
iratzartu bairat lotan zan gogua.
Samiñaren miña! orain ernai nabil;
begitatik juan yat betiko lúa,
begizkun leyora baiyagert gogua.
Badua eskuba yuaten lekura,
eta laster duler laketen bakura.
Orain griñai barik goguari nago,
sona guren bada gogua ariago.

Lo-eguan eta loitu neban oro:
Errota ebillan, etxia lausoro.
Lo-aldi orretan egin dodazanak
lepalduko daustaz gogoen Jaun danak?

Barnak zabaldu dau barruko leyua...
Oro argi dakust, sona dago ba ixil.
Miñezko bideetan lor batek narabil.
Iratzartu baitat lotan zan gogua.

ITXASORA !

Onaindia'lar A\bena'riy bijotzez

Soñutzik ontzi-punran, sakoneko lemazain₃
itxaso-barne nua zidor ezezaunen-gain.
Ondartzan oro laga! —arriskubak darraigu—
Lur-barri billatzale ametsa lagun dogu,
Liorreko lokatzok geure malkoz egiñak.
Arnas-artzeok, billau,

amaibako urdiñak.

Euren solas utzakaz gíxonak lotzen gabez;
Azkatasun oldiak ilten dira atsekabez.
Aurrera! Iparraldian edur-mendi ixoztubak,
eta ugarte otzetan laminen gaztelubak.
Emango zaitubet:

—eunak arro axian—.

Itxaropena bai'dot begi onein ganian.
Bide barrijak nai-dauz abendaren kezkeak:
Lar lurrari egon da.

Zabaldu ozertzeak!

Ekintza gurenentzat landa au dan zabala!
Izki-mota orontzat burdinori garbaia.
Geure itxaso gogorra, abendak maite zaitu!
Zeure altzora gatorz, lurra ba txiker yaku.
Indar irakasle oi,

kendu odei ta laño!

Balerik eztogu nai gogai barrijak baño.
Argizkorrija dager, urrezko yantzi-barriz.
Ementxe gatorkixuz jakintzaren egarriz.

Ametsik ezkenduban legorretan egiten,
uraren barna baña goyak doguz ikusten.
Geure itxaso gogorra!

Gogayen arraunbari,

Agur egiten dautzu itxaro argijari.
Soñak esitzen dozuz, goguak ariago:
Geuregan legez, zeugan, beti kezka bat dago
Sakon ori nok dazau?

Oso zara zadorra!

Ekaitz orreIn orruba koldarren bildurkorra.
Euzkuak soilik dabiltz altzo zabal orretan;
Imin dozu oldia euren begi barnetan.
Gudarijak dagixuz, berunezko bizkarrak.
Tente diran erruak, burni diran iztarrak.
—Gixonjale leyentzat jaki ziltzagilliak...—
Itxaso aundi orrek, zabal, zeru-atiak.
Erijotza or dabil, or dabil maitasuna.
Erri gogor onentzat, zeugan etorkixuna.
Odiseu barri gara, lamiñik ezta baña,
Emen sortuba ezta Aprodite liraña.
Geure abenda-antzo pioneer gaste gara.
Altzuan beti dozu irri baten ikara
Baña leoyen legez darresixu galparra.
Euzkoen itxasua!

Oldia eta indarra!

Aurrera, aurrerantza]

Ontzi-puntan soñutzik.

Axe orón mosubai bijotzak zabaldurik.
Ibillaldi au ezta bixitzan amaituko;
Bein ontziratu danik barriz ezta itzuliko.
Miñak lurtean itxi, begoz itun diranak.
Ilxaroz kezkatubak nai dabez geure lanak.
Zerubak argi dagoz, begoz pozez begijak.
Uñen ganian dabiltz geroko abestiak...
Barriro esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Irxaruak berua euzkotarren ontzija
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

U A R R A

«Bide-barriak» amaitu doguz. Batzuk arrika egingo dauste, beste batzuk goralduko nabe. Eztot gixonakaitik egin, Aberri-jagaitik baño. Olerkari nazala agertutiari enago, izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustiari bai, ostera. Or-an entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta, agertu dodaz.

Gastaroko neurtitzok eztira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan eztalako egiten. Geruago Aberrijari yagokozan neurtitzak egingo dodaz, Euzkadi Amaren maitasunak jo naulako.

Maitasunak sortu-azoten dauz neurtitzik ederrenak, eta maitasun-bidetan azkena barik, lenengua naz. Maitasuna, Aberrija ra Uskurtza ixan dira gairik ugarijenak olerkarijenzat, neuretza-ko be bardin. Ludiko gairik kurunenak onexek yataz. Jel-pian esituta.

Olerkarija barik Jeltzale benetakua nazala entzutiak, arse-
ginduko nau Euskeraz idazten dot, Aberrijaren izkuntza dalako. Soluan atxurretan aberrija goralduko nebala, uste ba'neu, laster itxiko neuke lan au. Urtzi'k begi-onakin ikusten daulako Abenijak goralduten diardubenen lana, kezka barik nabil.

Eta atsegin etxakonak, neure aurka itz-eginke, idazti eder bat argitaldu begi, bide ori dalako gixon argijena. Itz-egiteko bidian dagoz, euzkeraz idatzi dabenak, bestiak ez, lañaren neurrija, biar-egin dabenak dakilako.

Agur, eta Aberrija maitatu, Taungoikua'ren urrengo.

Egilliak

Arrats-beran
(1935)

ESKEINTZA

*Aranbaliza eta Castillo-Zumeltzu'tai
Ander'i, aizkidasun-sendagarritzat.*

E.'tar U.

AURRE-ITZA

Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde baktzak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorr eta barneko zugatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu.

Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik. Euzkeraz batez be! Erabilliak ixan diran izkuntzak bost jarrai-bide erakutsi dagiskegubez, baña ele onen iruliak gerau gara.

Arrokerijaren abotsai jaramon-egin ba-neutsoen, idazkiak ez-eukazuben, iñoren aburubak atzaldu dagikiezan akatzak eta bost neronek dakidazalako. Baña adibide bati gagokijozan. Aberatsaren semiak eskutau dagikez bere laukuak arein zain ezpaitagoz ogitarako. Txiruari etxagoko orren besterik.

Elerti-zale nazan onek ziarkeri ta pirtxilleritzat daukodaz olerkijok. Maisialarijak esango dabez esatekuak! Baña ele lander baten seme jayo nintzan ezker bertso nimiño oneik, be, argitara datorz.

Amaika bidar jagi ixan naz izneurtuben ala, amaika bidar, ostera, erri onenganako maitasunak olerkijetara nauzu. Elerti-zaliak ezetz, abertzaiiak bayetz! Nori nagokijoke? Bestiai txaluak jo edo noxian-bein sorayokeriz barre-egitia, cztijagua neuretzat iitzake.

Solasketan ibilteko bixija nozu, orraitino aberrijaganako larririk jaso nau. Agur, ba, seme xurrok. Elertirik etzaube babestuko, abertzaletasunak baño.

Erranak eder, egiñak lander.

NESKATXU GORRISKA BATI

Geure neskatxu gorriskea,
argi utsa don goiz betea!
Urre dozan artotzak,
zidar dozan errekek.
Geure neskatxu gorriskea,
zetan agon cguzkitara?
Dardai bixiz, eure maitale,
argi ori yatorn landara.
Eguzkija don cdertzale!
Geure neskatxu gorriskea,
noruntz galdu intzanatan?

Ene usoño zurijok,
zuaze aren billa!
Lili arteko ixilla
nastau egixube, txorijok!
Argizko goiz betea
aguan eder muñoetan!

Geure neskatxu gorriskea
galdu azanat eguzkitan!

ZELAYETAKUA

Zelaira dua neskatxa
—axia dabil loretan—.

Zelaira dua neskatxa
maitasun-kanta kantetan

Argi daukazuz begijok,
gorputza dozu liraña:
abestu daigun bi-bijok.

Abestu daigun zelayan
soin orren lili-usaña,
millazkaen antzo dantzan.

Zelaira dua neskatxa:
—eruak mur-mur loretan—.

Zelaira dua neskatxa
maitasun ona topetan.

Dantza-dantzari bedartzan,
ete gara udabarrian?
Ara txindor bi zugatzen.

Txirula ta danboliña
entzuten dira mendijan.
Zeruba dagon oztiña!

Zelaira dua neskatxa:
—ingumak dardar loretan—

Zelaira dua neskatxa
maitasun deuna gordetan.

Barre dagigun leunkiro,
barre auxe dan ixilla!
Tanbolin, abil, astiro!

Mendiko axe biguna,
ator zelaira lora-billa,
lorak eta maitasuna.

Zelaira dua neskatxa:
—axia dabil loretan—.

Zelaira dua neskatxa;
—urrettxindor bi kantetan!—

EIZTARI AUNDIJA

Albisu'tar Kepa'ri

I

Bai eder urten zala basora
bitxidor berdez!
Soñanzki ordez
goiz utsa jaurti eban lepora.

Zelan joiazan aren uztatik
beredin dardai!
Zugatz-adarra
etxaken geldi uso ederrik.

Mendiko ixiltzain zaran otsua!
Zeure zauriak
ziran gorriak!
Orru bat baño etzan basua!

Goxa janzkitzat soñuts-ganian,
bai eder zala
gaste garbaia!
Errege bat zan pagodi-pian!

II

Oyanak deitu euzan odehyak,
—goi-txakurdija—.
Eurein ausiia
atsegin dabe urtzi ayerlak!

Ezer bakanen baten eiztari
orrzi gustijak
suzko gezijak
jaurti eutsozan baso itunari.

Norena ixan zan ayots sotilla?
An zetzan illik
goxex jantzirik
atera zana ! Mendiko ixilla!

Eiztari Aundi, —zeure aztarra—
aran-ganean
uztai-antzean
estu eguan goiko ostadarra!

EZKONTZA-GOXA

Zaldi-otsak axian:
—urkijak dardari—.
Kanpai-otsak torrian,
—zuriz jantzi zadi!—.

Neskatxa zuriz dago
—ezkongei polita—.
Kopeta daukan eder
jazmiñez esira!
Levuan zagoz gertu?
Senargaya or dozu!

Zaldi-otsak axian:
iñor dator larri.
Kanpai-otsak torrian,
—zuriz jantzi zadi!—.

Estalkai zuriduna,
gonantza gorrija.

Or dator maitasuna
egadun lilija!
Arin dabiltz liparrak,
gordez duaz ixarrak.

Zaldi-otsak axian:
—galdu dira urruti—.
Kanpai-otsak torrian,
—zuriz jantzi zadi!—.

—Ene ama, ezkondu,
ezkondu gura naz.
Goiz-goiz erdija dogu.
enarak ba-duaz.
Itxasua dan urdin,
makalak egon-ezin!

Zaldi-otsak axian:
iñor ezta agiri!—.
Kanpai-otsak torrian,
—baltzez jantzi zadi!—.

BERTSO ZARRAK

Bixitzan
zoriontsu gadixan
biar dugunaren gauzeza!
Kanteak,
ardau-ontzizak
eta maitasun baten poza.

Abestu,
ontzi betia ustu
maite danarekin batean.
Barre-egin
eta ezpan-arin
muin bat ostu arrats-berean.

Argidun
berein gauza txukun
ludi onek daukaz grazian.

Ederren
ogei urte lerden
gorputz baltziskan diranian,
bixitzan
zoruntsu gadixan
biar dugunaren gauzeza!

Kanteak,
ardau-edontzizak
eta maitasun baten poza!

ETXE ORI!

Ollarren zidarrezko rurutak
goxaren bidietaz yatorzak!
Lotan zagozen egal zurijok
otsez bete egixubez lerdijok.

Etxeñoi, goxaldeko bakian
ederren ago areitz artian!

Garitzetan dardaiz dok argija
ta urrezko euritan yagok mendija.
Iturri baten txirula-otsak
musker-musker yaukezak artotzak.

Etxeñoi, egurdiko bakian
ederren ago areitz artian!

Ikus-eziñak dozan gotzonak
joten yuezak amets-kanpajak.
Gabaren begija dokan urdin!
Ego-ertsi, otoirik egon ezin!

Etxeñoi, gabaro argitsuban
ederren ago areitz artian!

ORAINGO MAITARIJAK

Bide luzez lagun ixan aut, illargi,
baña ire kiñurik baratzan etxagok.
Zidarrezko bitsa zaldijak jarijok
eta lora artian dana dok barreirri.

Egun-trukez goxak yaukokan saneurri
urre-duketa bati antza kendu dautsok.
Oxin-ertzan lokiz yagokan zalditok
osorik edan au? Or vatork ortzargi!

Erroma alai baten zaldiño gogorra,
azkar mendi orreik igaro egixak,
ostu yuaguk, ba, gabaren altxorra.

Irrintzi ta jauzkaz goxaren bidetan
neure Julenetxu'k dizdiz bekusazak
lau illargi zuri eure zangopetan.

BURTZANA

Bedar ezez burdija,
—arrats onen usaña!—.
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzana?

Lats-axia kantari
eta zumak dantzari.
Landa zabalen jaunoi,
burdi orrek darua
bideskako kirrinkaz
zelaiko gentz osua.

Bedar ezez burdija,
—arrats onen usaña!—.
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzana?

Lerdijak ez bijotzik,
ezta arratsak samiñik.
Zeuri adi neskatzak
itxi dabe biarra.
Akulu orren puntan
dizdiz daukozu ixarra?

Badar ezez burdija,
—arrats onen usaña!—.
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzana?

Gorri daukez gingillak
idijon burkoyalak!
Landa zabalen jaunoi,
—gentzaz burdi aztuna—
kirrinkaz ba-darozu
neskatxen maitasuna!

Bedar ezez burdija,
—arrats onen usaña!—.
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzana?

ESPETXETUARENA

Análarredtar Miren Terese'ri

I

Itxaso orren narru nabarra
pantera batena dirudi!
Espetxeko atezain zarra,
itxi nagik goxeko bidari.

— Tori giltzok, urrezko giltzok,
ta bete egikek itxas-miña.
Axioin egal-puntan daukok
iñok txastau bako lurriña!—

— Noiz arte lagako nauk azke
zidarrezko itxaso zabalán?—
— Azke az gura dokan arte
goiz ederroi maite dagijan!

i r

Neure maitiaren oñotsak,
—urretxindor ori, ago ixillik—
bide argijetaz yatorzak!
Atezaña, azke laga nagik!

— Tori giltzok, urrezko giltzok,
maitasuna yabilk landetan.
Esku zuriñan muin egijok
eta laztan bat begijetan.

— Maitasun pozkarri orrentzat
azke nabilkek ler artian?
— Zintzoro maite dagidantzat
giltzik etxagok espetxian!

III

Aberri amaren negarra
neugana yatork mendijetatik!
Espetxeko atezain zarra,
bein sollik azke laga nagik!

— Agur giltzok, urrezko giltzok,
guda-otsak dozak landetan!
Arren, itxi ondo atiok
eta galdu zaiteze uñetan.

— Baña aberri ama aldezteko
enauk itxiko kate barik?
— Eure erri ori azkatzeko
etxak iriko espetxerik!

SEVRES'KO MURKUA

Murko eder au nori, Dukeme argijoi!
Sévres'ko urre-sutan ar eban oztiña,
—euriz-gero daJ<uskun zeru-arte diña—.
Mun batez bemotsozu ezpanen gorrijoi.

Ta txistu eze orrek, artzain irarrijoi,
aintziran igiko dau kisñien pinpiña.
Abade gaste batek diño maite-miña
eta bere neurtitzak bai-dirudi otoi.

Neure egarrijen ura murkuan daukazu
garilleko urbelak dagerren gardenaz.
Ordez ixuri eizu irrijoin altxorra.

Eta ederkun osoz bete bemostazu;
edari zerutar bat bai'litzan edanaz,
ezpan oneik daukentangat ozko betikorra.

IZLAPURRA

I

Zortzi arraunlari barruban
—zidar utsezko arraun miak—,
izlapurren nagosi jaunak
ontzi zuriya arin eroyan.

Nok lekuan aren kantea
dantza eragiteko ixurdiai!
Kanta ori dantzun neskea
beti dago lillura leunai.

Itxasuan diran izpijak!
Zenbat uso-itzal goiz argijan!
Izlapurren nagosi jaunak
ontzi zuriya arin eroyan.

II

Kaya maite dozu, neskatxa?
Diz-dizko tantaz dozuz onak!
Gorputz eder orren bekatxa
nabaitzen dabe uin urdiñak.

Zortzi arraunlari barruban,
noruntz ete dua ixonizija?
Axioi, putz-egik eunetan
iradu dok, ba, goiz garbija!

Abestiz datorren ontzijan,
—ura bare, ortzia oztin—,
abestiz datorren ontzijan
nor aldendu daiteken urrin!

III

Ekin, arraunlari gastiok;
orain agertu zebeñ ala!
Zidar utsezko arraun miok
ebai begije itxas zabala.

Axoyalak axian duaz
ta onduan dantzan arrañak
Izlapurren kanta leunakaz
baretzen dira uin urdiñak.

Ontzi-puntan nagosi jauna
zein arin ixontzija joyan!
Urrunan zan bare leunena
eta iñor etzan kai ganian!

KANTA ARIÑA

Edanak
busti begistaz ezpanak!
Eder-min
betiko moskortu nedin.
Gauza danetan dakusat
barre ta kanten prisea.
Ba-yuat
soin gaste onen lorea!

Etzunik
edan daidan neurri barik.
Oindiño
soin onek mun-miña diño.
Arinka duaz urtiak,
baña pitxerra beti on.
Gastiak,
ezpanak legor ez egon!

Moskorra,
gabaren azken-altxorra;
bixitzak
ostuten daustaz jorrallak,
baña neure lagun adi.
Gastaro au galtzekuan,
gal bedi
edontzi baten kolkuan!

ITXASTAR GASTE BATI

A itxastar lerdena,
begi-urdir zana
jun yakun ipar-edurretara!
A itxastar lerdena
solo-jaube zan itxas-ertzian
ta sartu euzan berein landara!
Ur ta lur-zale ziran begijak
pozik eukozan baratz ganian
noiz sortuko, be, lili argijak.
A itxastar lerdena,
mayatzik leunena
loren lekatara
mosu samurrez eldu zanian,
a itxastar lerdena,
jun yakun ipar-edurretara!

N A R K I S

Ja-jai,
goiz abil alai!

Billoxik noruntz ua., mutil?
Altza-peko iturri gardenak
bere txirulak jotzen yozak!
Sugar ursetan berein pipil!

Ja-jai,
goiz abil alai!

Lamin-batza yagok uretan?
Goxeko axe ozkirrijak
dantzan yarabiltzak lilijak!
Zenbat ispillu zidarretan!

Ja-jai,
goiz abil alai!

Ur garbijan eure begijok,
ta lorak eure niñi-barnan!
Narkis, jausi barik errekan
soñoi argijegija baitok!

Ja-jai,
goiz abil alai!

Iturri-txirulak otsetan!
Begijotan zer daukak, mutil?
Muño ganetan berein pipil,
lorarik ederrena uretan!

Ja-jai,
goiz abil alai!

GOXALDEKO OTOYA

Goxaldeko otoa
zeureganuntz doya.

Orra larrosak
urrezko erlez.
Dantzan mertxikak
latsaen axez.
Nun don goiz argi?
Abarrak txoriz
piji-pijo-pi.
Goxa zugatzen
intzezko dizdiz.
Goxa don landan!

Goxaldeko otoa
zeureganuntz doya.

Mendi oztiña
laño zuriñan.
Itxaso-miña
axe-eun-ontzijan.

Nun dan goiz argi?
Kampakaz torriak
dindon ta dindan.
Ixo lausuak!
Goxa don garbi
eure irriparran!

Goxaldeko otoya
zeureganuntz doya.

K I Ñ U B A

(Cocteau'ri buruz)

Ixarño erriko ásele oztiña!
Bakalgayak loraz baitaukaz baratzak.
Mitxeleta iduri
dabil atsegiña.

Baña Erijo'k ain maite dauz loratzak!
Bakaltseña datza. Goxea zein eder,
ate bat, odol-lits,
ametsentzat dager!

Gentz bare orretan bakaltseña zurbila:
erle batek dausi loraen ederra?
Orra, laño-begiz,
Erijo ori dabil!
Erijo anderak kiñua bai ankerra!
Bakaltseñak: Nuan, Izpiñe'ra nuan,
antxe gorde nadin
lurraren kolkuan!

—Bakalgai, erruki; ekarzuz zaldijak,
zaldi azkarrenak axe mien lagun.
Erijo ikusiki
daukodaz begijak.
Gogua dot orain, gau-margoz gain, itun—.
Jaunaren zaldijak kanpuan irrintzi,
eta axia aulez
eziñik jarraiki.

Ibar-gentzan dardar, lurak ez, ostruak;
ta zaldijak arnas, aboz barik, ulez.
Urrun, oztiñaz bat
galdu zaldiñuak,
begi illunen bijak, gabaz ezik, autsez.
Arratsa dagon me, odol-litsa, urria!
Baratz-zale dua
bakalgai gastia.

Lora artian Andra Erijo ikusiki
esan cutson meki, itzak izpi-antzo:
— Ik, bakaltseñari
goxez keñu-larri?
Bildurrez ikusi yok eure azken-zantzo.
Eriio tokija ez neure baratza.
Emen soil il bedik
urrezko arratsa!

— Ene bakalgaya: eztautsot kiñurik.
Nabarizkua zan neure irri-kiñuba,
Izpiñe'n gaur berton otseña il biarrik! —
Urrunan, oztin zan, ixar-eun, zeruba.
Ta zaldi-oñotsak etziran entzuten.
Betazal bat legez
gaba zan bilduten!

ARTZAÑENA

Anaidiak be-beka duaz
arrats leun onen bidietaz!

Iturrijotz'eko lerdijok,
Uri-Zuri'ko bitxidorrok,
duazen ardihoi begira
lausotan dozubez begijok?
Bedar berde usañez beterik
landa zabal gustijak dira.
Muño-ertzetan eztago otsik
arran-ots artegak langorik I

Anaidiak be-beka duaz
arrats leun onen bidietaz!

Ixarren zain dagon basuak,
abarretan nai dauz usuak
ta begijetan muin dagitse.
Urretan datzan itxasuak
ego bako egadan azez
zugatzai murmur daragitse!
Ardi-nausi, labita pozez,
lorak dantzan txirula-otsez!

Artaldiak be-beka duaz
arrats leun onen bidietaz!

Ta artaldien ordu onetan
baserri-ertzeko landetan
artzain-maite diran neskatxak
pozkiro dagoz gorubetan.
Noren kantea dan beretzat
jakin gura leuke bakotxak.
Esan zarrak bctorz agorat
maite-begijen ezaugarritzat!

Anaidiak be-beka duaz
arrats leun onen bidietaz!

Bidetako arrats garbijan
bijotzak dagoz min bixijan.
Neskatxak diñoen kantea
dardaraz galtzen da mendijan.
Bere sakona nok ulertu!
Gentz betetan datza landea.
«Basoko artzañak akartu,
bertantxe gastayak agertu».

Artaldiak be-beka duaz
arrats leun onen bidietaz!

ABESLARI BATI

Eta arrats a baxen samurrik
etzan ixan levar mietan!
Aren soin ederra langorik,
iñoiz etzan auldu laketan.
Irri ta dantza-zale eguan
atzak marpilla baxen zuri.
Ta pijanu aren kolkuan
eun txindor ebiltzan urduri.
Bidaldi luzerako deya
esku artian ebilkijon.

Gauza argijenganako leya
crtzi ziar igasi yakon.
Bere Agur Miren zurija
Schubert'i ostu gura eutsan.
Esku arein dardar bixija
izpi-otsa zan ler-ostrotzan.
Alan geratu zan ixillik
kantarik leunena kantetan.
Eta arrats a baxen samurrik
etzan ixan leyar mietan |

J O S T A L L U B A

Gauza orotzaz itz-dagin
ezpan gorridun andera.
Odol-Iarrosen antzera
zabaltzen dozan mosu-min.

Eure itz-jarijon orrekin
egunak yaukok gelkera!
Urre-zar don arrats-bera
eta lerdijoi ereskin.

Nik, jaramon egiteka,
begizten aunat barreka
odeyakaz amesetan.

Baña jarrai egin karden,
eresa baiton ederren
andera baten *Itzetan*.

ESPAÑARTXU BATENA

Aprilleko goiz argijan
azkar etorran Rui-Albar.
Garoz ziran landak ziar
jaun ederren zan zaldijan.
Bide au dagon loratsu,
españartxu janzki gorri!

Gaimelur kolore bixi
itza lar labana dozu:
— Landan agon euzkotarño,
usotxu bat don ortzian:
atorn neurekin bidian,
zaldi ganian, maiteño.

— Españadiko españar-
zugatz-puntan ene usua.
Baso-bidez azkar ua,
kolore ederdun Rui-Albar—
Ondo entzunen ementxe
gaste aren berresana:

—Neure gaztelu gurena
litxaken eure jauretxe.
Zidar utsezko janzkijak
emonen dauznat dotetzat.
Amar neskame laguntzat,
argiz zarrak, gauz gastiak.

— Españar zaldun lerdena,
etxuat biar doterik.
Ezta jauregi ederrik.
Aski yuat aitarena.
Iru gixalan yaukodaz
larrosa gorri mayetzan.
Eun ardi zuri larrean,
eun ardi euren labitaz
—Baña mendarte oneitan
maitale onik eztaukon.
—Neure maitez milla gixon
kantaz yabiltzak landetan!

MENDIGOXALIARENA

Basaldufiar Kepdri

I

Mendi eze, ikurrin eder,
azke nai zaitut axian.
Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidori berdiok,
arin or duaz kantari:
«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunan»

II

Gastedi orren didarra
bai dala didar zolija!
Aberri baten saminez
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.

Or duan ozte-aldrea
aberri-minez kantari! ;
«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari».

III

Gaste orreik goruntz duaz
abesti ta ikurriñez.
Lañuan baña tiro otsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean.
Amar gasteren lerdena
bixitza barik lurrean!

Eta illuntzeko bakian
norbaitek darrai kantari:
«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari».

M U T X U R D I Ñ A

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan mutxurдин
poztu egik zurrut batekin.

Euki neban, antziña,
—a zan ezkontsari panpiña—
telia bako etxia.
Euririk etzan egunetan
antxe bai nebala topetan
egizko aterpia,
Aren nayeز eldu yatazan
senargai bi, bijak konkorrak.
Ardanetxeko zorrak
alan kentzeko esperantzan !

*

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan mutxurдин
poztu egik zurrut batekin.

Ardo gozoena edanik
zato batekin nintzalarik,
—ilgo al da betiko—
etorri yatan, bein, etorri,
mutil maingo, aurpegi-gorri,
nerekin ezkontzeko.
Maitasun zin asko egiñik
edan eustan zato gustija.
Ene ordi txarrija,
gero laga nindun bakarrik!

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan mutxurдин
poztu egik zurrut batekin.

Orain aukor euki, zatua,
—gatz barik ene lapikua—
samin danen pozkarri.
Artu nagik eure maitetzat,
emongo aut ezkontsaritzat
laztan samurra sarri.
Goxian goiz ardanetxera
bete-bete egunez aguan.
Ta gabaz sotonduan
sorgin ipuñak kantatzera.

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

OTSOK ORENA

I

Zidar-uledun otsoko,
ibai ori dokan zabala!
Beste aldian ba'engo
arkuma eukek jan ala.
Gose orrentzat bazkari
bildots zurijak yagozak
bedar ezian dantzari.
Metu egixak agiñak!
Zidar uledun otsoko,
ibai ori dokan sakona!
Sakerak yaukon ontzitto
ibairako dokan ona!

II

—Sakera, saker lagunoi,
pagua eder mendijan;
baña ire tayu lerdanoi
ederrago dok ontzijan.

—Neure otsoko potoko,
txorija eder egaizka:
ekar egistak usoko
ta iragoko aut arinka.
—Sakera, saker argija,
iru egi ixango dozak
eure lan orren sarija.
Igi egixak arraunak.

III

—Neguba baño leunago
udea yabilk baratzan—.
Urretxindor ori ago
kanta-kantari zugatzan!
Ibai erdijan båtela
au zan bigarren egija:
—Iñoiz etxuak upeJa
eure jarrai, moskortija—.
Beste aldia ikuturik
olan mintza zan otsoko:
—Lana ba'dagik dubarik
eztok jango ogitan asko!

IV

Zidar-uledun otsoko,
ibai ori dok sakona!
Sakerak yaukon ontzitto
ibairako dokan ona!
Otsoko eta sakera
alkarren jarki yabiltzak.
Ene artzain bildur-bera.,
bildots zurijak nun dozak?
Tarranpatan-tan, tarra-pan,
• —bare dok ibai zabaJa—
otsoko ba-yabilk dantzan
arkuma yok, ba, jan ala.

ONDARTZA

(Bixilza onek itxasua iduri)

Uñak jaurtiki bixitzara
bete baten itxartu nintzan!
Zein bidez nuake leara?
Galdu naz, galdu, neure baitan!

Zador baten igeri nabil
sentiki, ez ikuski, ura.
Zabal au begitzez ezin bil
ta nerau naz orren bakura!

Goguak zabal dauz begijak:
bakarrik enintzan uretan?
Emen igeri ume gustijak;
beso-oska bat dantzut uñetan!

Sona gei, baña ez gogua.
Uberaldi au nondik dator?
Azalez dan bake osua!
Nora narok, beraldi gogor?

Baña enedin auldu uretan
gentza yagok, ba, itxas-ganian
Natzan lotan zabal neurgian
erijotz-uin otzak naruan!

ITXAS-ONDOKOENA

Itxas-ertzeko maite-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

Kai argijak margoz beterik
ta ontzajak dantzan uretan,
arraunak, ego-ordez, zabalik.

Eme azan itxas urdiña!
itxastar orrein begijetan
nok jarri yok arrisku-miña?

Usain ta edari bakanak
batzen dabez kai gustijetan.
Muñentzat prest daukez ezpanak!

Itxas-ertzeko maite-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

Portu-aldeko gastarua
galtzori danen seme zara
ta ibilkorra dozu gogua!

Lurrera zatorzan orduban
barriz zagoz uñai begira.
Deiren bat dantzuzu barruban!

Orra or berein zapi zuri!
Agur baten uso-dardara
euren gora-berak iduri.

Itxas-ertzeko maite-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

Or ba-duaz urdin-ganian,
baña kayan dagoz maitiak
zapi zurijak atz-artian.

Alkarren zain egongo dira
itxaso ta liorrekuak:
oneik ur, areik lur-begira!

Bitartian portu-ertzetan
bakarrik andra eta umiak
zintzo iraungo dira lanetan.

Itxas-ertzeko maite-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

ARDUA TA ATSUA

Ajdua eta atsua
bijak damza-damzari.
—Ai geure lapikua
ur barik erre-bixi!—.

Atsuak arduari,
katuba dala
suteko ziñaldari:
—Ardo zargala,
zelan maite audan nik.
Nirekin ezkontzeko
eldu intzan Nabarra'tik.
Eldu intzan Nabarra'tik
ainbat zango egiñik.

Ardua eta atsua
bijak dantza-dantzari.
—Geure buzkentz gozua
katubaren janari!—.

Arduak atsuari,
sugarra dala
suteko ziñaldari:
—Atso mámala,
beste senar bat don ik
Eurekin dantzatzeko
ekar non ardetxetik.
Ekar non ardetxetik
aren praken trukerik.

Ardua eta atsua
bijak dantza-dantzari.
—Ene, bixar moltsua
erre yaka atsuari!—.

UDABARRIKO AUTORKUNTZA

Din-dan, baiendan,
elixako atetan
gixon bat dilindan.

—Zer egin dozu pekatu
pagoen lagun bakarra?

—Ote-lore bat triskatu
eta samindu dot larra.

—Ori eztozu pekatu.
Mendi-usañez eskubak
ezin daitezuz orbandu.
Zabalik dozuz zerubak!

Din-dan, baiendan,
elixako atetan
gixon bat duin dan.

—Zer egin dozu pekatu
ixarren izpi-zalia?

—Abo gorri bat laztandu
axe yatan, ba, maitia.

—Ori eztozu pekatu.
Neskutz-usañez españak
ezin daitezuz orbandu.
Zabalik dozuz zerubak!

Din-dan, baiendan,
elixako atetan
gixon bat dilindan.

—Zer egin dozu pekatu
piztijen etsai ankerra?

—Ene emaztetxuba urkatu
ordia zan, ba, ta alperra.

—Ori eztozu pekatu.
Odol gorrijaz eskubak
ezin daikezuz orbandu.
Zabalik dozuz zerubak.

Din-dan, balendan,
elixako atetan
gixon bat dilindan.

—Zer egin dozu pekatu
zelai ezeko anka-arin?
—Apez-ardua bukatu
axe bai yatan atsegin.

—Ori da, ori pekatu!
Parka-eza dan obenak
gogua dautzu orbandu.
Eruan zagiz txerrenak!

Din-dan, balendan,
elixako atetan
gixon bat dilindan.

Z E L A Y A N

Lora-billa neskea
larrarantza dua.
Bera loretan lore,
lore gorengua.
Ene maitia,
zelaiko galpidia!
Larratik itun dator,
itun, bai, neskea.

Miñez dozu barrena,
negarrez bijotza.
Bijotz barruban dozu
arantza zorrotza.

Ene gaxua,
illun dozu gogua!
Zeure matrail-lorea
zimeldubaz dua.

Lora-billa neskea
larrarantza dua.
Lora-billa jutian
galdu dau gogua.

Ene maitia,
zelaiko galpida |
Loretan lore zanak
galdu dau beria.

MAY ATZEKO GURUTZA

Mayatzeko gurutz donia,
baserrijetan jaya zara.
Lora barriz azan bidia,
zuzendu nagik ermitara!

Mayatz-axioi, geldi ago!
Loraz, eder, latxin gustija,
baña gaste dan a ariago.

Batan-usañez kutxan dauka,
kutxan dauka gona gorrija.
Oi, atera egin lasterka!

Gona gorri, burzapi zuri,
zein lirain aznat iduri
alai abiliñan neska-barri!

Mayatzeko gurutz donia,
baserrijetan jaya zara.
Lora barriz azan bidia,
zuzendu nagik ermitara!

Onetsirik dagoz zelayak:
soloz-solo apeza ibilki
esan dauz oi diran otoyak.

Baseleiz-gorako bidiak
tanbolin; orrek zein ederki
pozten dauzan. Ots maitatijak!

Gastaro, eder dan lorea,
eugaz yabilk mutil-kantea,
ta neskatxen dantzaketea.

Mayatzeko gurutz donia,
baserrijetan jaya zara.
Lore barriz azan bidia,
zuzendu nagik ermitara!

Senargayok, arin mendira!
Mayatzeko Gurutz deunetan
gustijak maite-mintzen dira.

Amasei jorraidun neskatxa,
—egak dozan orkatilletan—.
Axe miak daunan bekatxa |

Gona gorri, burzapi zuri,
maitasuna dautsan norbaiti?
Pozez abiln dantza-dantzari!

Mayatzeko Gurutza donia,
baserrijetan jaya zara.
Lora barriz azan bidia,
zuzendu nagik ermitara!

ZIÑISTE-BAKUARENA

Igande goiz au landa-gain dager^
—egal urdiñak dardarka airian.
Zugasti, itxartu barri, bai eder!
Kanpai-otsa zein karden axian.

Gauz orok dauke Jainko betia;
arnas deunak muin dautse niñijan.
Oi latxin zabal orren bakia,
neure oroi au galdu bedi eugan!

«Ziñismen neure begija zanian
goiz oneik euken argi biguna!
Baña bein barna lañotu yatan
eta inguruban dodan illuna!»

Odei zuri bat —itzal baltziskaz—
bedar eze-gain bai samur dabil!
Muga leunenak aurkintzak daukaz
ra artotza an dago, ez ots, ez ixil.

Barne ta kanpo Jainko aztarrak,
baña ilda daukot fede dirdaya.
Soil maite dodaz latxin ta Ierrak;
itxas urdiñak dauken alaya.

Eta goiz garden onen bakian
barriz ots-dagit, au ots bixija! :
«Barne ontan nok senti zeinkian
samin ta poza azan begija!»

IRU ZALDUNAK

Irisarri'tar Joseba Koldobika'ri

Goiz utsaren zubi zabalaz
iru zaldun argitan duaz!

«Atsegiña dok bixitz-muina»
esan eban zaldun zurijak.
Leyar landuzko ontzi mioi,
malko-antza yaukok arduak!
Eta goiz-zubitik jaustian
ardo z busti euzan españak!

Goiz utsaren zubi zabalaz
iru zaldun argitan duaz!

«Emia dok ludiko poza»
zaldun gorrijak esan eban.
Bere mosu leunen ederra
urre zarra dan arrats mian!
Ta usañez españak eukozan
goiz-zubitik jausi zanian!

Goiz utsaren zubi zabalaz
iru zaldun argitan duaz!

«Aberrija dok zorun utsa»
zaldun berdiak ots-egijan.
Burnizko ezpaten dirdiraz
berein gixon ziran mendi)an.
Eta goiz-zubitik jaustian
aintzak muin eutsan bekokijan.

Goiz utsaren zubi zabalaz
iru zaldun argitan duaz!

BOLUTXU ZURIJA

Bolu-bolutxu zuriya,
—zamarijen txilin-otsa—.

Boluxtuko goiz argija,
errotarrijen dunbota!

Andaparan ura dago
—zidar-litsa makal-artez—

Errotarime lirañoi,
ain zuri zagoz uxunez!
Iri egixuz atiak,
ura dabil, ba, lasterrez.

Bolu-bolutxu zuriya,
—zamarijak emen dira—.

Boluxtuko goiz erdija
zamaldunak or begira.

Eio bolu orrek, eio,
baratzan dabil axia.
Errotarime lerdenak
zangorritz dauko ulia.
Zidarrezko kiridunoi,
arinka yabilk unia!

Bolu-bolutxu zuriya,
—zamari-otsak urrunan—.

Boluxtuko illuntz argija,
ixarrak dagoz urdiñan.

Bolu-bolutxu, zer dozu?
Egaz dabil arranua.
Makal-arteko bidcxkaz
zerran igesi bikua.
Zidar-litsa zein nimiño,
boluba gelditzen dua!

Bolu-bolutxu zuriya,
—orra or ixar dirdira—.

Boluxtuko gau argija,
zamaldunak galdu dira!

LANGILLE ERAILDU BATI

I

Ene Bizkai'ko miatze gorri,
zauri zarae mendi ezian!
Aurpegi balzdun miatzarijoi,
acor pikotxa lepo ganian.
Lepo ganian pikotxa zorrotza.
eguzki diz-diz ta mendiz bera.
Ator bideskaz, —goxa sorbaldan—,
kezko zeruba yaukon olera.
Opor-otsa dok txaide zabalán,
—ukabil sendo, soñanzki urdin—
Jaubiak, barriz, nasai etzunda,
laguntzat auke, i, urrutizkin.
Aurpegi balzdun miatzarijoi,
ari bitartez deyak yabiltzak.
Bideskan zelan dirdir yagijek
txapel-okarren kapela baltzak!
Orreik yaukoen gaizkin-itxura
zizpa luziak Jepo ganian!
Ene Bizkai'ko miatze gorri,
zauri zarae mendi ezian!

II

Mendiz bera Iau txapel-okerre
aurpegi balzdun miatzarija.
Begi baltz orreik sastakai dozak
baña zatitu ezin esija.
Noruntz aroe esku-lotuta
burni margodun gorputz gogorroí?
Sendua ba'intz, etsai-odolez
bustiko eunkek pikotx zorrotzoi!
Nerbion-ertzok, —tranbi-dardara—,
azkatu naye, zenbat alegin!

Baña olaen zarata artian
aren ayotsak aditu ezin!
Zizpa luziak sutan yagozak,
—opor-zaratak txaide zabalán—.
Aurpegi balzdun miazarijoi,
igeri adi euren odolari...!
Txapel-okerrak edango yabek
ardao onena Gomez-etxian.
Ene Bizkai'ko miazte gorri.
zauri zarae mendi ezian!

ARTZAIN BATEN ERIJOTZEAN

I

Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daikez aldian?
Zidarrezko bost sastakai
zeure itzak dantza aldijan.

Lapur-gaba baltz onetan
zaldi zurixka arin ua.
Artzain: zer dok begijetan?
Erijo'k ete ama?

Espa urten yaken lerdijai;
a zan espa gau baltzean!
Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daikez aldian?

II

Urmn zara, urrun mendija,
borde ori urrunago |
Soil dator zaldi zurijsa:
zeure jaube illa nun dago?

Arin zuaze ler-barna
pagoen itxal baltzera!
Ixarro, bedartzak barna!
Artzañorak, lats artera!

Zelan iretargi-izpijai
barre egijen lur ganian!
Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daitez aldian?

III

Saspi arratsez ardiak
ekin eutsen negarrari.
Saspi goxaldez tordantxak
ekin eutsen ixillari.

Orok negar egin eutsen,
orok, neska batek ezik.
Ura joian negar baten,
lorak ziran zimeldurik.

Uda zan arren, bai nasai
zauririk ez aragijan!
Zidarrezko bost sastakai
sakon eukozan ariman!

ETXEKO ALABEA

(Aita nuen saltzaile)

I

Arrats-autsak daukoz bidiak |
Lau zaldun datorz España'tik
Mairu-erriko mairu baltzak
zidar eta urrez zamaturik.

Lau zaldi zuri, ugel gorri,
zidarrezko aukoz bitsetan.
Arin-arin, axia iduri,
eguak daukez zangoeran.

Zidar eta urrez zamaturik
lau zaldun datorz España'tik.

II

Etxeko alaba liraña,
itxi eyozu dantzeari.

Txirula alai dabil, baña
eder zayakoz mairuari.
Jantzi zadi gonantza gorriz,
zaldi-otsak dira landetan.
Zagoz lirain, aurpegi argiz,
irrizko lorak ezpanetan.
Itxi eyozu dantzeari,
eder zayakoz mairuari.

III

—Neure alaba, ez negarrik;
ondo saldu zaugu dirutan.
Berreun urre-dukak arturik
eta saspi dupa eztitan—.

Lau zaldi zuri, ugel gorri,
mairu-errira zailu duaz.
—Txiribogin: ardua neuri,
edontzi au bete naparraz.

Berreun urre-dukak arturik,
neure alaboi, ez negarrik!

MA Y ATZEKO KANTEA

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian !

Lora-erditze leuna dauko
euri-maitale zan latxiñak.
Eta irustatzak, apez antzo,
buruban daukez purpresentak.
Gari goiti ta arto musker,
nok jarijok ainbeste atson?
Sasitzak eurek zein eder!
Baña gogai au ezin-egon!

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

Samurki dabiltzan axiok
kantari dirautse bidian:
«Tori usañezko egalok
latsak laztandu dagixuzan».
Ta begi-zabal dan loreak;
«Ago beti neure maitale,
oraintxe dira mayetz-pestak
ta abarrak dagoz txinta-zale».

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

Beretzat eztago zugatzik,
naiz ta loren eztegu-iduri.
Sagardi orrek, zer dagik
ezkonbarri bat legez zuri?
Neure gogai au egaz dua
oyanak baño urrunago.
Naikun bixi batek darua
ta atxillotuko daunik eztago-

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

Baña zeure balkoi ondotik
dardar igarotzen danian,
mauak irri dagitse pozik.
Egal-otsak dabiltz airian!
Orduban bai geratzen dala
zauritu dan uso bat legez!
Mayatzeko elai apala
txirrika dabil zeure ederrez!

•
Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

TXO MOSKORTUBA

Itxastarren barre-zantsuak
txo arek edan baitaruak!
Ez, ez egik edan paitarrik,
gorputz baltziskadun urrua!
Illundu yak begi-unia
eta eztakuskek zerurik.
Auxe *samiña*,
yanzki medun txo panpiña
ta zut egon eziñik yagok!
Itxas-otsuok,
kendu orri paitar-laketa,
ara-onaka yabilk eta!
Dantza ta dantza, lotu barik
ixai zauritu bat yirudik.

Bere keñubak dozak Ioyak!
Ontzi-gibelan kentzen yozak
alkondara ta parka urdiñak.
Auxe samiña,
itxastarren barre-zantsuak
txo arek edan baitaruak!
Zer dok bare arrats oztiña!
Eta soñutzik
urtzi eder baten antzera,
begi bijak lausoz beterik,
jausi yakuk itxas-barnera!

TXIRIBOGIÑAREN ALABEA

I

Txiribogin-alaba ori
bai eder edontzi artian!
Gixonak dedaten unian
ezpanetan dozun barreirri!

Irri orrek illundu daike
goxez argijen dan eguna.
Ura ba'litz zeure ederkuna
iñor, be, egarri elitzake!

Baña askotxuk edan nai zaitu
ta odol bigurtuko da ura.
Giriñak dauken aizto-itxura
zeure irrijak, ba, metzen ditu.

II

Itzal balzdun ordi mindubak
jokuan dabiltz mai-ganetan.
Gau ta egun daukoz kartetan
zeureganako maite-miñak.

Ardoz ez, moskorti, ederrez,
abesten dabez kanta loyak.
Ta tinko ditxaro bakotxak
irri orrein jaube ixan naye.

Baña napar-ardua baño
tabernereak eztau saltzen.
Moskorti ezta iñoiz egoten
berak barnean daukon maiteño.

III

Norentzat baño ete dira
samin utsa diran irrijak?
Airian duaz edontzijak!
Bixi dabil aizto-dirdira!

Zenbat neke-ots, zenbat oyu!
Lurrera jausten dira itzalak,
moskortijen itzal mindubak.
Danak dagoz zauriz urratu!

Odol-litsa datza tabernan
maitasun-oben bat iduri.
Tabernerea barriz leunki,
irripar dago ontzi artian !

BEGIEN OMENEZ

Galai-galaitxu,
—mertxikondua dago loretsu—:
maite-min diran begi argijak
eztabez biar zeure gezijak.

Maitagar dabil kantari
—tinko urrezko uztaya—
pinpilinpaxen eiztari.

Oi, egadun aur itsuba,
jaurti egixu dardaya,
irrijen dardai sutsuba i

Galai-galaitxu,
—bitxidori dago argitsu—:
maite-min diran begi argijak
eztabez biar zeure gezijak.

Ixil zagoze zugatzok,
axioi abil leunkiro
naspildu barik ametsok!

Maitagar dua eiztari:
baña neskatzak mekiro
eragin dautsa dardari.

Galai-galaitxu,
—ollar gorrija dago arrotsu—;
maite-min diran begi argijak
eztabez biar zeure gezijak.

—Dardairik gabe, neskutza,
zauritu dozu, zauritu
Maitagar aurrant gorputza.

Abestu alai, txorijak I
Oi zelan diran ñirñirtu
neskatil aren begijak!

Galai-galaitxu,
—baratz osua dago usaintsu—:
maite-min diran begi argijak
eztabez biar zeure gezijak.

AMAYUR GAZTELU BALTZA

(Y ese castillo de Maya
que el duque me lo tenía).

Antzólritar Joseba Mirena³'n, maitez

I

Amayur gaztelu baltz ori
—berreun gudari oso sumin—
zaintzen zaituben zaldun onak
Naparra-aldez egin dabe zin.

Izkillu gorriz zenbat gaste
bildur-bako menditar lerden.
Eta orreik, Yatsu jaun orreik-
Jabier'eko zaldun guren.

Ikurrin bat —kate ta lili—
torre goitijan zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi onetan ezta jayo.

Amayur'ko ate-zain orrek
zidar-turutaz oyu egik.
Baztan ibarran zenbat etsai,
arrotz-gabe eztago mendirik!

II

Esiturik Amayur dauko
Miranda'ko konde Españarrak.
Orreik bai burnizko janzkijak,
ta urrezko ezpata-sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Lerin'go eto orren semia.
Txakur txarrak jango al abe,
erri-bako zaldun dongia.

Goiko aldetik asten dira,
asten dira subaga-otsez.
Orma-kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak airez j

Baña torrean zabal dabil
ikurrin bat —kate ta lili—.
Nok zapaldu ete dagikez
berreun gudari orok zoli?

III

Amayur'ko gaztelu baltza
—iausi yatzuz torre goitijak—.
Baña, arrotza, etzadi geldu,
napar-sume dira gustijak.

Arresi gorri, zubi ausi,
—zein gitxi diran zaldun orreik—
Erijo, samurño zakije
aberrri-min baitabiltz eureik.

Miranda'ko konde gaizto orrek
jo egixuz zidar-turutak.
Ikurrin bat —kate ta lili —
eztau laztanduko axeak.

Berreun gudari oso sumin
gaztelu-pian dagoz illik.
Ordutik ona —zenbat laño—,
Naparruan ezta aberririk.

Arrats-beran deritxon idaztian datozen olerki batzuk «Euzkerea» ta «Yakintza» aldizkarietan be agertu zituan. Ez dira asko, baiña aldakuntza motz batzuk ipiñi euskuzan eurotan.

Bederatzi olerkiok dira aldizkari biotan ager-azo zitunak: «Burtzaña», «Izlapurra», «Bolutxu zurija», «Langille eraillu bati», «Artzain baten erijotzean», «Etxeko alabea», «Txiribogiñaren alabea», «Begijen omenez» ta «Amayur gaztelu baltza».

Ona aldakuntza batzuk:

Burtzaña «Euzkerea»-n argitaldu eban, baiña ezer aldatu barik.

Izlapurra be bai (Euzkerea, 1934, E.J., 87 orr.), ezertxo be aldatu bage.

Bolutxu zurija «Yakinlza»-n dator (1934, loreil-garagarrilla, 174 orr.). Aldaketa txiki batzuk: «Yakintza»-n, irugarren aapaldian: «zamaldun bat or begira», ta «Arrats-beran»: «zamaldunak or begira». «Yakintza»-n, zazpigarren aapaldian: «orra or izar diztira», ta «Arrats-beran»: «orra or ixar dirdira».

Langille eraillu bati «Euzkerea»-n daukazu (1934, orrilla-bagilla, 154 orr.). Itz baten aldakuntza: «Euzkerea»-n, amargarren lerroan: «soñanzki ostin» eta «Arrats-beran»: «soñanzki urdin».

Artzain baten erijotzean «Yakintza»-n dator (epail-jorrall, 1934, 87 orr.). Bietan bardin.

Etxeko alabea «Yakintza»-n daukagu (agor-urru, 1934, 338 orr.). «Yakintza»-n, azkenengo aapaldian: «neure alaba, ez negarrik!» eta «Arrats-beran»: «neure alaboi, ez negarrik!».

Txiribogiñaren alabea «Yakintza»-n agertzen da (1935, ilbeltz-otsailla, 22 orr.). Azken aapaldian, «Yakintza»-n: «Odol-lits bat datza» ta «Arrats-beran»: «odol-litsa datza».

Begijen omenez «Euzkeroa»-n dator (1934, urtarrilla-otsailla, 16 orr.). Aldaketa txiki bi ditu: a) Lenengo, laugarren, zazpigarren eta amargarren aapaldietan, «Euzkerea»-n *dagon* diñon lekuan, «Arrats-beran» *dago* diño, eta b) seigarren aapaldian, «Euzkerea»-n *leunkiro* jarri eban eta «Arrats-beran» *mekiro*.

Amayur gaztelu baltza «Yakintza»-n daukazu (1935, epail-jorrailla, 102 orr.). Aldakuntza barik. Idazkera, ostera, emen eta beste iru oneitan: «Bolutxu zurija», «Artzain "baten erijotzean» eta «Txiribogiñaren alabea» deritxoenetan, Sabindiarrena barik, Euskaltzaindia'rena darabil.

Mayatzeko Gurutz donla «Euzkadia»-n daukazu (1934, orrillaren 6'an, 12 orr.). Aldakuntza barik.

—OLERKARI BATI—

(LAUAXETAK «ARRATS-BERAN» irakurri-ostean)

I

Oroituko zera noski... Udaberri-egun batez
bidean alkar ropatuz, lotu giñan maite-katez.

Parnaso-bidean gora, neke-izerditan nijoan;
eldu nintzan pagadira, t'eseri iturri-ondoan.

Laister an ziñan zu ere, gazte ta ametsez betea,
eskuan zenekarrela garaipenaren lorea.

Olerkarien koroia jarri zizuten buruan,
ta txaloz sartu zinduten euskal-Parnaso-barruan.

Geroz etzaizu zimeldu zure garaipen lorea:
geroztik dizditsuago zure koroian urrea.

Eder-miñez gaxotuta jo zendun urduri egan,
zure miña senda nairik gallurretako aizetan.

Murgildu zenitun egak euzkiaren goi-argitan
t'eres sorgin izkutuak gauai ostu kolkotikan.

Zure kanraz baso zarra dar-dar jarri zan orduan;
txorik esna, ta asi ziran kantari zure inguruan.

Maitez zauritutako uso urrumakorren samiñez
sartu ziñan bizitzaren baratzean berriz miñez.

Ta maitasun-bide-ertzean eseri ziñan egarriz,
ta ikus zenitun maiteak ase-eziñaren min larriz.

Maitaleen Iore-barnean ikus zendun ar zikiña,
ta urrezko maite-edontzian nasturik ezti ^ozpiña.

Zure maitale kutuna etzenduan arkitu iñun...
Eder-iturrietaño ega ziñan biotz-illun.

Zure biotz-irudia zendun irarri kantetan
bitza-zatiak bertan lagaz bizik odoletan.

II

Gaur jostallu ta urduritsu. mitxirikaren antzera,
bitza-loretegian, olerkari, sartu zera.

Loraen alkar-izketak entzun dituzu arretaz:
bitza gantzutu dezu arratsaren malakoetan.

Loretegiko esian arrats-beran eseriaz,
ikusi dezu igarotzen giza-gurdia kurrinkaz.

Ardo-satoak eskutan, poz-irrintziak airean,
odol-tanto, lore igarrak gurdi atzetik bidean.

Zure barnetik kanpora jo dezu gaur, olerkari,
bertso arin jostallutan gizarte-eresak kantari.

Lurrak bere beatz leunez ikutu dizu biotza,
ta irauli bertsotara zuk, lurkoi poza ta mingotza.

Begitan josi zaizkitzun lurkoi bitza-argazkiak,
kolkotik irten diruzu biurtuz kanta biziak.

Beren ega ñabar-meetan dakarte bizi-dardara,
kabi-ertzean ama-zai txorikumeak antzera.

Eder-izpien dirdira dute luma nabarrean,
euzki-izpiena arrats-beran, odeiak duten antzean.

III

Olerkari, zure kantik sartu utsez nere gelara,
utzi dute usai gozozko alako ikuttu-dardara.

Izkutuzko ots eztitxo bat entzuten diet kolkoan,
ta azi mardulak ikusten dizkiet ega beroan.

Gutxik nabaituko dute zure lañaren sakona:
gutxigok egingo die zor zaien abegi ona.

Aiskide, ez dio ajolik: zure kantik uxa gora...
Zure kolkoko txoriak bialdu euskal-basora.

Nik bezela, aiskide batzuk, irikiz gela-leioa,
emango baitiegu aterpetxo bat goxoa.

Egoetan daramaten azia noizpait lurrean
ez ote da emaituko elurra urtutzen danean?

Txoriño egalariok, ekin txioka basoan,
t'egal-ikuttu goxo bat utzi dardaraz gogoan.

JAUTARKOL —Jauregi'tar Koldobika—
Anoeta, 1935

IDAZKI-ANTZO

Olerkari ospetsu orri, agur:

Zeruetao Jaun onak ordainduko al dautsu olerki orren bitartez egin daustazun agurra. Biotz zabala daukozu. Aspaldiko gomutapenak dakarkidazuz eta arein ezti zarrak gozozten daustaz ezpanak be. Errenderi'ko urai! Orduz gero zenbat oinkada egin dodazan bide ezti orreitan! Zure bertso guzti orreik biotz-barnean dodaz, baña e2tizkoak dira: «Gutxi nabaitu ko dute zure lañaren sakona -, gutxigok egingo die zor zaien abegi ona». Gutxi edo asko, ajolik ez. Neure olerkiak eztira erriarentzat egiñak, gitxiago literato ixun askorentzat. Euren lanetan «ketz» edo «kotz» jartzen dabela-ko, edo euzko-aditzaren sakonak dakiezalako, literato jatorztzat euren burua dauke. Gaixoak! Iñok ezagutzen eztaun «zera» batek literatoak berexten dauz.

«Odi profanum vulgus et arceo.
Favete linguis, carmina non prius
audita Musarum sacerdos
virginibus puerisque canto»

Baña abegi ona egin dautsenak be ba-dira. Gure «Orixe» ats eta ots aundiko elertilari bakanak, eskutitz ederra bialdu eustan. Aren alabantza batek beste askoren aginkadak baño geiago baliyo dau! Eta Estefanía Aba? Aren esanak begininetan dodaz. Aspaldiko olerkari jayo batek, «Satarka»k, bere poz-agurra bialdu eustan. España'ko izparringiak eurak be Euzkadi'koak baño lenago goraldu dabe neure lantxoak. «El Soben idatzi eban Mourlane Mitxelena jaunak. Berari dagokionez, gero! «Erletxue» azkarraren gorablenak eskuarteon dodaz. Beste guztien ixillak ajolik eztaust egiten.

Guzti au arira dator, ez artobero usañez. «Zure kantak uxa gora» idatzi dozu. Bai orixe! Bide bat artu neban, antxiña artu be: euzko-bidea. Lotua ta mingarria zana ba-nekian, orraitio enaz bazterreratu. Idazle guztiak aurka jagiko ba'litzakidaz be, bide orretan ibilliko nintzake, Aberriarren bai nabil.

Neure kantak uxatuko dodaz, beti goruntz uxatu be. AJ-perkerirako sortua nauzu ta olerkirik eneuke egingo, baña izkuntza goxo oni lagundu bear yakola barnean sartu yat eta ekiñari nagokio. Eta zeure antzeko olerkariak lagun diranean !

«Nik bezela, aiskide batzuk, irikiz gela-leioa,
emango baitiegu aterpetxo bat gozoa».

Zer geyagorik eskatu daiket? Irugarren bertso idaztia laster argitalduko dot. Eun ijeki baño eztodaz eginen eta ijeki baktotxean zenbakia ta eroslearen izena. «Odi profanum vulgus». Eta «vulgus» askotxo dira. Geroari begira nago. Osasuna ba'daukat, ogei olerki idazti itxi gura neukez. Gaur arte iñok egin eztauna ! Orretarako adorerik daukadanentz? «Maiores vidimus». Beti aldatz gora ibilli naz ta oituta nago. Bideko txakurren ausi ta otsak enabe bildurtuko. Arrokeria ezta; neuregan tinko nago, sinismena baitaukot, ez besterekiko, neurekiko baño.

Gañera esker txarreko asko dozuz. Mesede bat eskatzera yatortzuzanian, apalkiro urbiltzen dira. «Auxe egin dot eta goraldtu egixu». Eta goraldtu ba'yuakiez, mesedeak egiten yakez. Baña ordezkorik eztago. Oitura txarra dala ezteritxazu? Amandreak eurek be, odolosteak artzen dabezanian, ondo dakie ordezkoa eukiko dabela.

Beraz, etzadi kikildu. Arrokerizko jantzi baten bildurik nabil. Geroa... gero!...

«Iustum et tenacem propositi vim
non civium ardor, prava iubentium,
non vultus instantis tyranni
mente quatit solida».

Orati'ren lagun naukozu. Neure etxeko lcyoak zabal zabal dagoz eta txori egalariak urtengo dira. Baña zuek be etzadize ixillik egon, «Jautarkol», Satarka, Tapia-Pcurena, Arrese'tar

Erneten, «Endaitz», «Orixe», Muniategi, Enbeita anayak, Zaitegi, Jakakortajarena, Loidi, Lekuona eta abar. Idazti gitxi agertzen dira.

Laster asmo barri bat atzalduko dot. «Cuadernos de poesías» edo ingozkiak argitaratuko doguz. Ille birik batean. Kuaderno bakotxak ogetamar ingozki izango dauz. Asmo ona deritxozu? Toki guztietan egiten dabena, geure artean be egin nai dogu.

Eriotz aginetan nagola orain jakingo dozu. Bai zera! Aberri gaxo baten semeak eztira bildurta ta koldarrak izan. Batez be zuzendu daustazun lango olerki ederra irakurri ostean. Egunen baten ordezkoa biali bear izango dautzut. Milic esker! Baita «Orixe», Estefanía, «Erletxue», Satarka, Mourlane Mitxelena eta Matxingorri'ri be. Urrengo idaztaiak ikurritz auxe jarriko dautset:

Ad usum Delphini.

Lauaxeta

(Euzkadi, 24 dagonilla 1935")

Beste pusketa batzuk
(1928-1937)

ELEIZAKO AINGERUAK

«Zer dira eleizako egadun musuak?»
—Bere amari itaundu eutson neskatxuak—.
«Maitasun lorak legez dagoz altarean
Beti ega zabalik zerura begira;
Ortzi goitik jausiko lorak ete dira?
Aingeruak lez dagerz Jaunaren aurrian».

Olan erantzun eutson samurki amek:
«Eleizan dakusuzan egadun loreak
Dira neska garbien gogo loratuak.
Jaunak gotzon onetan eratu ebazan,
Oso garbiak ziran ta erne yakezan
Euren gogo erdian maitasun eguak».

Garbi oso bizi zan neskatxu panpiña,
Ba egadun loretan biurtzeko miña
Bizru yakon biotzean. Oi ama gaixoa!
Zure alabeari erne yakoz egak.
Gogoan erne yakoz, garbitasun egak
Ta ortzi oztin-zear donokira doa.

(Jaungoiko-zale, 1928, 260 orr.)

SORTZEZ GARBIAREN GABA

Gaur-gabeko zeruan urdintasuna!
Betirauna ikusten dala bai-dirudi.
Illargi ra izarrak-ziar, betirauna
Odeyak bapere
Lausoturik gabe.

Illargi ta *Izarrak* gabaren doñean
Osertze barikan ortzi urdiñean
Ainbeste distiraz argi egitean,
Lilfüratuten yat bertantxe gogoa.
Bai-da gaurko gaba, gau Jaunkotikoa!
 Bai-da gaurko gaba
 Gau zerutikoa !

Berak dirdiratzten daun ozkarbi-ziar
Sortzez garbi ori jasten da zerutik.
Izar bakotza izpi geiagoz bizturik
Lotazilleko gau-betean jasten da.
 Ixil da ludia,
 Leundu da aixía.

Zaratage dator.. Oi gaban urdiña!
 Oi gaban bikaiña!

(Jesus'en Biotzaren Deya, 1928, otsailla, 26 orr.)

ERESI BAKUNA

Bai zakust oldozten dauen gaban izar garretan
abeslari sortzen dan ortzargiaren loretan.

Edertasun yantziz nabaituten zaitut lekoan,
esker yantziz baña ederrago neure gogoan.

Ortzi gardenean zure mosua dot goresten,
ume begietan zure esker deuna dot onesten.

Eguzki izlatsua dirdirtzen da itxaso barean,
eta zure gentza, Urtzi ori, gogo doñean.

Onetsiten zaitut gaztaroko barre garbian,
baita be zartzaro zimurreko buru zurian.

Izadian dakust zure aunditasun lorratza,
gízadían zure maitasun irudi aratza.

Zugaitz lilietan dakust udabarri irria,
giz-bekokietan zure ezpanen mosu guria.

Lorazko goizari abesten dausie txoriak,
aunditasun orren lan orori gizon guztiak.

Ortzi-itxaso-lurrak dira zure aintzan txadona,
Zerorren txadonik ederrena barriz gizona.

Bildur naiakitzut ekaitz zaldiaren bitsean,
baña maitatuten zaitut biotzaren bakean.

Eguzki dizdiraz argitu daroazu ludia,
Zure begi deunak dira gogoaren argia...

(*Jaungoiko-zale*, 1929, 198 orr.)

GURUTZEKO JAKINTZA

Urrun Zugandik — bixi gurarik
Dastatu dodaz — gozo guztijak.
Bijotza baña — ze itun Zeu barik!
Larrosak beste — ziran zaurijak...

Neugaz nenkarren — barre alaya,
Poz ayek orain — diran malkuak!
Atsegin-lora — bada garbaya
Nora joko dau — neure goguak?

Ibilli nazan — lora ganian
Aurkitu dodan — zauri mingotsa!
Aul erori naz — laket arrian
Eta miñez dil — neure bijotza

Bixitza onen — arlo betia
Benetan zala — griñen ekintza!
Uria baña —, Josu maitia,
Kurtze ondoko — gogo-jakintza!

(Jaungoiko-zale, 1930. 313 orr.)

LARROSEA ETA TXARRIJA (Alegija)

Txoritokirik landara
atera eben txarrija.
Arin-arin basatzara
sartu zan, orruz, piztija.

Mustur-okerraz basatza
usartu eban sastarrak.
Onetan larrosa aratza
begijan eukon bedarrak.

Lorondo-puntan eguan
larrosa sortu-barrija.
Distiraz eukon altzuan
goxeko garó garbija.

Laster aginka txarrijak
apurtu eban gaxua
—Zegaitik neure orrijak
laskitu dozuz, gaiztua? —

Baratzen barriz musturka
asi txarri ayerra.
Ta esan eutson orruka:
—Zegaitik az ain ederra?—

*O/arz iñoren ederrak
min dagitsoe askori.
Ba-dira txarri ayerrak
ludi onetan ugañ.*

(*Euzkadi*, 1932, orrilla, 19)

GAZTAYA TA KATUBA
(AJegija)

Mikel, abertzale gastiar_y biotzez.

Gazt*ya eukon arsuak
arasa baten zainduta,
baña sagurxu gaiztuak
ozka *Itxi* eutson galduta.

Apari ona jateko
gabero euken gaztaya.
Elduko zan baña agudo
oturuntz arein amaya.

Arexek galdu gurarik
ekarri eban katuba.
Laster ixango bat barik
arasearen barruba

Katu-gorri, bixar-zuri
arro ebillan etxian.
Onez nagi, begiz argi,
urdairik etzan bakian.

Arasan sartu katuba
ta oiratu zan atsua.
Axe bai zala zeruba
gatzayan usain gozua!

Atsuak jagi zanian
zabaldu eban arasa.
Katuba sagu artian
ase eguan lasa-lasa.

Ez urdairik, ez gaztarik
arasan etzan gelditu.
Baña katu ta sagurik
gosiaz etzan garbitu.

*Iñoren kontuz eurerik
ez egik itxi sekulan.
Arrotzak alkar il barik
batuten dozak beinguan.*

(Euzkadi, 1932, orrilla,

TXITXEAK ETA MIRUBA (Alegija)

Olluak klo-klo egijan,
pi-pi txitxeak ostera.
Olantxe baratz erdijan
ebiltzan danak eraxa.

Ameak jana billatu
eta txitxeak iruntsi.
Arrikan etzan geratu,
goserik etzan ikusi.

Txitxeak ziran orijak
anka-txiki, luma-eder.
Etxe onduan gustijak
egoten ziran eskijer.

Bat baña danen galbide
etzan an bizi poz-pezik.
Buru-arin, piku-luze
urrun jua zan etxetik.

Aüru jauna, jaun bijurrak
ezautu eban txitxea.
Konpondu ziran maltzurak
eta gertau eben tranpea.

«Zeure lagun, lagun ona
iraungo yuat ludijan.
Alkarrekin zorijona
billauko yoguk mendijan».

Miru aren itz gaiztuak
ziñistu euzan txitxeak.
Eta gau baten gaxuak
iri eutsozan atiak.

Laster jarri zan miruba
txitxa politen artian.
Zorrotza eukon pikuba
eta gosia erpian.

«Azke-azke mendi-goyan
neugaz bixiko zarie.
Ama orrek etxe-esijan
beti euki nai zaitube».

Mirubak eta txitxeak
zauritu eben ollua.

Eta ama barik gustijak
goitu eben areyua.

Erijotza ta zaurijak
antxe izan ziran ugari.
Ordaintze ona piztijak
emon eutsoen txitxari.

Iñoren sorosi barik
miru txarraren ekiñak !
Gustijak erail eziñik
zauritu euzan geyenak.

*Arrotz baten lagun-nayez
ez saldu iñoz anayak.
Etxeko baten obenez
sortuten dozak etsayak.*

(*Euzkadi*, 1932, bagilla. 2)

L O R E T A N

Leio zuripe ortan illargi gabetan
Maitasuna dirurit ames gorubetan,

Gau argirsuan barriz iruiten dodana
Ortzargian eskuak urratzen dau dana.

Nire malkoz bustita dagozen liliak,
Ez ete diñautzuez neure gurariak?

Tanta bat lora-lekan ikusten ba'dozu,
Goxaren agurra da, samurki diñozu.

Zure biotz lilian al banuez urduri
Gogoko negar oneik goxaldero ixuri!

Orduan ortzargian maitasun malkuak,
Eleukez estaliko nire lei gaxuak...

(Euzkadi)

UDABARRIKO ABESTIJA

Lagun kutunok, gaztiak gara!
Burubak jaso zeruko argiz txauturik.
Itxaropena abestu daigun
Maitasun-euna mendi goyetan loturik.

Udabarija loratsu dager,
Eskuban dakar geure Jaungoiko altsubak.
Girin lizunak urijan utzi,
Erain daiguzan bijotz alayen oyubak.

Intzezko lorak zabaldu dabez
Irri dagijen urrezko leka gorrijak.
Eta larrosak kolko-zabalik
Bai-dirudije maitasun-oteun ontzizjak.

Gaztiago orain dabez goguak,
Ago gaztian aintza eresi samurrak...
Txorijak legez orok egazka
Poztu daiguzan amets dagijen gallurak.

Usaintsu egak axetxu mia
Legunki dabil bedar ta lili artian.
Garitza eta zugatz abarrak
Laztantzen ditu labalde orlei ganian.

Goitik datorren argi leunari
Zabaldu, arren, bular zurijak kutunki.
Abots alayaz baserritarrak
Zelai erdijan abesten dabe bigunki.

Bixi barrijaz pilpiraz dagoz
Izadiaren maitasunezko bularrak.
Edertasunez orleitsu dator
Loraz poztuten negu latzaren negarrak.

Mosu samurren aro donia,
«Maitatzen zaitut», eta laztanen orduba.
Zugatz puntetan lorea baño
Espan gañeran lenago déme mosuba.

Udabarriko zugatz mardula
Landatu daigun geure bijotzen barruban.
Bere azpijan lotan dagigun
Bero aldija elduko yakun orduban.

Igartzen ba'da, Jon deun-gabean
Santzoka jaurti sutan dagozan garretan
Abar igarrak jaurtiko doguz
Eta ganetik jauzkatu pozez olgetan.

Gora bijotzak! oro da poza !
Lortu daiguzan atsegin danen lilijak.
Gaur gara, bijar ezerez barriz,
Ulobija ez dauskube itxiko adijak.

Maite-itz barrijak entzungo ditu
Zelayan dardar dagan lora arruak.
Larrosa leunak artu, lagunok,
Maite diranen mosu samurrak lakuak!

Bein gaztarua il ezketiño
Nekosta baltza ixango yaku laguna.
Lortu lilijen mosu garbija
Igaro arte betiko zurgu illuna.

Udabarria maitasun-jaya,
Abiz bete dauz baso ixilleko zugatzak.
Ur gardenean biurtzen ditu
Gotzon eguan erako eder matatzak.

Mendi goyeran jantzi urdiña
Zabaldu dabe eguzkijaren mosubak.
Ezkon barrija lurak dirudi,
Bere lillurak larrosaz daroz eundubak.

Oarmen eta soñan bixitza
Sollik dirudit udabarriko argijak.
Atsegin oroz bijotza asetu
Eta malkorik barik goratu begijak.

Onetsi daigun udabarria,
Lili usañez geure gorputzak txauturik.
Ta itxaropena abestu daigun
Mendi goyetan maitasun-euna loturik.

(*Euzkerea*, 1930, 454 orr.)

BIDE-ZIAR ABESTEN

I

- Neure begijok dira gaba baxen baltzak:
Maitasun-zalez dakart bijotzeko suba.
- Lora baltzak edurtzan bildurgarri yataz;
Begi orrein ditzira eriotz-mosuba.
- Ezpan oneik sugarran mingain goritsuba,
Lorak zabaltzen dabez matrail kutunetan.
- Ezpan samur ganian zabalduko lorak
Larrosa zauritubak geure bijotzean.

— Zitori antza dager neure soin garbijak,
Mosu orrentzat artu bere edertasuna.

•— Edurran antzekuak zitorijak dira.
Loitu ezkerro ezin atzindu lizuna.

— Ezpan oneik lañua, begijok ametsa.
Gorputza ikugai-eza, ezin zaitut maite.
— Irudi gelgarijoi, neuregana zatoz!
Maite eziña, betiko neugaz lotu zaite!

II

Lorarik lora
amets egalez
sortu yatan lei sutsuba.
Irri egisten
lili leunentzat
neure maitasun mosuba.

Ortziak gero
urrezko argiz
lotu eustazan begijak.
Nirñir egisten
ixar ta lorak.
neure begizkun gustijak.

Maitasun ori,
gero zeu baña
beitu zinduban zorunez.
Agur betiko,
ixar ta loraJc,
gaztarua il da samiñez.

Neure mosuntzat
lora leunenalc
neska politan ezpanak.
Begizkunentzat
ixar argijak
maitian begi laztanak.

(*Euzkerea*, 1930, 500 orr.)

GURA NEUKENA

Nik eztot maite, neure neskatil zuriya,
bular ganian dardar daroazun lilija.
Bijotz ori da maitatzen dodan bixitza.

Lili lerdena
neure bijotzak
maite dabena.

Maitasun bixiz zabaldu yatzun lorea
gorde nai neuke usainduz bijotz gaxua.
Zeure gogoko ederrak lotu narua.

Lora laztana,
bijotz ori da
maite dodana.

Zegaitik, arren, ez maite lili bikaña?
Damokitzuket neure lilitxu Iiraña...
Goguan dagon maitasun lora au baña
ezin opari
zeure espanaren
mosu leunari.

(Euzkerea, 1931, 562 orr.)

LOREAK ETA EGUZKIA

Ur-ondoan ziran loreak
axe samurren usaingarri,
eguzkijaren maitagarri.
Kulunka ona, kulunka ara
gustijak
pozik egozan berotara.

Eguzki-kalda lur-ganian
loreak zimekzen ebillan.
Aldezlari iñor ez garillan...
Zutago goitik eguzkijak
unían
legor ziran orri gustijak.

Ama-samur orra odeya
lora ta eguzki-artian.
Itzal leuna lore-ganian
orriño ororen mosulari.

Ken-deya
egin eutson, baña, itzalari.
—Kendu adi. odei aztuna,
ezin yoguk eguzkija ikus».
—Lora-taldiak ezin nakus.
Eztau euki gura onduan
zoruna».
negarrez itzalak iñuan.

Eta negar-malko bigunak
jausi ziran loren altzora.
Tanta jausi yaken kolkora.
Eta odei aren malkuak,
itunak,
alaitu ebazan gaxuak.

. . .

Lora onein legez zoruak
kenduten dabe laguntzea.
Baña adizkide egizkua
ezta aldenduten orregaitik.
GoguaJk
eztabe galtzen laguntzarik.

(*Euzkadi*, 1932, bagilla, 9)

MUTILTXUBA TA ERLIA

Mitxeleta
bat eta erlia
egaizka lili-artian
mutiltxu batek ikusi euzan
baratz-alaiko bakian.

Mitxeletaren margo politak
zoratu eben mutilla.
Lorarik lora arin ebillan
margo eder areik bilia.

Erle maratzak ots-egin eutsan:
—Ez adi joan inora.
Mirxeleten autsa dok soilki.
Ator, bai, neure ondora.

Ezti gozua emen yaukuat
lore gustijen mosuba.
Baña mutillak apurtu eutsan
ezti-beraska txautuba.

Onez ganera atrapau eban
mitxeletatxu Jiraña.
Laskitu eban bere onakaz
loratza oso bikaña.

Orduban erle, erletxu onak
sartu eutson, bai, eztena.
—Eskar txarreko mutil gaiztua
eu azan lukur-zekena.

. * *

Mutiltxu onen antzeko asko
ba-dira gure artian.
Baña txarraren azkena, laster,
elduten yake ludijan.

(*Euzkadi*, 1932, bagilla[^] 16)

PALANKARI BATI

Un desiderio della bellezza árnica. *Carducci*

Zein eder, lagun yaukok bedar-gain, itzala!
Palanka orren leya axe barna jaurti
oztiñaxen eun mia urratzen jokala,
baña orekan ago, gaste, tinko beti!
Zein eder, lagun yaukok bedar-gain, itzala!
Elade'n ager nitzan gastarozko loran?
Soin orrek akatzik ez, Apalla'ren antzo!
Izlan dok, ba, barnian arnas illeziña.
Indarra ta gokentza eugan batu dituk.
Esku ertzetik soilki urten begik alak
sona lerden dokala Parzenon'rako gai,
arri-landu bateko soin ereskitsuba.
Igigune barik eu, oro igitu begik
naimen bitartez obe, indarragaz baño.
Begizkun orrein aurrez, gel-ez-arin, búa
ospe nayak yarokan palankaren ertza.
Esku artetik azke senti dokanarren,
bere aztatik ezin eta lurra jo yok.
Indarra eztok naiko.

Neurri zabalén-min
nayak uts egin bai'au, nora juaen naz?
Azke gozalako ta olantxe gabiltzok,
gizkaya yoguk baña ta bera gatorzaJk.
Gaste ori, ospiak ortxe yagik zantzo!
Eure jarrai txalotsa, agur bat zinkatu!
Ixén ori juango dok urrin egaizka,
bedar-legor metetan suba baxen arin.
Gaste-aldren gelkuntzak esitzen au pozik,
eta euren jo-muga besterik etxagok.
Il yakun gogo oneri emoyok indarra;
sendotik sendoena, emaitz baten antzo.

Iturriko txirulak ixillian otska
yantarazi eutsoen iñoiz urtzimiai
gurenda orrek legez geure baitan, nayai?
Jaurti palanka ori! Ez eme, ar adi]
Euregan dok gastaro, apahal eder legez.
Elade'k arnas soñan, abil aintza billa!
Jopu diranen aintza, es t un t zart ian.
Eu garalle, iñorentzat ereñotz abarra?
Ez! Urtzi'k igortzi au gastaro illeziñez
aberrija goratu dedin eure bidez.
Urrin jaurti nai yoguk endaren azkura,
palanka orrek legez oztiañak urratzen.

(*Euzkerea*, 1932, Epalla,

IGANDE GOIZ BATEN

Zeruba dok dardar uso-egalpian
ta axien españak loreak surlari.
Urtzimiak billoxik dozak
sona, mies-antzo, argitan.

Igandeko goxa, begi-gain dok gentza!
Zelai-ziar yuak kanpai baten otsa.
Neuretzat beti az sorbarri,
gogo-ustez akustalako.

Dapni ta Kloe —begi-barna loran—.
zer dan eztakijen lera baten jarrai.
Eun me-atzian zadorra dok
lerro-leunak gentzaz yagozak.

Olan akust lurroi. aur danen amei,
eure bare ontan eztok uñen otsik.

Baña arri-antzo orra gixona[^]
eta ugoskak dozak altzuan.

Soin gastiak utsik maite dozak dantzan;
begi bakun-ziar[^] izpiz yantzita lez.

Sort begik alai maite-miña,
gogai mia baxen ikuzle!

Atseden orduban eure adi nagok:
mezaren aintz-deuna neugan dok oindiño.

Ezertzaz oldoztu baño len
euri gurka egiten natork.

Ixilian dantzuk erlen neurrizko otsa[^]
bedar orón lagun ba-yatork itzala.

Urtzi ibilli dok emen ala.
begiratzez dana edertzen?

Ludi oi. zar-barri, ago neure maite!
Amas ezilkorrez azal-gain laztanduz.

Ago eder, itxas bitsetik
Aprod^{te} urten zanian lez.

Goxa dok. Lausotan oro itzartu nairik
Jata'k urdin goyak, lañoz gerrikua.

Itxas-izlan argija yabilk,
eunak arro yuak ontzija.

Eta gorpuzkijon lillura ixillian
adore barri bat nabatuten yuat.

Ezilkortu ba'neukek berton
gerorako yatan zeruba!

(*Euzkerea*, 1932, Orrilla, 95 orr.)

TOPA BATEN OSTEAN

Insanire iuvat

Ardoz edo argiz moskortu adi
eta gudu-kantak geroari itzi.
Topa egiok bizitzari,
goizeko izpien aizteari!

Bertsotan esan dok asaben gaintza-
gazteek maite yuen ezpaten aintza.
Edariz bustirik ezpanak
birtute-itzak eder eztozak.

Moskorrak ez yakik barneko miñik;
poz baten mosuak eztauko ordurik.
Kanta egik txolen dirdira.
eta ezpan gazteen pilpira!

Zoratzea on dok. Ardo gardenak
andere eder baten itxura yaukak.
Urteak kendu veutsek garra₃
udaldi beroen indarra.

Yainkoen odoltzat gorde yuedan
ta ardokiko itzalak marguldu yuan.
Bonbil orren yanzki panpiña
armiarman ariz egiña!

Zar-kutsua yaukok, baiña yakintsu
maitasun ta irriak ez yozak galdu.
Azkenengo tanta gozoa
begietan yaitekek loa.

Ardo zar argiaz eztok zadorrik:
gizonak ez yaukek ule zuririk.
Yakitun danaren ezpanak
itz-vario xamurra dozaic.

Oin danetan yabilk dantza-gurea,
ben-benari be eder yakok barrea.
Errege askoren lepotik
eskaleak kiñu ba-yagik!

Zentzuna galtzeak azkatzen gaituk;
edanak mundu au aunditzen yauskuk.
Topa, biar, ba, deus ez gara!
Moskorra betor txol-artera.

Yagokan tokian to zori ona
laketen yaube, ba, eztok gizona.
Beti Kitere'ren ezpanak
ardoiz ezti-lora yakuzak !

OARRA.—Elade edo erromarren arauz egiñak diran olerki oneikaz idaztiñoa argitaratuko dau egilleak. Eun ijekj baiño eztira irarriko, eta bakoitzak bere zenbakia izango dau. Liburu ori ezta jente xeearentzat egiña. Era edo mueta askotariko olerkiak egin daukezala, egilleak adirazo nai leuke. Beraz, olerkiok, ibaten ezeze birritan be, irakurri bear izango dozuz, lirikan oi diran gora-berak daukez-eta.

(*Yakintza*, 1935, Azaro-Lotazilla, 415 orr.>.

i [VEN, SEÑOR ! !

Señor, ¿qué buscas en mí pecho,
si el alba la cubrí de lodo?
Tu rastro, que signaba todo.
en ruinas lo dejé deshecho.

¿Quién, Señor, borró de mi frente
aquel resplandor de tu Cara
que al espejo del agua clara
prestó cristal más transpánete?

Qué bellas fueron mis pisadas
cuando la gracia florecía,
en las alas del nuevo día
que robó luz en tus miradas.

Cuan presto sabía tu estancia
y la sombra de tu Figura,
pues una sutil hermosura
me guiaba con su fragancia.

Pero ¿pasaste por mis huertos,
con tus claros ojos en gracia
para que la flor fuese lacia
y los frutos nacieran muertos?

¡No, Señor!, vuelvan tus caminos
con hermosura siempre nueva
y su señal mi amor remueva
para seguir tus pies divinos.

¡ Ven, Señor!, con secreto viento
tu Espíritu mueva mis ramas,
y con brisas bese las llamas
la paz divina de tu aliento.

Surjan incendios en mi pecho,
que quemen los frutos de muene...
Tu libertad me ate tan fuerte
que sea tuyo por derecho.

Así Señor, tu voz me fuera
—con fa belleza por misiva—
lleno de perdón mientras viva,
lleno de gracia cuando muera.

Firmado
E. de Urkiaga
Lauaxeta
Prisión — Carmelitas
2 - 6 - 1937
Vitoria

PLEGARIA POSTRERA

Virgen Maria, de fulgor me llena
De tus ojos en luz el alba pura.
¿Qué mieles en flor manan la dulzura
Como tus labios al besar mi pena?

Virgen Maria, ¿qué mortal condena
Ata las almas en prisión oscura?
Filo de piara tiene tu ternura
Con que corten sin sangre mi cadena.

Sin esperanza mi dolor muriera,
Si en tu sonrisa maternal no viera
La libertad en soi con brisas nuevas.

Así mi llanto se trasforma en gracia
Y mi alma, presa en lodos antes lacia,
En flor eterna para Dios renuevas.

(1937)

GEL ZAITE!

Eguna berantz doa...
Nerekin gei zaite, arrats-begi da-ta,
itzal baten gozoz urdintzen doia-ta.
Ene Josu maite,
gei zaite!

Nere egun-argia berantz azkar doa,
itzalak joten dau atadi ondoa.
Arrats onen otza,
biotza!

Oi Bidazti deuna, sar zaite neurera,
bertan dozu bada maitasun arrera.
Bekidat bizitza
zeure itza!

Idazki doneak azaldu eidazuz
euren muin eztiak emon egistazuz.
Bel zeure mintzoa
gozoa!

Ta barne guztia berotan dodala
argi biur bekit eriotz itzala;
dana yat atsegin
zeurekin.

Orain sakon dakust zeure eriotz ori!
Zergaitik daukazu biotz deuna gori!

(1937)

BIOTZ DONEA

Biotz xamur beroa
gar-gorri batekin zauritzen nozu;
zeru gaiñean, ordea,
maitasun larrosa zabaltzen dozu.

Sakon bitan nabil, ez bai goxo,
otzak il naroa zugandik urrun;
su gordiñak nauka zeure ondoan,
gabaz argi zakusat, egunez barriz, illun.

Zeurekin naukazu, neugaz ez zaukat,
eguzkitan edur, otzetan sugar;
jolas bakotx onek galduta nakar,
baiña bien bitartean,
sugar zakit, Jauna, biotz barnean!

Goiz eder onetan erail bear nabe
txindor baten txintak gozotan nabela;
el naiten leiora begiok intz gabe,
Gorbei barna jatort kañoi ots itzala,
or egazkin egak odei lapur doaz.
Guda gotzon baltzak odolez dakustaz
euren oin aurrean beredin gudari;
gazte argi orreik, eutsi lur amari!
Bera bezin onik eztauka ludiak!

II

Baiña, Jaun Altsua, orain nai nozu?
Bildots baten antzera lotuta naukazu
bear nauenian aberriak?
Aren deia dantzut arnas-ots barrian
Mendi goitietan eriotz datorkit,
bertan eder dira azkenengo atsak;
arte adartsua babestoki bekit,
neure gerri meion zauria
txastau dagientzat etsaien erraiñak.

III

Zuzentzaren alde bil diran neurekin
ixuri daidala bizitz iturria;
lurra estal bedi odol larrosakin
gozo ta eder gizonen kopetan...
Aberri opazko eriotz mosuak.,
zauri orreik zuk or mendietan,
aintzak zabal ditu esku argituak
antxe jausi nedin... eta azken orduan
laztandu naizela amasa estuan?

IV

Garaitz eder billa doazan zaldiak,
eta bego onein leiartuan,
tinki igaro beitez gizonen argiak!
Esku zurbil oneik aul luzatu bediz,
euki dagientzat ikurrin doñean.
O azkatasun otsak, betiko bil zagiz,
antxe makur zaite, oi buru nereak!
Geure lur amaren besarte gozoan
eta anai maiteok, eutsi lur arnasari;
itxaropen aixe sort bekit gogoan.

Jauna! eriotz au arren emostazu:
koldarrentzat itzi larrosen usaia,
azkatasun deuna biai egistazii,
atzindu nai dot, ba, arrotzen iraiña.
Gorputz onek bakez atsedean dagian
erri azkatuen egun-aundirarte.
Gudan jaus nadilla zuzentzaren alde,
ez ormari aizez, goiz eder argian.

VI

Eta bake donea sortuko danean
neure azur utsak
besteenakin batu!
Eresi gurenaz lagundu bidean
obi bakar arte, baiña arren, bukatu
oroigalluaren maitasun itzala.
Kristo'ren gurutzaz beragan ditxarot,
Josu'ren fedea besterik eztaukot.
Erri zintzo onek zaindu dagiala
il gintzanen atsa, il gintzanen aala.

(-937)

AGUR, AMA

Agur ene Erri, Jaunak naroa
Aberri eder argira!
Neure negarrak jarion naukan
zeure mendian begira.

Seme bat zeukan baiña etsaiak
kendu eutsoen biotza.
soin ederra ixuri jakon
maitez bateko goiz otsa.

Gurutz deunan musu egiñaz
alde egin eutson mundutik;
Kristoren gentza abo gañean
loratu lakon gazterik.

Jaunaren maitez, Aberri maitez
ez eban euki bildurrik;
eta zeuretzat zorion utsa
opaldu eutsun gogotik.

Ene Erri ona, zagoz betiko
Kristoren fede batean!
Olan, zoriona billatuko dozu
emen ez-pada, zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot
siñistu bada, euzkoa!
Ene Erria azke izan artean
zaindu Josuren legea!

Eder jatazan euzko bazterrak,
eder itxaso zabala;
baiña oraintxe ederrago jat
eriotz onen itzala!

Gaztea nozu bizitz onetan
ta ez jatan palta gauzarik.
Ene Jaun, gogor aldi onetan
ez naizu itxi eskutik!

Ez bedi egin neure gogoa,
Zeure naia bai, ostera.
Gogoa doa zeru argira
gorputza lur illunera.

(1937)

IZTEGITXOA

<i>Adasica</i> , brote	<i>Kazka</i> , golpe
<i>Aier</i> , ira	
<i>A ndana</i> , cosecha	<i>Laba</i> , lo llano
<i>Artzañora</i> , mastín	<i>Labalde</i> , llanura
<i>Atzindu</i> , borrar	<i>Labita</i> , mastín
<i>A uko</i> , freno	<i>Laket</i> , placer
<i>Aurkintza</i> , paisaje	<i>Lats</i> , regato
<i>tetar</i> , huella	<i>Latzin</i> , campiña
	<i>Lea</i> , playa
<i>Eakura</i> , limite	<i>Lepalpen</i> , responsabilidad
	<i>ler</i> , pino
<i>Dagir</i> , agiri da	<i>Lipar</i> , instante
<i>datorz</i> , etorten dlra	<i>Loragu</i> , jardín
<i>Déme</i> , erneten da	<i>Lun</i> , león
<i>Deslz</i> , esitzen dltu	
<i>Digart</i> , igarten dot	<i>Makal</i> , temblón
<i>Ditxiguz</i> , izten doguz	<i>Mao</i> , clavel
<i>Duler</i> , ulertzen dau	<i>Murrika</i> , burla
<i>Dupa</i> , tonel	
	<i>Oindi</i> , aJtar
<i>Eratzan</i> , acostarse	
<i>Erio</i> , prominencia	<i>Tordanlxa</i> , calandria
<i>Espa</i> , lamento	<i>Triribogin</i> , tabernero
	<i>Txirrita</i> , mariposa
<i>Gatxuren</i> , peligro	
<i>Gelkera</i> , lentitud	<i>Valu</i> , paralizar
<i>Goznar</i> , meditación	<i>Uberaldi</i> , resaca
	<i>Usuil</i> , cofre
<i>Idustun</i> , collar	
<i>Iralu</i> , emponzoñarse	<i>Zarba</i> , fronda
<i>Irusta</i> , trébol	<i>Zerria</i> , cortina
<i>'aupontzi</i> , sagTario	

AURKIBIDEA

Urkiaga ta biok (<i>Zaitegi'tar lokin</i>).	5
Oroitzak (<i>Itziar'lar Martin</i>).	11
Urkiaga'tar Estepan'en bizi-urratsak (<i>Aita Onaindia</i>).	15
Lauaxeta'ren poesi-gunetaraniz (<i>Luis Arostegi</i>).	19

BIDE BARRIJAK (1931)

Itzaurrea (<i>Aitzol'dar J.</i>).	41
Gexorik nago.	46
Neguko gaba	47
Gurutze-aldera	49
Arotzak	50
Itauna	51
Erantzuna	51
Miren Neskutza'ren Baselexa	52
Jadetsi-eziña	54
Mao gorrija	54
Abaua	55
Gaste gexua	56
Iluntzeko ixarra	57
Gabeko irrintzija	58
Iturri-negarra	59
Maitale kutuna	59
Ituna	62
Txakurtxuba	63
Ezkontza-eguna	64
Ludi ameskorra	64
Goguaeren eresija	65

Mosuba	66
Lied	66
Bijotzean	67
Jaungoikotija	68
Lili-negarra	70
Liparra	71
Scñai abestu	72
Betikorra	74
Abestija	75
Mendijetara	77
Bere illobijan	78
Jaunagan atsedena	79
Artzai ona	81
Zaurija	82
Miren'i otoa	82
Siaskakua	84
Artxanda ganian	85
Goxaldeko edurra	87
Ezilkortasuna	89
Itzarrik	91
Itxasora!	93
Uarra (<i>Egilleak</i>).	95

ARRATS-BERAN (1935)

Aurre-itza	99
Neskatxu gorriska bati	100
Zelayetakua	101
Eiztari aundija	102
Ezkontza-goxa	103
Bertso zarrak	104
Etxe ori!	105
Oraingo maitarajak	105
Burtzaña	106
Espetxctuarena	107
Sévres'ko murkua	108
Izlapurra	109
Kanta ariña	no
Itxastar gaste bati	HI

Narkis	III
Goxaldeko otoa112
Kiñuba113
Amañena115
Abeslari bati116
Jostalluba117
Españartxu batena117
Mendigoxaliarena118
Mutxurdiña120
Otsokorena121
Ondartza123
Itxas-ondokoena123
Ardua ta atsua125
Udabarriko autorkuntza126
Zelayan127
Mayatzeko Gurutza128
Ziñiste-bakuarena130
Iru zaldunak131
Bolutxu zurija132
Langille eraildu bati133
Artzain baten erijotzean134
Etxeko alabea136
Mayatzeko kantea137
Txo moskortuba138
Txiribogiñaren alabea139
Begijen omenez141
Amayur gaztelu baltza142
Oar batzuk144
Olerkari bati (<i>Jautarkol</i>).145
Idazki-antzo (<i>Lauaxeta</i>).148

BESTE PUSKETA BATZUK (1928-1937)

Eleizako aingeruak153
Sortzez Garbiaren gaba153
Eresi bakuna154
Gurutzeko jakintza155
Larrosea eta txarrija156
Gaztaya ta katuba157

Txitxeak eta miruba	158
Loretan	160
Udabarriko abestija	161
Bide-ziar abesten	163
Gura neukena	165
Loreak eta eguzkia	165
Mutiltxuba ta erlia	167
Palankari bati	168
Igande goiz baten	169
Topa baten ostean	171
¡Ven, Señor!	172
Plegaria postrera	174
Gei zaitel!	174
Biotz donea	175
Agur, Ama	178
Iztegitxoa	181

Euskal lurra bai jori! Ontan sorturiko
euskal idazle gurenak
arnas sorgiñak darabiltza kezka betean;
amas orren suak daragioe zirkin,
bazter-egalak ixio-azo nairik.
Ortarako, olerkia ez ai dozu onena?
Poesi-suak iratzar izan dauz biotzak, erriak.
Olerkariak ba-daki.
Sakon esanak, adimena arrotzen; gozo
adieraziak, biotza samurtzen.
Mamin eta azalez abaraska dozu Lauaxeta.
Izkera ta gaiez oberena.
Interesgarri dozu, idatziz emoieran lez gaur
be, aren lana, azatz oztiñetan ustua:
izkuntzaz eztia, gogai pitziz kuin-kuin.
Itsuan egiñik ez daukazu olerki oneitan,
jarraika orpoz-orpo etozentzat eratua baiño.
Zeutzat, osotasun betean, dozu esku-gain
daukazu liburu guri au.
Emen dozu, bai, bere bete-betean, zan legez,
oi ez lakoxe nonasunaren
jabe izan yakun gaztea,
gugandik, damuz,
lasierregi joana.